

### Moda gehigarria

Gehigarri berezia → 11-19

### ELGORRIAGA → 28

Onddo eta Zizen besta urriaren 6an eta 7an

### MALERREKA → 31/32

Urriruko besta B. Labaienen Euskararen Eguna Zubietan

### LEITZA → 38

Aurrera Elkartearen Eguna larunbat honetan

### BAZTAN → 40/42

Herriko bestak Anizen eta Gartzainen



## ‘Baztan’ filma urriaren 5ean estreinatuko dute zinema aretoetan

Irailaren 24an egin zuen lehen agerpena Donostiako Zinemaldian.


→ 45



### ELKARRIZKETA → 3

#### Leitzaldean Berdintasun Plana egiteko lanean

Urte hasieran hasi zen berdintasun teknikari gisa Amaia Zalba. Orain artekoaz eta etorkizuneko erronkez mintzatu zaigu.



### ERREPORTAJEA → 4-5

#### Garai batean kontrabandoa zela eta orain turismoa dela, elkarlanean segitzen dute Xaretako herriek

Berriki Xaretaren Eguna ospatu dute lehen aldiz.

### ZOKKETAK → 2



Txartela egiteko deitu **948 63 54 58** telefonora

# BERA AGENDA IRAILA

**12**  
ortzirola

**GUK GUREA!**  
Ikurrinaren aldeko martxa  
12:00 - Herriko atxeko plazatik Altzoteko plazara:  
musikariak, bertsolariak, dantzariak...

**28**  
igandea

**LURRAREN EGUNA**  
Eskulangileen azoka, barazkien erakusketa, gazta eta sagardo lehiaketa, kalejira, argazki erakusketa, bertsolariak, dantzariak, berbena...  
Altzaten (eguraidi txarra eginez gero Toki Ona Kiroldegian)  
Antolatzailea: Gore Txakoa Elkarte

**19**  
ortzirola

**ORGANO KONTZERTUA eta MAHAI INGURUA**  
20:00 - San Esteban Elizan

**27**  
larunbata

**FAZERIEN AKORDIOA SINATZEA**  
12:00 - Lizuniagoko mahain-borrian

**26**  
ortzirola

**HAURRENTZAKO IPUIN KONTALARIA**  
18:00 - Herri Liburutegian

**27**  
larunbata

**XXXII. Lizuniagoko igoera**  
17:00 Irteera  
Antolatzailea: Gore Txakoa Elkarte

Eztabaen gameko informazio gehiago: 012 telefonozan [www.berrikoutala.net](http://www.berrikoutala.net)

**deskontuak**

- ZALAIN MOTOR
- edurne erropadenda
- KATEA-BIKE
- Urte Legea
- MAMUR
- Donostia

**ttipi txartelarekin beti irabazten du!**

deskontuak + zozketak + diruzkara musikariek

Eskutu zurea: 948 63 54 58 telefonoz!

**574. ALEKO IRABAZLEAK**

- \* AQUARIUM 2 SARRERA : Edo Ormazabal I ZUBIETA
- \* ARKUPE TXOKOLATE LOTEA: Junial Bajatzena I DONOSTEBE
- \* LESAKAKO UDAL IGERILEKUA 2 SARRERA: Felisa Inurgarai I AMAJUR
- \* ONINART KAMISETA : Izaskun Amiano I AMAJUR
- \* EREN 2 LIBURU: Izaskun Bazterrika I ITUREN
- \* LANKU LIBURUA • DVD • CD: Mikel Garaika I ITUREN

**ttipi txartela**

**zosketak**

**IBAIZABAL 2 LIBURU**  
Ibaizabal argitaletxea  
[www.ibaizabal.com](http://www.ibaizabal.com)

**ZAZPIKOLOROA CDa**  
Pavita, Patroki eta Mamielola  
[www.katzaponeta.com](http://www.katzaponeta.com)

**MARTIKO LOTEA**  
Martiko  
[www.martiko.com](http://www.martiko.com)

**ttipi saskia**

**TTIPI-SASKIA**  
LANKU ARGITALETXEA  
Berru DVD +  
MC Txakoa CD +  
Jeltzagorri B. 3. liburua  
Zozketak  
EREN ARGITALETXEA  
gurea harria  
batzarra - 4 liburua

**AQUARIUM 2 SARRERA**  
Donostiko Aquarium-a  
[www.aquarium2.com](http://www.aquarium2.com)

**KAMISETA BAT**  
Ordo ta portu  
[www.ordotaportu.com](http://www.ordotaportu.com)

**ttipi-ttapa**  
Kontakto b. 7 31770 LESAKA  
Tel. 948 635 458 - [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)



Amaia Zalba, urte hasieran hasi zen Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoan berdintasun teknikari gisa lanean. Ultzamako Gizarte Zerbitzuetan ere ari da, bi tokietan lanaldi erdian.

Astearte eta ostiraletan Leitzako bulegoan egoten da eta astelehen eta ostegunetan Ultzamakoan. Asteazkenetan, berriz, txandaka ibiltzen da, batean leku batean eta hu-

rrengo astean bestean. Emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortu delaren ideia azken aldian zabaltzen ari dela iritzia dio, «baina oraindik hastapenetan gaudela».

Amaia ZALBA | Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako berdintasun teknikaria

# «Sentsibilizazioa beharrezkoa da, hortik sortzen baita ekintzarako gogoia»

G. PIKABEA | LEITZALDEA

## Orain artekoaz zein balorazio eginen zenuke?

Ni kontratatzean, Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoako Gizarte Zerbitzuetan Berdintasun arloa sortu zen, eta bertan jasotzen harrera atsegina izan zen, eta horrek hasiera erraztu zuen. Orain arte egindako lanaren balorazioa oso positiboa da, batez ere, herrietan jasotzen erantzuna zabala izan delako, eta lan honetan hori funtsezkoa da. **Zer egin duzue orain arte?**

Berdintasun Zerbitzu batek martxan jartzeko behar duen lehenengo gauza Berdintasun Plan bat da, egiten den guztia hortik abiatzeko. Kontua da Berdintasun Plana egiteko aurretik bertako egoera zein den ezagutu behar dela, bertako errealitateari egokitzeko eta Plana efektiboa izateko. Eta horretan gaude. Berdintasun Plana egiteko hiru talde sortu genituen, eta taldeetan herrietako egoera aztertzen ari gara, beharrezko gauzak antzeman eta ondoren, Berdintasun Planean zehazteko. Leitzan talde bat osatu genuen, Areson beste bat, eta Goizueta eta Aranoan bestea. Bestalde, Nafarroako Gobernuaren diru laguntzarekin formakuntza saioak egiten ari gara. Apirilean hasi ziren eta azaroan bukatuko di-



UTZITAKO ARGAZKIA

Amaia Zalba berdintasun teknikaria bulegoan.

ra, eta zonaldeko politikari, teknikari eta eragileei berdintasunaz formakuntza minimo bat eskaintzea da helburua, bakoitzak bere esparruan lan egin ahalizateko. Eskola eta institutuarekin ere koordinazioan ari gara.

## Zer somatu duzue herritarren aldetik?

Erantzuna oso ona izan da. Etorri nintzenean eragile eta erakundeetako ordezkariekin biltzen hasi nintzen, nire burua aurkeztu eta nire asmoak plazaratzeko. Batzuek berdintasunaren gaia ezezaguna zuten, hau da, entzuna zuten, baina ez zekiten zertan zetzan. Hala ere, beraien jarrera irekia izan zen, eta honek asko

## HUTSUNEAK

«Hutsunea formakuntza eta sentsibilizazioan dago. Gaia ez da ia ezagutzen, eta ezagutzen den kasuetan zalantza asko daude, eta honi buelta emateko jendeari tresnak eskaini behar zaizkio. Sentsibilizazioa beharrezkoa da, hortik sortzen baita ekintzarako gogoia. Emakumezkoek urteetan jasandako diskriminazioei erreparatu behar diegu aurrera, egungo egoera aztertzeko eta dihardutenak ezagutzeko, eta gero, hauek ekiditeko ekintzak egiteko»

erraztu zuen. Gaia nahiko gutxi landuta zegoen erakundeetan eta ezjakintasuna somatu nuen hainbat tokitan, baina naturala da. Emakumezko zein gizonezkoek erakutsi duten interesa, baina egia da eragile edo erakunde askotan emakumezkoak direla gaiarekin sentsibilizazio gehiago dutenak, eta hortaz, gehien hurbiltzen direnak. Hala ere, oso pozik nago gizonezkoen inplikazioarekin.

## Berdintasun Planaren ildo nagusiak zein izanen dira?

Illoak, helburuak eta ekintzak oraindik zehazteko daude, baina taldeetan ateratako informazioaren arabera izango dira,

errealitatean ahalik eta gehien hurbiltzeko. Lantzeko beharrezkoak diren ildoen artean zeharlerotasuna dugu, genero berdintasuna arlo guztietatik lantzeko izango dena. Honetaz aparte, badira bileretan ateratako hainbat gai ere: hezkidetzak, emakumeen kontrako indarkeria, partehartzea, bateragarritasuna... **Zein da lau herrietan egoera?**

Lau herrietan egoera nahiko antzekoa da, kontuan izanda, bakoitzaren berezitasun eta aukerak. Orokorrean, berdintasuna ez da modu zabalean landu, herri mugimendutik egin dena kenduta. Herrien arteko ezberdintasunei ere erreparatu saiatuko gara Berdintasun Plana martxan jartzean. Niretzat, lau herrietan somatu dudako inplikazioak eta lan egiteko gogoia da interesgarria. **Aurrera begira zein asmo dituzue?**

Berdintasun Plana egitea da orain helburu nagusia, eta hurrengo hilabeteetan bukatuko dugu. Gero, martxan jartzea izango da helburua, eta horretarako berriz ere eragile eta erakundeek konpromiso batzuk hartu beharko dituzte, plana bete eta parekidetasunean eta berdintasunean oinarritutako harremanetan bizitzeko, desberdintasunik gabe.



**XARETA** → AINHOA, URDAZUBI, SARA ETA ZUGARRAMURDI

# Garai batean kontrabandoa zela eta orain turismoa dela herrien arteko harremana ez da sekula eten Xaretan

Elkarlanean segitzen dute Ainhoa, Urdazubi, Sara eta Zugarramurdik

Ainhoa, Urdazubi, Sara eta Zugarramurdik elkarren arteko harremanak sustatzeko Xareta Eguna antolatu dute aurten lehendabiziko aldiz. Urdazubi eta Ainhoa lotzen dituen

bide turistikoa ere inauguratu dute eta gisa honetara, pottokaren ibilbidearekin lau herriak elkartu dituzte. Lehen edizioaren ondotik, besta urtero herriz aldatzeko asmoa dute.

**G. PIKABEA** | XARETA

*Zelai zuhaitzua.* Hori xe da Xareta erran nahi duena Joxemiel Barandiaranek eta Xaretako lurraldea aztertzen lan haundia egin zuen. Eta inguruko herriek berak emandako hitza aukera-

bestera tu zuten 2005ean Xareta elkarteak sortu zuten. Ainhoa, Sara, Urdazubi eta Zugarramurdi herriek duela zazpi urte sortu zuten Xareta elkarteak, elkarlanean ari-

tzeko. Hala ere, hartumana sekula ez da eten eskualde honetan. Herri hauek betidanik egon dira harremanetan, lan-kidetza hitzarmenak egin izan dituzte eta 90. hamarkadaren hasieran, ekimen turistikoak batera bideratzeko elkartu egin ziren. Orduan, 1994an, berreskuratutakoa da Pottokaren ibilbidea, Sara, Zugarramurdi eta Urdazubi herriak lotzen dituen bide historikoa. Horrez gain, azoketan elkarrekin ezagutzera ematen hasi ziren.

Azken urteotan, beraz, elkarrekin muga egiteaz gain, bada elkarlanerako biltzen dituen bertze ezaugarri bat: turismoa. Egia da hondakinen kudeaketa ere elkarrekin egiten dutela Lapurdiko bertze herri batzuekin batera, eta egunerokoan, bestak direla, erosketak egiteko dela, edo familia tar-tean dela, harremanak

**DATUA**

# 3.650

**BIZTANLE**

inguru dituzte Xareta osatzen duten lau herriek. Sara da haundiena 2.400 biztanle ingururekin; Ainhoak 650 inguru ditu; Urdazubik 390 inguru eta Zugarramurdik 210 bat.

ugariak direla lau herrien artean. Dena den, gaur egun Xareta elkartearen helburu nagusia turismo mailan indartzea da.

**XARETAREN EGUNA**

Irailaren 16an, lau herriek Xareta Eguna ospatu zuten Urdazubin eta lau herrietako herriarrek batera, lau auzapezak bildu ziren: Henri Dagerre (Ainhoa), Battitt Laborde (Sara), Santiago Villares (Urda-

**XARETA OSATZEN DUTEN ESKUALDEKO UDALERRIETAKO ALKATEAK SOLASEAN**



**Battitt LABORDE | SARA**

**«Inguru honen partikulartasuna ezagutarazteko balio du, baina indar gehixeago har dezan nahiago genuke»**

«Muga administratiboak hor daude, baina betitik harreman azkarki izan da saratar, ainhoar, urdazubiar eta zugarramurdiarren artean». Iritzi horretakoa da Battitt Laborde, 2008tik Sarako auzapeza dena. Eta gaineratu digunez, «lehen kontrabandoa zela medio bazen harremana eta gaur egun, turismoak lotzen gaitu, baina egunerokoan bertzelako harremanak ere baditugu: herriko bestetara joaten gara, mandatuak bertze herrietan egiten ditugu...». Laborderen irudiko, «Euskal Herri mailan harremanak behar dira» eta horretarako aproposa da Xareta elkatea: «inguru honen partikulartasuna ezagutarazteko balio du», dio, nahiz eta onartu duen «indar gehixeago har dezan» gustatuko litzaiokela. Bertze herriekin harremanak sortzearen aldekoa da eta irailaren 23an Lizarietan Etxalarko Udalarekin egindako usategietako hitzarmena ere bide horretan kokatu du: «bi herrietako jendeak elkar ezagutzeko. Aitzakia bat behar da, zerbait muntatu, eta horrela sortzen dira harremanak». Eta Urdazubin egindako Xaretaren Egunaz ere baikor mintzatu da: «egun xarmanta izan zen». Etorkizunera begira, «gure komunikazioa turismo mailan indartu egin nahi dugu», erran digu saratarak. Baina turismotik at, Xareta indartzeko baditu ideiak: «kirol mailan, adibidez, Xareta-ko ekipak sortzen ahal dira. Denboretan entseiatu ziren eta orain ere egin daiteke».



**Santiago VILLARES | URDAZUBI**

**«Elkartea gauza ona da eta elkarrekin lan egitea bakarrik aritzea baino hobea da guretzat»**

2007az geroztik Santiago Villares da Urdazubiko alkatea eta beraz, bera alkatetzan sartzerako Xareta elkatea sortua zen. Elkartearen lanarekin kontent dagoela aitortu digu: «denbora puxka batez sobera mugitu gabe egon dela» aipatu du, baina «orain kontent gara, elkarrekin segitzea ona dela pentsatu dugu eta indartu egin nahi dugu. Xareta Eguna ere antolatu dugu herriak gehiago elkartzeko eta jendearen erantzuna ikusita, balorazio positiboa egin dugu». Xareta elkarteak turismo alde-rik herriari lagundu diola uste du Villaresek, «elkarrekin lan egitea eta elkarri laguntzea gure mesederako izan da. Bertze herrietara joaten den jendea gurera ere etortzen da, eta ferietara ere elkarrekin gaten gara eta horrek ere lagundu egin digu». Dena den, Xaretako bertze herriekin «betidanik» harreman ona izan dutela azaldu digu Urdazubiko alkateak: «historian, lau herriak beti elkarrekin mugitu izan gara, lehen kontrabandoa bazen eta horrez gain, badira familiak herri batean eta bertzean». Beraz, Villaresen hitzetan, «elkartea ona da eta elkarrekin lan egitea bakarrik aritzea baino hobea da guretzat». Etorkizunera begira, elkarlanean segitzeko gogoz azaldu da: «orain arte bezala lanean segituko dugu, eskuorria ere berrituko dugu eta ferietara gaten segituko dugu».



**Laxaro DAINZIART | ZUGARRAMURDI**

**«Lehen kontrabandoa zela eta orain turismoa dela, lau herrien harremanak segitu egiten du»**

24 urtez zinegotzi izana da Laxaro Dainziart eta ilbeltzaz geroztik bera da Zugarramurdiko alkatea. Ongi ezagutzen du udaletxeko martxa eta Xareta elkartearen harat honatak ere ezagunak ditu. Elkarteari esker, «lau herriek elkarrekin dirulaguntzak lortu eta obra aunitz egin» direla dio eta gaineratu digunez, Xareta sortu zenetik «Zugarramurdik zerbitzu gehiago ditu eskaintzeko eta bisitari gehiago erakartzeko balio izan digu. Iparraldetik honat ekartzen ditugu eta alderantziz». Dainziartek onartu du lau herrien artean beti izan direla hartu-eman onak: «lehen, kontrabandoa zela eta orain turismoa dela, harreman horrek segitu egiten du». Harreman horren lekuko, hondakinen kudeaketa elkarrekin egiten dutela ere oroitarazi digu, Lapurdiko bertze herri batzuekin batera: «proiektua lau herrien artean egin zen eta gu iparraldetik hurbil gaudenez, onartu egin ziguten». Berriki egin den Xaretaren Egunaz ere mintzatu zaigu: «Xareta hemen dagoela agertzeko modua izan da eta aldi berean, lau herriak elkartzeko balio izan du». Hemendik aitzinera ere, elkarlanean segitzeko prest agertu da alkatea eta etorkizuneko proiektua izan daitekeena proposatu du: «kontrabandoaren bidea edo lehenagoko istorio bat muntatzea ongi egonen litzateke», adierazi du.

zubi) eta Laxaro Dainziart (Zugarramurdi). Xaretako Bidearen barne, eurek izan ziren egun horretan Urdazubitik Ainhoara doan ibilbide turistikoa inauguratu zutenak. Lehendik ere, Ainhoa eta Urdazubiko bizilagunek erabiltzen zuten bidexka hau, baina orain egokitu eta pottokekin seinalezatatu dute. Bidearen hasmenta adierazten

duen mugaria, berriz, Urdazubiko Genaro Fagoaga esku-langileak egin du. Orain arte, Urdazubitik Zugarramurdira, Zugarramurditik Sarara eta Saratik Ainhoara seinalezatutako bide batetik joateko aukera zegoen pottoka urdinari segituz; eta orain, bide berri honekin, Ainhoa eta Urdazubi ere lotu dituzte eta honela lau he-

rriak elkartuta gelditu dira. Xareta Egunari segida ematekotan geldituak dira lau herriak, urtero besta herriz aldatuz.

Baina ospakizun egun horretatik haratago, lau herrietako auzapezak eta turismo arduradunak bilerak egiten dituzte eta elkarrekin tramitatzen dituzte turismora bideratutako dirulaguntzak zerbitzu berriak es-

kaintzeko eta bisitari gehiago erakartzeko. Turismo azoketan ere elkarrekin ibiltzen dira, Donostia, Bilbo edo Miarrizteko azoketan behintzat bai eta horrela segitzeko asmoa dute, natur ondarea ez ezik, historiaurretik hasita gaur egunera arte iraun duen harremana mantentzen eta euren inguru ederrak ezagutzera emateko lanean.





**Nire txanda**  
Beñardo GOIETXE

## Idor

U da idor joan da, euririk ia ez dugu sentitu eta iturri zein erreka agorturik edo agortu hurren. Halakoetan gertatzen den bezala, ura behar moduan zaindu gabe, gero komeriak! Horixe da, segur aski, hondarreko urteotan NAKO ondasunei gertatu zaiena... lehen urtegi guziak sosez gainezka omen zituzten, egun, ordea, ia urik gabe omen daude, zulotik zuloa alferrik isuri baita. Hara bertzela bizirauteko banketxe batek «NAko Caixa-Caixa NA» izena «aldatu behar izana». Gobernuek, jendearen gisa, dirua nolahi isuritzen utzi dute, eta orain bezereki zaindu behar diren alorrak ureztatu gabe uztera «behartuak» omen. Ondorioz, hezkuntza, euskara, kultura, industria, laborantza, abeltzaintza, eta abar erre eta kiskaltzen, joan den udako agorteagatik gure inguruko belaiei gertatu bezalaxe. Bitartean, udazkenak euria ekarriko digu zerutik beheiti; halere, bertze idortea luze heldu da eta luze joaki da.

«Halere, bertze idortea luze heldu da eta luze joaki da»

## Ezpala

Aitor AROTZENA

## Baztandik Jolibutera

Baztan filma estreinatu dute Donostiako Zinemaldian. Alex de la Iglesia Zugarramurdin ibiliko da astetotan grabatzen. Urdazubiko lezea ere film baten eszenaleku izan da berriki. Bere garaian, Orson Welles-en *Campanadas a medianoche*, Luis Mariano protagonista zuen *El Cantor de Mexico*, *La fuga de Segovia* edo *Vacas* filmeen irudiak ere gurean hartu ziren. Artistak!

## Nabarmentzekoak



Antonio ALUSTIZA  
Aresoko artzaina

Hirugarren urtez segidan Nazioarteko Artzain Zakur lehiaketa irabazi du *Ttikirekin*. Heldu den urtean 10 urte eginen ditu *Ttikik* eta «jubilazioa hartzeko eskubidea» duela esan du artzainak.



Angel Maria VILLAR  
EFFko presidentea

Espainiako Futbol Federazioko presidentea eskualdean barna ibili zen irailaren 21ean. Lesakako eta Doneztebeko futbol-zelaiak ikusi eta taldeetako ordezkarietara bildu zen.



Teodora MITXELENA  
Iruritako abeltzaina

Piriniar arrazako behi-azienda lehiaketaren barnean, Baztango xexeneko eta urruxa onenaren sariak eskuratu zituen Xorneakoak. 8-18 hilabeteko uruxetan ere lehen saria lortu zuen.

Atzera begira → 1998.09.10 / TTIPI-TTAPA 237. zbk



## Josetxo Oronoz, Arkupeak elkarteko diruzainari omenaldia

Duela hamar urte, urriaren 10ean omenaldia egin zioten Iruritan Josetxo Oronoz, Arkupeak elkarteko diruzainari eta herriko delegatuari. «Nik ahal dudana egiten dut eta ez dut uste omenaldia egiteko merezimendua badutenik», aipatu zigun Oronozek, nahiz eta bere kideek bertzela uste zuten. Ameriketara ibili ondotik, Elbeteko Zapatillera del Baztan lantegian aritu zen Oronoz lanean, fabrika itxi zuten arte. 1989an hasi zen Arkupeak elkartean, «ikusten nuen Felipe [Ganboa] hor ibiltzen zela karrakilan, bere maingurekin, eta orduan hasi nintzen laguntzen». Beraz, 13 urtez elkartean egindako lana eskertu zioten.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA  
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena Erredaktore burua Gurutze Pikabea Publizitatea Usosa Vicente, Amaia Odriozola Berriemaileak Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerediain, Martin Bertiz, Nerea Tellebea, Martin Larralde, Juan Mari Barriola.

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortziritetako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

### 2012ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	.....38€	Europa	.....56€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	.....32€
Ipar Euskal Herria	.....56€	Amerika eta Australia	.....124€	Leitza	.....16€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria



## Kolaborazioak

### Trenbidetik ere ezin lasai ibili

Mikel RODRIGUEZ

**B**erako San Estebanak. Arratsa ederki pasatu ondotik, eguna argituta lau gazte oinez trenbide zaharretik abiatu dira Lesaka aldera, erretiradana. Hara non halako batean, auto gorri bat pasatzen den kuadrilaren erditik, eta haien parean gelditu, biga dea moztuz. Bi morrosko gazte ateratzen dira, autoaren kolore bereko uniformeak jantzita, gorputza Otsan-goko pinuak baino tenteago paratuta biek, umore iluneko aurpegiarekin. Bertze lau gazteak, mozkor xamar egonagatik ere, ohartu dira beraiengatik gelditu direla. Hor hasten da zirkua. Identifikatzeko. Lau gazteek zer bada, horretarako arrazoirik ez baitago, goizez trenbidetik ibiltzea debekatu ez badute behintzat.

Poliziak eurenera, identifikatzeko eta punto. Gazteek diote mozkortuta autoa hartuz gero gelditu egiten dituztela, baina etxera oinez bueltatuz gero baita ere, beraz, ea diferentzia non dagoen. Harroputz lehian poliziei irabaztea, ordea, ezinezko misioa da. Buelta ematerik ez duen argudioa botatzen diete poliziek gazteei, edozein demokrata 'knockout' utziko lukeena: 300 euroko multa paratu diezaieketela «por-

«Ebro hegoaldetik etorri ziren berdezko sinpatiko horiekin nahikoa ez, eta orain Iruñea aldetik edo beheitigotik etorri diren erdalduneeen *Porque sí*-ak agoantatu behar»

que sí». «Porque sí», bai, Beratik Lesakara trenbidetik oinez joatea debekatzen duen legerik ez baita sortu oraindik, nahiz eta mozkorra joan. Bukatu da hamar minutuko eztabaidea. Karnetak hartu dituzte poliziek, zer nolako lau espezimen arriskutsu gelditu dituzten konprobatu dute zentralitarekin edo auskalo norekin, eta etorritako bidetik joan dira. Horrelako zenbat pasadizo gure eskualdean? Soberan. Arantzako azken inauterietakoa, adibidez, aurpegia tapatuta zeramaten bi foralek auto bat gelditu zutenean, bertan zihoazen sheriff-a, mexikanoa, pailazoa eta orain ez naiz oroitzen zer gehiago identifikatzeko eta katxeatzeko. «Control de seguridad ciudadana», omen. Arantzako sarreran! Denok baitakigu Bortzirietako herri horretan Medellinako kartela, Napoliko mafia eta Los Angelesko bandak elkartzen direla. Ebro hegoaldetik etorri ziren berdezko sinpatiko horiekin nahikoa ez, eta orain Iruñea aldetik edo beheitigotik etorri diren erdalduneeen «porque sí»-ak eta «control de seguridad ciudadana» agoantatu behar. Eta zer egin? Hitza erabiltzeak ez baitu balio, haiena gehiago baita, eta horrek konbentzitzen ez bagaitu porra eta komisaria pisuzko argumentuak dira. Kexarik badugu epaile bategana jo dezakegula? Bai noski, Realari Japon Sevillak arbitratzea bezala. Ez zaio inori mundua deskubritu hemen goitiko lerroetan, baina ez dago gaizki tarteka oroitaraztea kanpotik etorrita nortzuk trabatu nahi duten gure eskualdeko bizikidetzak.

### Astopitokeriak, betikoak, garai berriak

Joseba URROTZ

**Z**eri buruz egin txanda hontako sermoia? Aurreko alean hiru lagunek, Iritzia atalean agertuko ideietan aurkitu dut inspirazioa, baime-nik eskatu gabe (barka nazazue) gaiak hartu eta nahasiko ditut: Alardea, astopitoak eta garai berriak.

Ainarak zioen bezala, dena aldatzen da, gizakia aldatzen ari da, lehen ulertzen ez ziren gauzak gaur ulertzen dira, lehen egiten ziren gauza aunitz, gaur egin ez dira egiten, eta abar. Gizakiak munduari buruz duen ikuspegia aldatzen ari da, lehen bakoitzaren hurbileko taldea defendatzen zen, gaur egun mundu guztiarentzat eskatzen ditugu eskubideak. Alegia, uste dut poliki-poliki gizakia hobetzen ari dela, bere zalaparta eta sufrimendu guztien gainetik.

Jexuxek zioen bezala, garai berria dator, eta nire ustez garai berri bakoitzak ulermena eta ikuspegia zabaltzea eskatzen du, kontrakoa, berriz, astopito izatea da, atzera egitea. Korok aipatu bezala astopito mota pranko dabilta oraindik, baina lasai, hori ulergarria da, gauzak ez dira gabatik goizera aldatzen.

Zer da Alardea? Hondarribiko alardearen web orrian ikusi dudanez, hitz horren erranahi bat militarra da, armak erakutsi eta prestatzeko ekintza. Baina «arrandia» edo «erakutsi nahia» ere erran nahi du, eta niri Irun eta Hondarribiko alardeetan gertatzen dena astopitokeria erakustaldia iruditzen zait. Soldadu edo gudari izan beharra ez da gauza ona, berdin emakumea ala gizasemea.

Argi dago gizakiaren garapenean hainbat gauza desagertzen direla eta bertze berriak sortu, eta desagertze hortan ikusten ditut nik hainbat ohitura ero, zezenketak bezalakoak, eta sufrimendua sortzen duten hainbat gauza, armak eta gudak errate baterako. Alegia, gizakiaren eboluzioan sufrimenduak desagertzera joko du edo bertze ez dugu luze iraunen. Ikusi bertzerik ez dago ETak ere borroka armatua baztertu duela, bakea da etorkizuna.

Hortaz, ez dut uste Alardeetan emakumeek parte hartzea konponbidea denik, liskarrak eta sufrimendua sortzen duten ejerzito eta armak desagertzea, eta haien goralpena egiten duten tradizioak galtzea baizik.

«Ez dut uste Alardeetan emakumeek parte hartzea konponbidea denik, liskarrak eta sufrimendua sortzen duten ejerzito eta armak desagertzea eta haien goraipamena egiten duten tradizioak galtzea baizik»

## Irakurleak mintzo

## Anormalizazioa

Jon ABRIL  
(Berako alkateordea)

TTIPI-TTAPAKo edizio digitalean ([www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)) Lesakako futbol zelai berrituaren inaugurazioa biltzen duen albistea ikusi dut. Berriak ez du harrizkeko gauza handirik. Argazkiak, ordea, bai, eta aunitz. Beti Gazteko, Lesakako Udaleko, Nafarroako eta Espainiako Futbol Federazioko ordezkariak eta herriko apaiza ageri dira argazkian. Eta bi gauzak eman didate atentzioa (eta mina!): Argazkiko denak gizonak dira. «Normala!» erranen du bakarren batek. Normala, futbola gizonen kontua delako. Normala, udal agintari gehienak gizonak direlako. Normala, apaizak ere gizonak direlako. Emakume eta gizonen arteko aukera berdintasunari ez diote batere mesederik egiten horrelako argazkiek. Eta errua ez da argazkilaria, berak errealitate horri argazkia bertzerik ez baitio egin. Tamalez, hori da egunero gure gizartean,

oraindik, errotuegia dagoen argazkia. Edonola ere, hausnartu behar dugu. Horrelako argazki batek tokia izan behar du komunikabide batean? Eta hau guztia lau emakumek tratatu txarrerengatik Lesakako udalerrian salaketa paratu duten hilabete berean. Eta harritu egiten gara, oraindik.

Eta bertzetik, zergatik bedekatu behar du XXI. mendean apaiz batek instalazio publiko bat? Bistan da aunitzek, oraindik, ez dutela ulertu gizarte hau anitza dela. Kristauak, musulmanak, ateoak, ebangelistak... eta seguru bertze erlijio batzuetako emakume eta gizonak bizi gara gure herrietan, Bortzirietan. Zergatik bakarrik eliza katolikoko ordezkaria? Gehien goa delako? Historikoa delako?

Udal ordezkariok badugu ardura, sozietate laiko bat eraikitzen hasiteko, eta emakumeei dagokien tokia eskaintzeko. Har dezagun ardura denok. Hitzetatik ekintzetara pasatzeko garaia da. Anormalizazioarekin bukatzeko garaia.



## Bota bertsoa

Iker GOROSTERRAZU (Ituren) • Doinua: Gregario edo laguntzaile naiz

## Dinbi-danba, ehiztarien txanda

Aspalditikan dagon ohitura askorentzako demanda arbasoentzat bizirauteko beharrezkoa izan da baina gaur egun bertzelakoa da eskopetan eztanda goiz-goizetik parranda gauerarte dinbi-danba usoak ezin egon geldirik ta basurdeak etzanda udazkenean iristen baita beti ehiztarien txanda.

Animaliei tiroak bota zakurrak harrapatzeko badaezpada arma eduki beti kartuxoez lepo lagunartean solas ta solas otordu onak tarteko egun osoa konpleto bizio honen menpeko nahiz eta aunitz izan gai honen inguruan errateko ehiztari batek azal dezake dena nik baino hobeto!

## Barcinak armak maite ditu

Xanti BEGIRISTAIN  
MADOTZ (Iruñea)

Irudiek ez dute engaitzatzen. Gaur, irailaren 26an, beste leku askotan bezalaxe, Iruñean ere agindua eman diete polizia foralei kalera atera eta manifestazioak puskatzeko; horren ardura duna Nafarroako Gobernuburu den Yolanda Barcina andrea da. Dagoneko, behin baino gehiagotan erakutsi du bere arma zaletasuna. Hitzeko argudioak bukatzen zaizkionean, orduan du gustuko bere

menpekoak diren foruzainak erabili eta jendea jotzea.

Iruñean, irudiak ikusi ditugu, manifestazioko jendea modu txukun eta egokian zihoanean, Saratsate pasealeku aldeariristen ari zirenean, hor agertu dira foru poliziak probokatzer eta tiroak botatzera, pertsona heldu, zahar, emakume, haur, eta abarren artean; kamerek harrapatu dituzte. Gero Barcina andreak eta bere laguntzaileek esanen dute, beti bezalaxe, ohiko pertsona bortitz eta bazter-nahasleak izan direla istiluak eta gatazkak hasi dituztenak, baina begiak eta belarriak dituzten

personak (gehien-gehienak) gero eta gutxiago engainatu ahal dituzte.

Barcina andreak gero eta arrazoi-ingar gutxiago dauka eta horrexegatik erabiltzen du gero eta gehiago indarkeriaren arrazoia. Badaki denbora bukatzen ari zaiola eta hauexek dira ematen saiatzen ari den azken ostikadak. Yolanda Barcina super andrea, egunen batean ere eroriko da bere botere guztiarekin, munduan bere aurrean makina bat harroputz eta agintzaile erori den bezala.

Barcina, indarkeria gutxiago, gizarte lan gehiago eta apaltasun handiago!!!

inprenta lanak egiten ditugu  
Ideiatik hasi eta etxean izan arte

ttipi-ttapa

948 63 54 58  
info@ttipi.net

1.000 pp + 92€

1.000 pp + 148€

1.000 pp + 88€

1.000 pp + 107€

**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net

Posta: Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA

Tel.: 948 63 54 58 Faxa: 948 63 54 57



**Prentsatik bildutakoak**



«Euskarak babestu egin du mitologia. Amalur eta Mari dira pertsonaia nagusiak, eta bi planotan ageri dira. Europan berezia da oraindik horrela izatea. Greziarren eta erromatarren mitoak maskulinoak ziren, eta Europa iparraldeko herrietakoak ere bai (...) Jendeak ez daki mitologiak. Ideia sakabanatuak ditu. Ez du ideia orokorrik».

**Isabel MILLET**  
Ipuin kontalaria eta idazlea  
BERRIA, 2012.09.04



«'Tiki' bikain moldatu da txapelketan [Nazioarteko Artzain Zakur Txapelketan]. 9 urte ditu eta nabari zaio. Entzumena galdu du baina bere lana oso ondo egiten badaki. Oso txintxo da, eta txapeldun handia, beretaz oso harro nago. Ongi merezia du jubilazioa. Nazioarteko hiru txapela irabazi ditu Oñatin, Nafarroako zazpi txapel eta Euskal Herriko bat».

**Antonio ALUSTIZA**  
Aresoko artzaina  
D. VASCO, 2012.09.12

**11 galdera labur**

**Nola aurkeztuko zeniguke nor den Iratxe Gamio?**

Anizen bizi den neska gazte bat.  
**Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?**

Kirola egitea, musika aditzea, lagunekin egotea, liburuak leitzea...

**Aniz, Baztango herririk ttikiena...**  
Eta aski gustura egoten eta bizitzen dena.

**Baztandarra ala aniztarra. Zer sentitzen zara lehenago?**

Lehenik aniztarra eta bere herriaz harro dagoena, eta gero baztandarra.

**Anizko tokirik gustukoena?**

Toki guztiak gustatzen zaizkit, baina bat aukeratzekotan, frontoia eta bazter hori... Han pasatzen ditudalako ordurik gehienak...

**Zer dute Anizko bestek bertze herrietako bestek ez dutena?**

Nire herriko bestak direla.

**Hau irakurriko dutenak nola gonbidatuko zenituzke Anizko bestetara?**

Nahiz eta Baztango herri ttikiena izan, arront ongi pasatzen dela eta denak gonbidatuak zaudetela.

**Zer moduz ikasketak?**

Orain artio ongi, baina aurten gauza aldatzen da, ikusiko da, kurtsoa

hasi bertzerik ez baita egin.

**Zer izan nahi duzu gerora?**

Dudatan nabil: administrarritza ikasi, geografia, kazetaritza...

**Larunbaterako planik ederrena zein da zuretzat?**

Goizean mantso artio lo egin, frontenisean aritu, lagunekin afaldu eta besta egin.

**Amets bat?**

Estatu Batuetarat joatea, Real Championsean berriz ikustea... Bakarren bat agudo betetzea gustatuko litzaidake.



**Iratxe GAMIO → Anizko gaztea**

**ANTZUZELAK**  
ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK  
Tf: 948 631 317 • Fax: 948 631 567  
Iranga erria - BERA  
www.antzuzelak.com  
info@antzuzelak.com

Antzuzelak, angeluak, ome antzuzelak, lehoak, atsek, arzuak, pizarak, biminak, edazkak, mozturak, zokaloak, hlanak, marrazkia

**Javier Manterola**  
Taldeko antzuzelak  
Iurgintza • gusa  
kalafaktzio  
Tf: 948 631 567 • BERA

**XITZELI**  
ANTZUZELAK  
Tf: 948 631 567

*Bego ileapaindegia*  
**Irekiera: urriak 1**  
*Mila esker!*  
Sara, 11 (Agerra auzoa) • BERA | 948 631 055

## GIZARTEA

HONDAKINEN TRATAMENDUA → BAZTAN, BERTIZARANA, BORTZIRIAK ETA MALERREKA

# Eskualdeko sei herritan atez ate bilduko dira zabor organikoa eta errefusa

Bertze herrietan konposta eginen da

## TTIPI-TTAPA

Legediaren arabera, hiri hondakinak %10 murriztu behar dira eta 2011n sortu zen materia organikoaren erdia bildu beharko da 2020-rako. Eta zabor organikoa murrizteko helburuarekin eskualdeko udalek neurri berriak hartu behar izan dituzte, ez birziklatzea birziklatzea baino garestiagoa izanen baita.

Eztabaida eta prozesu luze baten ondotik, udal eta mankomunitateek erabaki dute araudiak eskatutako helburuak nola bideratuko dituzten. Konposta izan da urte hauetan Baztango Udalak, Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitateak eta Bortzirietako Hiri Hondakin Mankomunitateak martxan paratutako ekimenetako bat. Oraingoz 624 konpostontzi banatu dituzte do-



ARGAZKIA: IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA

Irudian ageri dena auzoko konpostaren eredua da, Iruñerriko Mankomunitateak Subizan egindako esperientziaren adibidez.

hainik. Gehiago eskatze-ko aukera ere eman dute, irailaren 30era arte apuntatzeko epea zabalduz.

## SEI HERRITAN ORGANIKOA ETA ERREFUSA ATEZ ATE

Herri haundienetan edo errepidetik hurbil daudenetan, hau da, Bera, Lesaka, Sunbilla, Doneztebe, Irurita eta Elizondon, lau aukera paratu ziren mahai gainean: batetik, hondakin

## DATUA

# 6

HERRITAN ATEZ ATE bilduko dira hondakin organikoak eta errefusa: Bera, Lesaka, Sunbilla, Doneztebe, Irurita eta Elizondon, hain zuzen.

organikoak biltzeko bosgarren edukiontzi

marroia paratzea; bigarrenik, atez ate errefusa bakarrik biltzea; hirugarrenik, atez ate errefusa eta hondakin organikoak biltzea eta azkenik, hondakin organikoak, errefusa, papera eta enbaseak atez ate biltzea.

Proposamen horien artean, errefusa eta hondakin organikoak atez ate biltzearen aldeko apustua egin dute. Beraz, Bera, Lesaka, Sunbilla, Doneztebe, Irurita

eta Elizondon zabor organikoak (sukaldatu nahiz sukaldatu gabeko janari soberakinak) eta errefusa (birziklagarriak ez diren hondakinak: hautsa, hautsitako platerak eta edalontziak, pixoihalak...) atez ate bilduko dituzte. Kanpoan postea paratuko dituzte eta etxe bakoitzean behar den kaxa edukiko dute, batetik errefusa, eta bertetik hondakin organikoa biltzeko. Hortaz aparte, enbasea, papera eta beiraren edukiontziak mantenduko dira.

## HERRI TTIKIETAN KONPOSTA

Baztango gainerako hamahiru herrietan, Bertizarana-Malerrekako bertze hamahiru herrietan eta Bortzirietako hiru herrietan, berriz, etxe-ko konposta edo auzoko konposta eginen da, egunero sortzen den zabor gehiena organikoa baita, %40 inguru. Gainerako hondakinak birziklatzeko orain dauden edukiontziak mantenduko dira.

**HERMANO TELLETXEA**  
**HC**  
**ERAKUNTZA LANAK OROKORREAN**  
 Zainberritzeak, sukalkiak, kominak...  
 Alkatzeak, terrazak, garapenak...  
**HC** BERA (Naharroa)  
 670 064 744  
 948 630 554  
 alberteloboa@gmail.com

**F. LANCHAS**  
 Akudialorea eta berriztatzailea  
 Parkes eta parket fuztatzailea  
 Jartzeak  
 Mota guztietako solak  
 Tel: 948 630 755 - M: 607 406 781

**Alberto RETEGI**  
 abokatuak  
 abokatuak  
 © 948 630 763 - Albazade, 17 - BERA

**TELLETXEA**  
 Lorazaintza  
 - Lorategiak diseinatzea eta sortzea -  
 - Mantentze lanak -  
 - Ureztatze sistema automatikoak -  
 - Kimaketak -  
**John Telletxea** Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa  
**LESACA** • T: 619 418 683  
 john.telletxea@hotmail.com  
 www.telletxealorazaintza.com



andrea


# moda

umea

gizona

  
**moda 2012**  
**neguko**  
**udazken**

  
**UMEA**  
**GIZONA**  
**ANDREA**







## HAURREN MODA

# Helduen modan inspiratua



Beroki, galtza, soineko eta bota motzetan, batez ere

Generalean, helduen modarekin lotu ohi dira inspirazio militar eta informaleko arropak, eta estilo horiek berberak ikusiko ditugu haurrek jantziko dituzten sakel ugarriko berokietan, txinoantzeko galtza berdexketan edota bota motzetan.

Pixka bat serioagoa da soinekotan eta oihalezko blazer estiloko txaketa eta berokietan ikusiko dugun estilo urbano eta dotorea. Patroi ausartekin eginak, kapatan eta evasé estilora ebakiak, 60. hamarkadan ikusten zen moda eka-rriko digute gogora. Hala ere, gona gehienak parpaila edo bolanteekin eginak ikusiko dira.

### DENIM EDO BAKERO OIHALA

Klasiko bihurtu da honez gero. Galtzetan ez ezik, gona, short, soineko eta txaketetan, batez ere txamarra tipokoetan ikusiko dugu. Egunerokoan ibiltzeko soluzio egokia da. Bakero oihalak bere alde du bertze edozein estiloko arrokekin jantzen ahal dela, izan aurtengoa edo bertze urteetakoa. Mutikoetan, nesketan baino gehiago, mauka luzeko atorra baten gainetik bertze bat mauka motzekoa eta lepoduna jantzita, eta gaineko alkandora bat aipatutakoen gainetik, look interesgarria lortzen da.

### KOLOREAK: URDINAK ETA NEUTROAK

Neska zein mutikoentzat, urdina izanen da udazken-negu honetako kolorea. Izan bakero oihaletan edo bertze gisakoetan, tonu neutroekin kontrastatua ikusiko dugu, marroi, gris edo beltzekin.





### ESTANPATUAK

Neskatoen jantzietan batez ere, erraza izanen da estanpatuak ikustea. Nonahi ikusiko ditugu: kamiseta, gona, soineko, galtza eta berokie-tan. Erabiliko diren irudi edo motiboak ere ugarriak izanen dira: lore tikiak, tantoak, animali basatien larruen itxura hartzen dutenak... Irudi geometriko eta koloretsuak ere presentzia handia hartuko dute orohar.



Mutikoen kasuan, estanpatuak ez dira hain deigarriak izanen baina ez pentsa horregatik nonahi ikusiko ez direnik. Kamisetak, lepodun edo gabeak, marra fin edo lodiagoekin, lauki eskoziarrak edo sinpleagoak atorretan edo gaineko alkandoretan... Inolako

zalantzarik gabe, estanpatuak boladan daude udazken-ne-gu honetan neska-mutikoen arropetan.



# Mirentxu

Sempere Muga, 15 • 48100  
940 818 000

Ordeza, 6 • OREIZTA  
943 587 370

**KAMISETAK**  
5,95€

**BEROKIAK**  
29,95€

**BAKEROAK**  
14,95€

**OINETAKOAK**  
19,95€

**0-16** neurriko umeen arropak

**8-16** urteko neska mutikoetan berezituak

**Bertan eskuz** egindako soinekoak

Bodyak, buruak, erropak, botaridoak, gultzerdik, sarpak, oinetsikoak

Harta & Marketing  
900  
Hala  
30  
Piramide  
Lanari  
2012

**DESIGUAL**  
MARKAREN  
ESKLUSIBA





## EMAKUMEZKOEN MODA

# lazko joera batzuk berrikuntzekin apainduak

Eguneratua egoteko, hona hemen udazken-negu honetan kontuan hartu beharrekoak:



### Itxura militarreko txaketak

Urre koloreko botoiak dituzten parka eta txaketak eta berde kolorea barra-barra. Hauxe da udazken hasieratik indartsu sartu den joera nagusietako bat: oihal berdeko txaketa, goitik behera bi botoi-lerro dituen.

### Estanpatuak

Printak ere nonahi ikusiko ditugu. Loretxoen irudiekin, irudi geometrikoekin... ematen du diseinatzaileak gogoarekin hartu dutela. Eta klasikoaren artean *British* estanpatuak daude, nahi bada *dandy* zapelekin eta puntuzko jertse lodiekin konbinatuak. Nabari da joku olinpikoak Londonen izan berri direla.

### Beroki extra-handiak

Negu honetako berokiak *oversize* edo extra-handiak izanen dira. Hori edo deus ez.

### Denim edo bakeroak

Modaren izaera ziklikoa da eta, hartara, bertze denboraldietako jantziak birziklatu ditzakegu urte batzuk beranduago. Adibidez, estilo militarra galtza bakeroekin hobetzea, zer iruditzen zaizu?

### Klein urdina eta burdeos

Arropetan edo osagarrietan (poltsak...), bi kolore hauek nazioarteko ia desfile guztietan nabarmen nagusitu dira. Konbinatzeko errazak, egokiak dira gauerako zein egunez ibiltzeko.

### Gizonen modura bestituak

Joera ugarien artean bada bat dezente ikusiko dena; emakumea gizonen modura jantzia eta *slipper*-ak oinetan. Estilo gotikoa ere presente egonen da, larru beltzeko elementuekin eta parpaila edo enkajeeekin.







# DUZU ZURE MODA GUNEa!!!

MANGO

Levi's

LACOSTE

Deegual

Papa Jeans  
LONDON

ONLY

ESPRIT

CONVERSE

IKKS

JACK & JONES

DOCKERS

G-STAR RAW

VERO MODA

amerilolimon

Bench

Le jeans des  
Paris

TOMMY HILFINGER

RIP CURL

ORCHESTRA

lotto

oxbow

LOLLIPOPS

Little Marcel

3pommes

Gizonezkoak / Emakumezkoak / Haurrak 0-14  
Udazken-neguko arropa kolekzio berria

**PEIO**  
*mode*

BAIETZ GUSTUKO IZANI!





**TABERNA ZAHARRA**

UDAZKEN-NEGUKO MODA  
Gizon eta emakumeentzako arropa-denda

Gortinak eta etxerako arropak

Merkatariaren karrutik, 11  
DUNEZTEBE  
Tel. 948 410 007

**IPINGI**

Santiago III  
ELIZONDO  
T. 948 580 1434  
ipingui.es  
www.ipingui.es

ARROPA eta OSAGARRIAK

UDAZKEN NEGUKO MODA

EMAKUMEZKOEN MODA

Koloreak eta diseinuak

Nabarmenkeria eta fintasunaren arteko oreka lortzen saiatzen dira diseinatzaileak



Sorbalda altuak markatuko dituzte eta lepokoak ere igoko dira orohar. Soineko batzuek, adibidez, lepoko karratua izanen dute. Gorputza estutzen ez duten jantziak ikusiko dira, askatasun gehiago emanez gorputzari. Hala, mozketek arropari estilo formalagoa emanen diote eta koloreek ga-

rrantzia hartuko dute. Laranja koloreko soineko estu eta motzak ere eramanen dira, hankaluzerak erakutsi ahalizateko.

**KOLOREAK**

Nabarmenezkoen artean *Camel*, *nude*, urdina, berdea, laranja, morea, grisa eta beltza.

**BL**

BEOLA ETXEA • Ibardingo galna, 30 • BERA T. 948 630 709

**arropa-denda**

**DENBORALDI BERRIA!**  
gizon eta emakumearentzako arropa

**PRONTOMODA ARROPA,  
OSAGARRIAK, BITXIAK,  
BOLTSOAK ETA  
OINETAKOETAN AUKERA ZABALA**

Bench. smash! amarillalimon

UDAZKEN-NEGUKO MODA BERRIA DAGOENeko ZURE ESKURA!!!



GIZONEZKOEN MODA

# Adin, bizi estilo eta hobbyen arabera

Aisialdi momentuetan, laneko arropa alde batera utzi eta hobereba bakeroak janztea da. Hori argi dago. Hala ere, jarraibide ttiki batzuekin, *cool* eta informalagoa den itxura lor daiteke

**GALTZA BAKEROAK**

Casual modan faltarik gabe ikusiko ditugun jantzien artean daude bakeroak. Beharbada, betiko galtza zuzenak ez dira hainbertze ikusiko. Haien ordez, *pitilloak* eta bonbatxoak eramanen dira.

**PRINT KAMISETAK**

Irudi eta mezu dibertigarriekin, itxura informala lortzeko ezinbestekoak.

**FOULARRAK**

Ukitu berezia ematen dute eta edozein estiloko jantziekin ongi ematen dute.

**LARRUZKO BEROKIAK ETA BOTA MOTZAK**

Emakumezko kasuan bezala, gizonezkoek ere larruzko beroki eta txalekoak eramanen dituzte. Erabilgarriak dira eta egoera guztietarako egokiak. Oinetan militar estiloko bota-motzak, sokekin lotzen direnak.



**JUAN J. PIKABEA**  
SENARGAIENTZAKO TRAJEA  
**ZURE NEURRIRA**  
15 egunez

Neurtri haundiak  
Galtzak eta bakeroak 70 arte  
Atorrak 56 arte  
Jertseak  
NEURRIRA EGINDAKO GALTZAK

Amertia s/g - DONEZTERE - 948 451 670

www.kattagorria.com

**kattagorria**  
KOLEKZIO BERRIA

Gerretan eta pilaren  
**KOLEKZIO BERRIA**

BEZ-aren igoera ez duzu sumatuko

Behoko plaza, 10 • LESAKA • 948 627 614

**MERCHE**  
MODA HOMBRE

Giovani Valdi • Sandro Sellini • Caramelo gala  
Serapio Mugika, 11 • 20302 IRUN • 943 612 626  
www.capelettimercheirun.com

BISITA TXARTELAK 2011/2012  
**500** **95€** EGIITEGIAK  
 1000.115- 250.00- 100.75-  
 Keskuntako bidaiak, 7 LESMA.  
 948 035 450 kutubakar@ttipi.net

UDAZKEN-NEGUKO KOLEKZIO BERRIA  
**VIRGILIO**  
 FAMILIA UGARIENDAKO %10 deskontua  
 ELIZONDO HERRI ERDI-ERDIAN  
 948 588 209 Larunbat arratsaldeetan irekia

CASA **OSTIZ**  
 Parroquia 17 | DONEZTEBE  
 Tel-Faxo: 948 450 289  
 costiz@telefonica.net  
 ZAPATAOENDA | LIBURUNDENDA  
 PAPERTEGIA  
 yelos PITILLOS Fluchos

EMAKUMEZKOEN MODA

## Neguko oinetakoak

Bota altuak eta originalak boladan daude aurten ere

Udazken-negu honetan izanen dugu non aukeratu. Oinetako klasikoek sendo eutsiko diote, klasikoak ez ezik basikoak ere badirelako etxeko armaruan. Modelo berriagoen artean, tatzetadunak estilo guztietan ikusiko dira: bota altuak, bota motzak, mokasinak, *ballerinak*...

**KOLOREAK**

Beltzak, urre kolorekoak, beixak... osagarriekin konbinatzeko espezialak.



GIZON ETA GAZTETXOEN MODA

## Lokarridun oinetakoak

Osorik kolore batean edo bizpahiru tonu konbinatuz

Lokarridun zapatak eta botak gailenduko dira negu partean, bai tonalitate bakarrean edo bizpahiru tonu konbinatuz. Negu ilunari alaitasun ukitua emanen diote, kolore, material eta detailtxoak konbinatuz.

**HELDUEN ANTZEKOAK GAZTETXOENTZAT ERE**

Mosketeroen antzeko bota altuak boladan egonen dira neguko egun hotzetan goxo-goxo ibiltzeko. Kolorei dagokionez, kolore beroak nabarmendu behar dira: marroi tonuak, oxidoak, txokolatea, kafea... 80. hamarkadako antza ere nabarrituko dugu: errematxeak dituztenak, zapata belarridunak...







OSAGARRIAK

## Neurri handikoak

Metala nabarmenduko da, zilarra eta urrea elkarrekin konbinatuz

Udazken-negu honetan lepoko, pultsera, brazalet eta gainerako osagarriek gauza batean elkar hartuko dute: izanen duten neurri handian. Deigarriak izanen dira, pieza bakar batean mini-osagarri ugari eta material desberdinak nahasiz. Adibidez, zilarra eta urrea elkarrekin ikusiko dira. Eta hauek, aldi berean, perla, harri eta horrelako gauzekin nahasiko dira. Elementu 'zarpailenek' ere bere tokia izanen dute: egurra, larrua, lumak, hariak...

## Udazkeneko looka

Makillaje joerak eta osagarriak

**Ezpain gorritzak:** laz ere ikusi ziren eta udazken honetan bolada batean egonen dira ardo koloreko ezpainak.

**Ilekorda edo trentzak:** ilekorda-diademaren joerak segitzen du udazken honetan ere.

**Begi esmeraldak:** eguraldi txarra kolorearekin animatzeko.

**Kopeta-ile zuzena:** 70. hamarkadan hainbertze ikusi zena itzuli da berriz ere: *fleki-illo* zuzena begietaraino.

**Begi marra finak:** Gero eta sofistikatuagoak, prezisio lan bihurtu dira.



**Fantasiuzko betileak:** azken-azkenekoa, ordezeko betileak paper trokelatuan eginak.

**Urre kolorea:** indartsu itzuli da joera hau, betazal eta ezpainetan.

**Morea:** Udazkenean, itzal-tonu batekin nahikoa da. Betazal osoan emana.

**'Glitter' ezpainak:** Purpurinazko ezpainak. Lehenik ezpainetakoa eman eta ondotik purpurina pintzel batekin.

**Sixties:** 60. hamarkadako begi-handi markatuak ikusiko dira berriz, *mad men looka*.



**URREGINE**  
Emili Hernaiz

JANTZI  
NEGUKO BILDUMA  
BERRIA ETA  
KOLORETSUA

948 580 636  
Aurpegi Urutia, 28  
ELIZONDO

ARRATE E/TETIKAK ZENTROK

LASERRA GRAINDIK MERKEAGO!!!  
DENA GOTTI EZTA POSIBLE!!!

- Hanka osoak • Ingie sakonak
- zona perianala 185€ (\* 4 sesio ordaintzat)
- Hanka erdiak 125€
- Hanka erdiak eta iterrondo edo besoak 150€
- Hanka erdiak, iterrondo eta besoak 175€
- Bigotis 30€ • Bigotis eta kokotsa 55€

Zurraren aurkakoa 60€/sesio  
Zelulitisaren aurkakoa 35€/sesio  
Argitzeko tratamendua 30€/sesio

**ESKATU PREZIOEN ZERRENDA**

Itzazkarri, 7 | DONEZTEBE (Nafarroa) | 948 456 296

**Estibaliz**

ELIZONDO | 948 581 360 | 606 738 466

AURPEGIRAKO RADIOFREKUENTZIA

HASERAKO ESKAINTZA:  
4+1 bonoa! atxekitu ateratze bakoitzeko 60€

**199€**

ZELULITISAREN KONTRAKO PACK-A  
GRASA LOCALIZATUA  
Kabiazioa + Radiofrequentzia +  
Presoterapia + Piatafoma bitartekoa

10 sesio  
**400€**

• 10.000 desodorantzu erakura ordaintzatuta  
• 10.000 puztatze ordaintzuta dabilena

PRESOTERAPIA 10 sesio **110€**  
Ultradisrreemertitzaioa eta zirkulazioerako  
Opari, 10 sesio piazafoma bitartekoa

**1.GO KONTSULTA DOAN**  
Eskaintza baldagarriak urriak 31 arte

## GIZARTEA

INDUSTRIA → BIDASOALDEKO INDUSTRIA BATZORDEAREN ESKAERA

# Legasako industrialdea suspertzeko eskatu diote Nafarroako Gobernuari

200.000 metro koadrotik 35.000 erabiltzen ditu gaur egun Arcelor Mittalek

## TTIPI-TTAPA

Baztan-Bertizarana-Bortzirak-Malerrekako Industria Batzordeak eta Cederna Garalur Elkar-teak Nafarroako Gobernuarekin garatutako ekintzak aurkeztu zituzten irailaren 19an. Aipatu ekintzak gaur egun guttiegi erabiliak diren industria-eremuak erabiler publikoko industrialurzor gisa berreskuratzeko izan dira. Alde horretatik, aipamen berezia izan du Legasako industrialdeak. 200.000 metro koadroko eremutik 35.000 bertzerik ez baititu erabiltzen Arcelor Mittal enpresak eta eskualdeko industrialdea izateko baldintza guztiak betetzen dituela uste dute alkateek. Alkaiagan egindako agerraldian, Peio Etxabide Lesakako alkatea, Antonio Erregerena Bertizaranako alkatea eta Garbiñe Elizegi Baztango alkatearekin batera, Jose Mari Aierdi Cederna-Garalurelkarteko presidentea izan zien.

Azaldu zuten, Bertizarana, Baztan, Bera eta Lesakako udalek osatzen duten Industria Batzordeak eta Cederna Garalur elkarteko ordezkariak bilera egin zuten abuztuaren 3an Lourdes Goikoetxea Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Ezkerretik hasita, Jose Mari Aierdi Cederna-Garalur elkarteko presidentea, Peio Etxabide Lesakako alkatea, Antonio Erregerena Bertizaranako alkatea eta Garbiñe Elizegi Baztango alkatea.

Enplegu kontseilariarekin eta Jorge San Miguel zuzendari nagusiarekin, eskualdearen egoeraren berri emateko. Bilera horretan, Gobernuari oroitarazi zitzaion 1972an Gobernuak bultzatu zuela Legasako industrialdea eta parte aktiboa izan zela eskualdearen garapen industrialean. Jardunbide hura ezinbertzekotzat jo zen orduan eskualdeak bizi zuen emigrazioa arintze aldera.

Antonio Erregerena Bertizaranako alkateak adierazi zuenez, «gaur, 40 urte eta gero, berriro ere eskatzen dugu, gaur egungo egoera korapilatsua kontuan izanik, Legasako industrialdea suspertzeko, Baztan-Bertizarana-Bidasoa-Malerreka eskualde osoaren mesedetan izan den edozein industria ezartzeko lekuri proposena izanik».

Garai batean Laminaciones eta gaur egun Arcelor Mittal denak 40 urte daramazki Legasan, baina sekula ez du industrialdea osotasunean

**GOBERNUARI ESKAERA**  
«Gaur, 40 urte eta gero, berriro ere eskatzen dugu Legasako industrialdea suspertzeko, eskualde osoaren mesedetan izan den edozein industria ezartzeko lekuri proposena izanik».

## Bidasoaldeko Industria Batzordea

erabili. Legasako lantegia uztekoan ere izan da Arcelor Mittal azken aldian, baina Industria Departamentuko zuzendari nagusiak alkateei eta Cedernako ordezkariari erran zenez, «enpresak industrialean lanean segitzeko asmoa du eta instalazioak handitzeko aukera ere bada». Industria batzordea osatzen duten eskualdeko alkateek horren berririk ez badute ere, euren asmoa ez da enpresaren hedapena geldiaraztea, «baizik eta gaur egun hartutako lursail guztiak kontuan hartuz, %30 baino ez, horren bikoitza ere

uztea enpresak egin ditzakeen hedapenentarako. Baina 40 urte igarota, eta inolako garapenik egin gabe, alkateen ustez «zentzuzkoa dirudir lur horiek itzuli eta erabiler publiko ematea». Baztanen erabilgarri dagoen lurzoruari dagokionez, Lekarozko Enpresa Campuseko lursailak aprobetxatzeko aukera ere mahai gainean paratu zen, enpresa berriak ezar daitezzen.

## BULEGO TTIKIAK ETA NABEAK, EKINTZAILEEI ETA ENPRESEI ERRENTAN

Lesakako Udalaren eta Cederna Garalur Elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena ere sinatu zuten abuztuaren 3an, Alkaiagako enpresa-zentroa kudeatze aldera. Cederna Garalur Elkar-

teak 'coworking' filosofiaren barnean, eskualdeko enpresei emanen dizkien zerbitzu berriak ere aurkeztu zituzten Isabel Elizalde Cederna-Garalurreko zuzendari-gereenteak eta Arantxa Arregik Bertizarana-Bortzirak-Malerrekako garapen-eragileak. Ekintzaileei eta enpresei bulego tikiak eta nabeak prezio onean alokairuan emanen zaizkie, enpresa berriak sortzea bultzatzeko eta horrekin batera enplegua sortzeko eta baliabide komunak partekatuko dituzte.

Nabeak eta bulegoak alokairuan hartuta dauzkaten enpresei dagokionez, egonaldi-urtearen araberako tarifa murriztu ezarriko zaie: nabeak alokatzeko hilabeteko prezioa metro koadroko 6,50 eurokoa bada, lehenbiziko urtean erdi prezioan egingen da (3,25 euro) eta bigarrenen %25eko murrizketarekin (4,87 euro).

Bulegoen kasuan, hilabeteko tarifa 90 eurokoa da eta lehenbiziko urtean %50eko murrizketa izan den (45 euro) eta bigarrenen %25eko (67,50 euro). Prestakuntza-programak eta topaketak egiteko prestakuntzarako aretoak ere alokatuko ditu Cedernak, baita 10 ekipoinformatiko dituen gela ere.

**BERA** Zure inguruan klase guztiakoa (inokulazio, (soroa, zinoia, arimato, bakaxa...) eta urratsi segurtasun gorbite nahit badura, dituzt Termite eta Pipien tratamenduen

**GOBERRA** Inbentarioa, Tardorako, Puntualitate

90 200 200 200 • Zuzen, 40 6 • BERA



**KULTURA** → EKIMEN BERRIA

# Dantzari eta musikari ohi helduen taldea sortu dute

Abenduaren 26rako jaialdi bat prestatu nahi dute

## TTIPI-TTAPA

Dantza dela edo musika dela, jende aunitz mugitu izan da Beran bertan. Batzuk Gure Txokoa Dantza Taldean ibiltzen dira, bertzeak Udala Musika Eskolan... Baina badira talde horietatik kanpo daudenak ere eta horiek guztiak biltzeko asmoz sortu dute Berako dantzari eta musikari ohi helduen taldea. Alde batetik, herriko dantzari eta musikari ohiak elkarrekin eta maite duten horietatik elkarrekin gozatzea du talde honek helburu. Baina horrekin batera, zaletasun horiek herriarekin partekatu nahi dituzte, herriko betiko dantza eta musikaz jaialdiren bat prestatuz.

Taldearen lehenbiziko erroka abenduaren 26rako jaialdi bat prestatzea izanen da, betiko dantzekin. Horretarako, ordea, dantzari eta musikari ohi helduak behar dituzte eta animatzeko deia egin diete.

Joan den irailaren 28an bilera egitekoa zuten ekimenaz solasteko.

## 200 lagun BTT proban

Irailaren 23an egin zen Gure Txokoak antolatutako XX. BTT proba eta eguraldi ederrarekin, 200 bat lagunek parte hartu zuten: 14 urte bitarteko 30 gaztetxo inguruk egin zuten haurren itzulia, hamar bat heldu 20 kilometroko ibilbidea egitera animatu ziren eta 150 inguru 30 kilometrokoa. Aitzineko urteetan bezala, bukaeran, Gure Txokoak, Katea Biketik eta Larun Haizpe elkarrekin emandako oparienezko zozketa egin zen partaideen artean. Tartean ziren bi bizikleta ere, eta bat Xiker Lizardiri eta bertze Karlos Patzekori tokatu zitzaion.

Laguntzaile eta parte hartu duten guztiei eskerrik eman nahi izan dizkiete Gure Txokoak.

## Urriko kultur agenda

Aldizkari honetako bigarren orrialdean ageri den Berako kultur agendan, agenda irailekoa dela paratzen badu ere, ageri diren ekitaldiak eta horien xehetasunak urrikoak dira. Inprimatu ondok hartutako akatsa da. Beraz, barkatu eragozpenak.



UTZITAKO ARGAZKIAK

## Illeketako bestak

Pello Irazoki Errandoneak botatako txupinazoarekin hasi ziren Illeketako bestak eta giro ederrean joan ziren hiru egunetako ekitaldiak.



UTZITAKO ARGAZKIAK

## Elkarrian taldearen egitasmoak

Hemendik urte bukaera bitarte egin beharreko jarduerak zehaztu ditu Elkarrian boluntarioen taldeak. Bertzeak bertze, gaztelarako klaseak, boluntario berriak lortzeko sentsibilizazio kanpaina, pertsonen zaintzari buruzko solasaldiak eta bertze zenbait ideia landu nahi dituzte. Horrez gain, Maixel Zugarramurdiri azken urte honetan egindako lana eskertu diote.



ARGAZKIA: JOSEMARI TELLETXEA

## 29 txirrindulari 35. Felix Errandonea Memorialean

Jubenil mailako txirrindulari gazteei zuzendutako Felix Errandonea Memorialaren 35. edizioa jokatu zen irailaren 15ean Gure Txokoa elkarrekin antolatua. Peña Roya taldeko Luis Pascual nagusitu zen, Irabiako Odei Juangorekin egindako sprintean. Biek 02:04:32ko denbora behar izan zuten 85 kilometroko ibilbidea osatzeko. Hirugarren Beola Motor taldeko Mikel Ezkieta helmugaratu zen, podiuma osatuz. Herriarre dagokienean, bosgarren Lizarte taldeko Kepa Remiro gelditu zen. Denetara 29 txirrindulari helmugaratu ziren, tartean bi emakume: Irene eta Ana Usabiaga.

## Ba al zenekien...

Joseba Larratxe Josevixkyk bideoklip berria egin diola Mugaldekoko taldeari? Marrazki bizidun eta guzti egin du eta ikusi nahi izanez gero, sartu hemen: <http://www.youtube.com/watch?v=f-xjmQEO23U&feature=g-u-u>.



# LESAKA

UDALA → UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA

## UEMAN sartzeko erabakia hartzekotan da Udala

Urriaren 18 eta 19an jendaurreko aurkezpenek egingen dira

**Aitor AROTZENA**

«Lesaka herri euskalduna da, eta gainerako udal euskaldunekin elkartuta indar handiagoa egiten ahal dugu. Guk hauteskunde programan konpromiso hori hartu genuen. Orain UEMAN sartzeko prozesua abiatu dugu». Peio Etxabide alkatearen eta Iza-ro Mitxelena zinegotziaren solasak dira. Herriarrek euskaraz bizitzeko aukera eta eskubidea bermatu bahi dituzte, «eta UEMAK horretarako tresnak eta laguntza eskaintzen dizkigu». UEMAN sartzearekin, herritarrek euskararen aldeko neurri positiboak somatuko omen dituzte: «Euskararen presentzia eta euskara erabiltzeko bideak, batez ere udalarekin harremanetan, handitu egingen dira. Hartzen diren neurriak mailakatuak izanen dira; ez dugu dena egun batek bertzerera egingen. Herriarrei ez die inolako

kalterik edo eragozpenik eragingo: herritar guztien hizkuntza eskubideak errespetatuko dira, baina euskaldunen euskaraz bizitzeko nahi eta eskubideari ematen diogu hauspoa, hori baita babes berezia eskatzen duena».

Herritarrek izan ditzaketen zalantzak argitzeko eta kezkak eta ekarpenak jasotzeko jendaurreko aurkezpenak egingen dira urriaren 18an eta 19an.

Lesaka UEMAN sartzaren denean Bortzirietako herri guztiak izanen dira UEMAKo kide eta horrek aukera ematen du lanketa berezia egiteko, Etxabide eta Mitxelenaren erranetan: «Bortzirietan euskaraz bizitzeko hautua egin dugu, eta eredu izaten ahal gara bertze herri eta eskualdeentzat. Bertzalde, Lesakako Udala UEMAN sartzeko urratsa nahiko naturala izan da, Bortzirietako gainerako udal guztiak baitira horren kide. Bortz herriek batera euskararen aldeko politikak abian ditugu aspaldi, eta UEMAKo kide bezala, indar handiagoa egingen dugu Euskal Herri euskaldun baten bidean».



ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA

### Haurren Astea ekitaldiz gainezka

Erronka gogorra gainditu dute aurtengoan Irain eskolako eta Tantarumairu ikastolako guraso elkarteek. Orain artean Haurren Eguna antolatzen zuten eta aurtengoa Haurren Astea egin dute lehen aldiz. Krosa, margo lehiaketa, pailazo ipuin kontalaria, ipuin bertsolaritza, meatzeetako jokoak Kulkiren eskutik eta bukatzeko, joku tradizionalak, tailerrak, eskulanak, berendua eta dantzaldia.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

### Angel M<sup>a</sup> Villar Mastegiko lanen bedeinkapenean izan zen

15 urteren ondotik, uda honetan belar artifiziala aldatu diote Mastegiko futbol zelaiari eta auzolanean bertze lan batzuk ere egin dira. Espainiako Futbol Federazioak diruz lagundu ditu lanak eta erakunde honetako presidentek, Angel Maria Villar-ek lanak ikusi zituen irailaren 21ean, Nafarroako Federazioko, Beti Gazteko eta udal agintariekin batera. Sanferminetako zapi gorria, Beti Gazteko intsignia eta Zakozar baten irudia hartu zituen opari Villarrek.



ARGAZKIA: JAVIER ARRIOLA

### Beti Gazteko mendizaleek osatu dute Logroño arteko Bidea

Santiago Bidearen barnean, joan den urtean Baiona eta Iruña arteko bidea egin zuten Beti Gazteko mendizaleek eta aurtengoa, Iruña eta Logroño artekoa. Azken etapa irailaren 16an egin zuten 51 lagunek, Torres del Rio eta Errioxako hiriburuaren artean eta lesakar baten jatetxean bazkaldu zuten. 2013an Burgoseraino allegatu nahi omen dute, batzuetan asteburu osoko ateraldia eginez.

**XATURETXEA**  
JATETXEA  
T: 948 637 260 - LESAKA

**IRU BIDE**  
T: 948 637 260

**BOZZALDE**  
T: 948 637 260

**PPSOE, Euskal Telebista digitala Nafarroan orain!**  
Barria erosi taldea

**SOBEKO**  
T: 948 637 260



# ETXALAR

GIZARTEA → IRAILAREN 21EAN EGIN ZEN AURKEZPENA

## Gure aitzinekoek zekitena berreskuratzeko asmotan sortu da herri baratzea

Talde-lanean laguntzeko prest dauden herritar guziak ongi etorriak izanen dira

### Irune eta Itsaso

Irailaren 21ean EHNEak ateratako *Gure lurra, gure etorkizuna*

na dokumentala izan zen ikusgai Kultur Etxean. Mundu mailako nekazaritzaz solasten da bertan, azken hamarkadan izan dituen aldaketak aipatuz. Dokumentalean adierazi eta Herri Baratzean praktikara eramaten ari dena, hau izanen litzateke: antzinan egiten zuten bezala, kimikorik gabe uzta biltzeko moduak be-

rreskuratu, bertako haziak galtzen ez uztea, ilargiaren aroak segitzea, ingurumenarekin armonian aritzea...

Orain arte galdutako gai batzuk berreskuratu dira herri baratzean; adibidez, garia, garbantzoa... Herritarrengan interesa pizten ari den kontua da eta nolabait nabaritzen da harremana herri baratzea eta



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

Herri baratzean edozeinentzako lekua dagoela erran dute.

herritarren artean. Aunitzek egiten duten galderra da: zer da herri baratzea? Lurra lantzeko ekimen bat herriari irekia dena izanen litzateke. Gerora begira zenbait ideia martxan daude; erraterako, herri ba-

ratzera eskolako haurrak haziak landatzen ikastera joatea, baratzean sobratzen dena jangelara eramatea... elkarrekin lanean ari nahi duen edozeinentzako lekua dago herri baratzean.



ARGAZKIA: LAURA ELIZAGOIEN

### Usategietako tradizioaren besta

Irailaren 23an Lizaietan ospatu zen Usategietako tradizioaren besta. Egun guztian izan ziren ekitaldien balorazio hagitz positiboa egin dute antolatzaileek. Sarako eta Etxalarko artisauak etorri ziren eta jende aunitz hurbildu zen. Bazkaltzera 300 lagun inguru gelditu ziren. Eguraldia haizetsua izan arren, giro ederra izan zen, eta arratsaldeko euriak ez zuen jendea izutu. Musika eta kantuak berandu arte segitu zuten.



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

### Santa Krutz bestak giro ederrean

Irailaren 14an Santa Krutz ermitan meza eta ondotik hamaiketako izan ziren. Arratsaldean txokolatada eta eguna ongi akautzeko afaria izan zen. Igan-dean, berriz, ermitako meza Justo Sanzberro auzotarra izandakoa eta berriki Ameriketara hil denaren alde izan zen. Sainduneko zubian 60 lagun inguru bildu ziren bazkaltzera eta ondotik dantzaldia izan zen eta aurtengo beste akabera afariarekin eman zioten Urritzokietakoek.

### FLASH

**Ispilua antzeslana**  
Ion Martinez eta Saioa Royo aktoreen eskutik *Ispilua* antzeslana ikusgai izanen da urriaren 6an, 19:00etan Kultur Etxean.

**Klase partikularrak**  
Urtero bezala, kurtso hasierarekin batera hainbat klase partikularretan apuntatzeko aukera izanen da: trikiti-xa, kenpo, ingelesa, artelanak, musika eta mugimendua, pandereta, perkusioa, katekesia, euskal dantzak...

**ERROTAZAR**  
harategia  
Berrain  
produktuak  
Etegera, 3 - BERA  
Tel/Fax: 948 630 088

Tel: 948 63 70 30  
Albistia, 9 - LESAKA  
lesaka@legarra.org  
Urtorriean/  
Koskontako bidea, 7

mugitzen ari gara  
**LEGARRA**  
LIBURUDENDA  
ZUBIONDO

**ERREKALDE**  
Plaza Errekalde  
Guztialde  
Berrain  
TTAPA: 948 630 259 BERA

**ZUBIONDO**  
Jatetxea  
BERRAIN  
Alasta karrika  
BERA HARARROA

## ARANTZA

HEZKUNTZA → MURRIZKETEN ONDORIOZ

# Ekainean eta asteazkenetan ere ez da jangela zerbitzurik izanen eskolan

Guraso  
Elkarteak hiru kide berri sartu dira

## Nerea ALTZURI

Aitzineko alean eskolaren inguruko datuak eman genituen. Oraingo honetan ere, eskolatik ez gara aterako. Aste honetan, goiz arratsaldez hasi dira jangela zerbitzua-ekin. Iaztik, jangela mantendu nahian, dirua biltezeko moduak bilatzen aritu da Guraso Elkarteak (iazko Baserritarren eguneko ostatua, adibidez). Aurten ere, Gobernutik dirulaguntzetan murrizketak izan dira eta horren ondorioz irailean eta ekainean nahiz asteazkenetan, ikasturte guztian ez da jangelarik izanen.

Irailaren 3ko bileran guraso mordoxka bildu omen zen eta honako erabaki hau hartu zuten. Gisa berean, jangelaren prezioa hilabeteko hiru euro igotzea adostu zuten.

## HIRU KIDE BERRI

Urtero bezala, Guraso El-

karteak bi urtez aritu diren hiru gurasok elkar- tea utzi eta bertze hiruk erreleboa hartu diete. Maixe Oskoz, Jesus Mari Goizueta eta Pili Larretxeak elkarteko lanak utzi eta Amaia Telletxea, Rosa Maiz eta Idoia Etxeberria elkarteko kide hautatu dituzte. Hiru hauek iaztik elkartean dauden Mirian Errandonea, Amaia Apaolaza, Marian Larralde eta Maixux Etxeberriarekin taldea osatuko dute.

## Pelle Ttiki haur eskola

Pelle Ttiki haur eskolan ere ikasturtea abiatu dute. Oraingo, Haizea eta Kamele hasi dira baina urte berriarekin, bi edo hiru haur gehiago batzea aurreikusia da. Koldobike Gorostizak hezitzaile lanean segitzen du.

## Eskulan ikastaroa

Joan den ikasturtean eskulan ikastarorik ezzen izan eta badirudi aurten ekimena berriz hartzeko gogoz daudela. Astearte honetan, bilera egitekoa zuten Zahar Txokon Pui irakaslearekin. Hu-



ARGAZKIA: G. PIKABEA

## Greba egunean kontzentrazioa

Sindikatu nagusiek eta eragile sozialek deituta, greba eguna izan zen irailaren 26an. Plazan kontzentrazioa egin zen *Euskal Herriak hitza eta erabakia* lelopean.



ARGAZKIA: XABI ZUGARRAMURDI

## Ehiza denboraldian bete-betea

Aste honetan, urriaren lehenetik uso ehiza denboraldia abiatu da. Irailaren 22tik hasi eta otsailaren bukaera bitarte, berriz, basurde ehizerako sasoiak daude. Guztira 150 ehiztari inguru, goiti eta beheiti ibiliko dira hilabete hauetan: Bagatxar mendian 66 eta Ekaitzan 64 ehiztari. Basurdetan ibiltzen direnak 20 inguru lagun dira. Hala ere, bada zaletasuna oilagor ehizerako ere. Aurten, Usoa Ehiztarien Elkarteak Udalarekin kontratua berritu du eta ehiza plangintza berria eratu da hamar urterako. Elkarteko lehendakaria Xabi Zugarramurdi Alzuri da eta elkarteko batzordeak ehiza nagusia modalitate honetan Joxe Antonio Eizagirre arduradun gisa izendatu du. Gisa berean, urte osoan bezala, ehiza sasoiaren mendia zaintzea ezinbertzekoa da. Hori dela eta, abenduaren 15a baino lehen, ehiza barrutian dauden 101 ehiza postuen erabiltzaileek bakoitzak bere inguruak txukundu eta garbitu beharko dituzte. Hau egin ezean, 150 euroko isuna jarriko zaie.

rrengo alean erabakia- ren berri emanen dugu. Interesa izanez gero, ber- te urteetan parte hartu dutenengana jo daiteke.

## Veneziara kruzeroa

Alemaniko bidaiari-

egondako lagunak baz- kaltzera elkartu ziren Zahar Txokon irailaren 16an. Bidaia-ko solasak eta ar- gazkiak egin eta ikusi on- dotik, heldu den urtean Venecia inguruko uretan egin beharreko kruzeroa-

ren xehetasunak eman ziren. 2013ko ekainaren 24an abiatu eta bedera- tzi eguneko itsas-bidaia izanen da. Urriaren 8a baino lehen izena eman behar da Martin Lega- rri deituz (948 634 030).

FRUTUAK  
BERRITASUNAK  
ERANDONKA, ILL.  
FRUTUAK ETA BARRAZKIAK

BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152  
Bidasoa, 76 • atea 21-22 • 31780 BERA

BIDASOA  
BILTEGIA - BARRAZKIAK  
FRUTUAK - BARRAZKIAK  
BARRAZKIAK - BARRAZKIAK

T.F. 859 971 442  
BERA

USOA  
Nekazarri kooperatiba

Bertan egindako perisuaik, bertze markak eta ekologikoak  
Organikak - Burdin txanak  
Insektizidak - Edanak - Harriak  
Botikak (arrozitzairekin)

Etkez ebeko banaketa egiten da  
Kalifikazioa eta ibigailuendako gascioa

Tel. eta Faxa: 948 63 52 14 • ETXALAR



GIZARTEA → BESTEN AITZINEKO ASTEBURUA

## Jose Mari Istilart baztandarrak irabazi du Artzain Zakur Lehiaketa

Gazta  
lehiaketako  
lehen saria  
Francisca  
Apeztegiak  
eskuratu zuen

prestatutakoa izan zen irabazlea.

Bederatzigarren edizioa bete duen gazta lehiaketari dagokionez, 9 partehartzaile izan ziren. Lehenbiziko saria Francisca Apeztegia Tapiarentzat izan zen, bigarrena Elena Retegi Iturbiderentzat eta hirugarrena M<sup>a</sup> Justa Sein Sansiñenarentzat. Igan-de eguerdian egin zen lehiaketa eta arratsaldean, Lesakako Trikitixa Taldeak bere jaialdia eskaini zuen bitartean, gazta horiekin batera sagardoa eta opilak doan dastatzeko aukera izan zen.

Meakaundiko zelaietan, berriz, artzain za-



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Jose Mari Istilart, Aitor Tato eta Mikel Aizpurua, Artzain zakur lehiaketako hiru lehenbizikoak, beraien zakurrekin.

kur lehiaketaren 33. edizioa egin zen. Zortzi artzain eta bere zakur-  
rak aritu ziren lehiaketa eta Baztango Jose Mari Istilart izan zen garaile, *Lagun* zakurrekin. Bigarren saria Ataungo Aitor Tatoren *Argi* zakur-  
rak eskuratu zuen eta hirugarrena Oiartzungo Mikel Aizpurua eta *Suker* zakur-  
rak. Hemen ere sarrera doan izan zen eta Lourdes Ibarluzea alkateak, Isma Iturbide zinegotziak eta Izaskun Goñi, Bertizko Partzuer-



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Herriko trikitilariak ere parte hartu zuten trikitixa jaialdian.

goko kudeatzaileak banatu zituzten sariak. Artzain Eguna aprobe-txatuz, Elkarrizan bo-

luntario taldeak ere bo-luntarioak lortu eta bortz herrietan zabaltzeko kanpaina egin zuen.

**LABE ZAR**  
Tel: 948 631 076 - BERA

**zalain**  
RESTAURANTE

Zalain autoa z/g  
31780 Bera  
T. 948 631 106  
W. www.zalain.com

**zalain**

**BORTZIRIAK**  
expert

AURREZTEN hasiko zara zure sukalde berriaren aurrekontua egiterako momentuan

Expert-Bortziak aurrezki bertsioa **OPARITZEN** dizugu

**%20**  
DESKONTUA  
SUKALDE  
ALTZARIETAN

Bidasoa: 45 . 31780 Bera: 948 630377 . 948 631091 . info@bortziak.com . www.bortziak.com

# GAZTE OIHUA

GIZARTEA → EUSKAL HERRIA

## Bortzirietako gazteek gazte mugimenduaren aurkako jazarpena salatu dute

Estatuaren jarrera ezkorra erakusten dutela diote

### TTIPI-TTAPA

«Ikasturte hasiera ez da nahi bezain gozoa izan euskal gazteriarentzat». Halaxe adierazi dute Bortzirietako gazteek. Irailaren 18an, Balmasedan Imanol Gonzalez Karrantzako gaztea atxilotu zutela oroitarazi dute eta martxoaren 29ko greba egunean autobus baten azpian etxean egindako lehergailu bat jartzea leporatuta, epaileak kartzelara bidali duela. Hori «aitzakia bertzerik ez dela» salatu dute Bortzirietako gazteek, «euskal gazteria kriminalizatu eta

oztopatzeko bertze saiakera bat». Haien ustez, horrek erakusten du espainiar estatua urduri dagoela euskal gazteria antolatzen dabilela somatuta. Atxiloketa erabaki politikoa dela iritzi diote.

Bertzalde, Hernanieta Urnietako 10 gazte epaituei elkartasuna adierazi diete Bortzirietatik. Auzitegi Nazionalak 9 eta 7 urte arteko espetxe zigorra ezarri nahi die Segiko kide izatea leporatuz. «Estatuaren jarreraren bertze adibide bat» dela diote Bortzirietako gazteek eta azaldu dute «euskal jendartearen urratsak ematen ari den arren, estatuak berdin jarraitzen duela, mugimendu oro geldiarazi nahian». Hala ere, gazteei antolatzen segitzeko deia luzatu diete.



### Prozesu eratzailera abian da

Irailaren 29an Zarautzen egindako agerraldian gazte talde berria sortzeko gogotsu azaldu zen Hego Euskal Herriko gazte andana. Helburu horrekin, *Gazte ZukGua* ekimena martxan jarri dute. Urrian hasi eta hilabeteetan bilera ireki eta parte hartzaileak egiten dira independentzia eta sozialismoa oinarri, talde berria nolakoa izanen den eztabaidatu eta erabakitzeko. *Gazte ZukGua*, *norbanakotik kolektibora* izanen da prozesu eratzaileren leloa eta ahalik eta gazte gehienek parte hartzea da helburua, gazte guztien problematikei erantzuna emateko tresna izan nahi baitu. Ekimen hau prestatzen ibili diren gazteek argi utzi dute ez dagoela deus erabakia, hutsetik hasi behar baita talde berria, eta eskualde honetako gazteak ere animatu nahi dituzte, denen ekarpena baliagarria izanen delakoan.



ARGAZKIA: GAZTE OIHUA

### Besta arrotzean auzolana

Aurten ere besta «arrotz» gisa izendatu dute Lesakako gazteek urriaren 12a eta besta egin ordez, egun hori ikasteko baliatuko dute. Egundak «arrotz» izendatzeko hainbat arrazoi dituzte Lesakako Gazte Asanbladako kideek. Alde batetik, hispanitatearen eguna Amerikaren aurkikuntzarekin lotuta dagoela adierazi dute (1929an izendatu zuten hala). «Ezaguna da, ordea, 'aurkikuntza' horretan Hego Ameriketako hainbat herrialdek jasan zuten zapalkuntza». Egundak honekin herrialde horiei espainiar nazio sentimendua inposatu nahia kritikatu dute. Bertzalde, urriaren 12a Pilareko Amabirjinaren eguna ere badela oroitarazi dute, hau da, Guardia Zibilaren eta Espainiako patroia. Hau ospatzeari ere uko egin diote. Besta honi intsumisioa adierazteko, ikastetxe zein lantegi gehienak itxiak daudenez, herri eskolak antolatzea erabaki dute, besta eguna egun normaltzat hartu eta ikasteko baliatuz. Hortaz, 10:30ean auzolanari buruzko hitzaldia egingen dute Jasone Mitxelorenaren eskutik Arrano elkartearen. Hitzaldiaren ondotik eztabaida sortzea espero da eta auzolanaren inguruko ekimenen bat ateratzeko itzaropena ere badago. Luntxa ere izanen da.



ARGAZKIA: GAZTE OIHUA

### Arrakastaz ospatu da Etxalarko lehen gazte eguna

Etxalarko gazteek egun guztirako egitaraua prestatu zuten irailaren 15ean. Goizeko gosariarekin hasi eta hurrengo eguneko goizaldera arte luzatu zen besta, Morge, Arma tiro punk, Egurra ta kitto eta Unsain taldeen kontzertuekin. Egunez, berriz, gosariaren gain, paella txapelketa, bazkaria, jokoak eta triki-poteoa izan ziren. Etxalarko gazte taldeak jakinarazi digutenez, besta egun honen balorazioa positiboa egin dute, egunez antolaturiko ekitaldietan Etxalarko gazte gehienek parte hartu zutelako eta arratsez inguruko herrietatik jende dezente etorri zelako. Hurrengo urtean, beraz, II. Gazte Eguna antolatzeko asmoa erakutsi dute.

ARGAZKIA: GAZTE OIHUA



# SUNBILLA

KULTURA → IRAILAREN 22AN

## Erakustaldi ederra eskaini dute herriko dantzari eta erraldoi taldeek

Saioa hasi baino lehen, dantzariak ttunttuna oparitu zieten txistulariei

oparitu baitzieten.

Dantzak hauek izan ziren: Boastitzea, Agurra, desmayo, Neskatxak, Borobila, Arroza lore lore, Zinta Dantza, Sorgin Dantza, Cortes, Gorulari, ciego, eskotis, Fandango, Arin-Arin eta polka. Gaiteroak: Amadeo eta Iñigo. Atabalaria: Tomas. Txistulariak: Edurne, Rakel, Maxux, Amadeo eta Maider.

### Maider PETRIRENA

Sunbillako dantzariak eta erraldoiek izugarriko erakustaldia eman ziguten irailaren 22an, urte guztian ikasitakoa erakutsiz. Denetara 15 dantza dantzatu zituzten, haur, gazte nola helduek eta erraldoiek, berriz, bi dantza egin zituzten. Irakasle lanetan Amadeo eta Marikruz izaten dira. Jende andana etorri zen dantzen jaialdia ikustera. Laugarren urtea da jaialdi hau ospatzen dela eta jendeak oso gustukoa izaten du. Dantzak hasi baino lehen dantza taldeak txistulariei sorpresa ederra prestatu zien, Ttunttuna



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA

Laugarren urtez segidan, herriko dantzariak eta erraldoi taldeak dantza saio ikusgarria eskaini zuten frontoian.



ARGAZKIA: BIDASO IBARRA

### Sunbilla-Goizueta mendi ateraldia

Ulibeltzak Mendi Taldeak irteera zoragarria egin zuen irailaren 22an, Sunbilla eta Goizueta artean. Eguraldiak izugarri lagundu zien ibilaldi polit hau egiteko. Ondotik, Goizuetan bazkaldu eta horrela bukatu zuen eguna taldeak. Hagitz ongi pasatu omen zuten.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

### BTT Bidasoko Bide Berdean barna

Irailaren 22an BTT martxa egin zen Behobia eta Bertiz artean. Sunbillako labaderoan zuten jateko puntua. Eguraldia lagun izan zuten baina haizeak nahiko gogor jotzen zuela aipatu zuten txirrindulari batzuk.

**APARAN, S.A.**  
BRINKOLALA eta ZURAK

- Metamina taulak.
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzomerak
- Ate aruntak eta sukaide mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bamurako mobleak eta osagariak
- KIT mobleak: esku-erremintak, etab.

Tel: 648 456 080  
Fax: 348 450 334  
**DONEZTEBE**

**Luis Ibarra**  
Zurgin lanak orokorrean

636 701 204

ALDURKARITZA 33 - ARANTZA  
690 388 263

Ataratuak, Leñoak, Aterak, Taulak, barnak, Parka, finkatzea, Taulak, Taulak, zaharberitzeak

**J. RAMOS**  
zolak akuzatuta dago barnizatzen dituen

Sakelakoz: 637 836 073 - LESAKA

# ELGORRIAGA

OSPAKIZUNAK → KOFRADE BERRIAK IZENDATUKO DITUZTE IGANDEAN

## Onddo eta Zizen Kofradiaren besta haundia asteburuan ospatuko dute

Biltzen den onddo beltz haundiena sarituko dute

**Mattin LARRALDE**

Aurten XIX. edizioa beteko du Nafarroako Onddo eta Zizen Kofradiaren egun haundiak. Larunbat eta igande honetan, urriak 6 eta 7, herrira hurbiltzen direnek onddo eta bertzelako produktuak dastatzeko aukera paregabea izanen dute. Hala ere, hitzordu nagusia

igandekoa izanen da.

Urriaren 6an, larunbatean, 20:00etan Juanito Mariezkurrena gogoan XII. kazuela lehiaketa egingen da bainuetxean.

Urriaren 7an, igandea, meza ospatuko da. Ondotik kofrade berrien izendapena egingen da eta Arangurengo abesbatzak emanaldia eskainiko du. 11:00etan Zubietako joaldunak eta Bearzana txaranga karririkaz karrika ibiliko dira. Eguerdian, Migeltxo Saralegi harrijasotzailerak erakustaldia eskai-


niko du, onddo eta zizekin prestatutako kaxulekin sukaldaritzan lehiaketa egiten den bitartean.

Aurtengo berrikuntza gisara, 13:00etan pisurik haundiena duten onddo beltzak sarituko dira. Lehenbiziko saria 75 euro eta produktu lotea izanen da, bigarren saria 50 euro eta produktu lotea eta hirugarrena, 25 euro eta produktu lotea. Segidan, txistorra, urdaiazpiko, odolki, gazta, sagardo eta ardo dastaketa egingen dira frontoian.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Azken urteetako ohiturari utsiz, Arangurengo Abesbatzak kantatuko du igandeko mezan.



ARGAZKIA: MATTIN LARRALDE

### Herriko bideak garbitzeko traktorea

Udalak traktore bat alokatu du herriko bideak garbitu eta moldatzeko. Bertan ari diren herriko biltzaileek erabili dute, denbora ahalik eta hobekien aprobetxatzeko. Bertze aldetik, hari berean segituz, auzolana egin zen irailaren 15ean. Herritarrak *todouno* zabaltzen, kunetak garbitzen, udaletxea txukuntzen eta premiazkoak ziren bertze lanetan aritu ziren. Arras lan ona egin zen.



ARGAZKIA: MATTIN LARRALDE

### Ehizturiek postuak txukundu dituzte

Urriaren sartu garaia nabari da, ehizturiek euren setoak txukuntzen eta inguruak desbrozatzaren aritu baitira. Egunotan tiro soinuak somatzen hasiko gara edo, behinik behin horren esperantzan joanen dira mendira.

## ARTEKARI TALDEA

**ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA**

<ul style="list-style-type: none"> <li>• Langile autonomoak</li> <li>• Nekazariek eta merdi langileak</li> <li>• Nominak eta Aseguro Sozialak</li> <li>• Lan-Kontratatutako laguntzak</li> <li>• Enpresa berri ezberdinen sortzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Diu-laguntza ezberdinak</li> <li>• Kontabilitateak</li> <li>• IVA eta IRPF</li> <li>• Errenta alorpenak</li> <li>• Elbarritasun eta jubilatze espedienteak</li> <li>• Bidegaitasun planak eta sumentutatuak</li> </ul>
--	---

artekari@artekari.com

**LESAKA:** Siltirio, 77. beheko - Tel: 948 637 050 - Fax: 948 637 050  
**BUREATA:** La Villo, 4 - Tel: 948 133 328 - Fax: 948 133 713

## KOKKONTA Jabetzea

2012an ezkontzen diren bikoteendako Promozioa

T. 948 627 519 • 948 627 503 • 689 801 657  
 Otsango auzoa, 1 • LESAKA



**KIROLA → ERREKA ELKARTEAREN EKIMENEZ**

## Alex Txikon alpinista etorriko da Mendiaren Egunean

Abenduaren  
22an egingen da

### TTIPI-TTAPA

Abenduaren 22an egingen den Mendiaren Egunerako prestaketekin hasia da Erreka Elkartea. Oraindik ez du xehetasun zehatzik jakinarazi, baina Alex Txikon alpinista ezaguna gonbidatuko duela aitzineratu du. Gainerako xehetasunak eguna hurbildu ahala emanen ditugu.

Elkarreak baieztatu duena atletismo sekzioa ekipazio berria ateratzeko asmoa duela izan da. Eskerak egiteko Santi San Migueli deitu behar zaio (650 133255).

Bertzalde, Errekako eskubalo talde guztiak hasi dute denboraldi berria. Seniorren entrenatzailea Patxiku Ganboa da eta Felipe Ganboa eta Luismi Apezetxea ditu laguntzaileak. Jubenilen entrenatzaileak Iban eta Txomin Mindegia dira;

infantil mutiletan Jesus Olalla eta Pilar Olalla dira entrenatzaileak eta nesketan Iban Ezkurra eta Txibi Uterga; alebirek Haizea Erkizia dute entrenatzaile eta Delia Portillo eta Bittori Mendiburu laguntzaileak. Benjaminetan, Elena Zabala eta Maider Omar dira entrenatzaileak.



ARGAZKIAK: GAZTE BURRUNBA

### Besta tikiak umore ederrean

Aurten ere, giro polita sortu zen irailaren 21ean eta 22an ospatu ziren besta tikietan. Horren lekuko dira, bertzeak bertze, argazki hauek.



ARGAZKIA: ZALDUA

### Angel Villar futbol-zelaia ikustera etorria

Angel Maria Villar Espainiako Futbol Federazioko presidenteak futbol-zelaira bisita egin zuen irailaren 21ean. Argazkian ageri direnek ongietorria egin zieten.

### EUSKARA

Solaslaguna ekimenean izena emateko epea irekita

### TTIPI-TTAPA

Urriaren 22ra arte zabalik egonen da Solaslaguna ekimenean izena emateko epea. Udaletako euskara zerbitzu edo mankomunitateetan eta eskualtegietan eman daiteke izena.

**DISEÑOS Y HABITACIONES - BUSTURUA**

**TELLERÍA**

Kalitatezko giteziaren 700 m<sup>2</sup>ko erakustetxea prezio onarengatik!!!

- Nereira egiteak
- 5/100 Hertz Trinkoa
- Elipsoak
- Sukaldea
- Txakolak

**KOLORE ETA ARABERA AURERA HAINDIA**

**BERRICPLANO (Italiar) 14, 948 30 33 04 - www.telleria.com - www.mueblesdeltelleria.com**

**PRIM, c.b.**  
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA

Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA  
Colón Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 632050 • IRUN

# ITUREN

OSPAKIZUNAK → IRAILAREN 22AN

## Giro ederrean joan da aurten ere Joaldunen Eguna

Ameztiko xokoak alaitu zituzten joare soinuekin

### Arkaitz MINDEGIA

Eguraldia lagun zutela, Joaldunen Eguna ederra ospatu zen joan den irailaren 22an. Goizeko lehen orduetan joare soinuak herritik Ameztiko xokoak alaitu zituzten, trikitalariekin batera. Eguerdi aldera herrira jeitsi eta beraien itzulia egin ondotik, bestak aitzinera segitu zuen, aizkolariak, bertsolariak, bazkaria eta nola ez besta giroarekin. Goizean joare soinuekin hasi eta Joxe Angel akordeoilariaren soinuekin bukatu zen Joaldunen Eguna.

### Javier Sein bikain

Javier Sein herriko txirrindulariak afizioz eta libreki hainbat eta hainbat BTT lasteketa egin ditu. Euskadiko BTT txapelketako hiru fasetan ibili da, denetan postu onak lortuz: Zegaman egin zen proba irabazi zuen. Nafarroako Selekzioarekin Espanian barna ere ibili da, batean Vigon eta bertean Gijonen. Udan atsedenaldia izan ondotik orain Nafarroako txapelketako probetan parte hartzen ari da, tartean Berako BTT zeharkaldian parte hartuz. Zorionak eta segi horrela!

### Ander Erasun

Ander Erasun aizkolaria indartsu dabil, udan herriko bestetan hain-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Javier Sein bikain dabil. Argazki nagusian, Zegaman irabazle sartzen ageri da. Ezkerrean, Agoizko Nafarroako txapelketan eta eskuinean Avilesean Nafarroako selekzioarekin.

bat erakustaldi eman ondotik, irailaren 23an Uhartan jokatu den Nafarroako Lehen Mailako Aizkolari Txapelketako kanporaketan finalera sailkatu zen. Lehenbiziko bortzak sailkatu ziren, Ander Erasun tartean. Orain urriaren 7an Etxarri-aranatzen egingen den finalean parte hartuko du. Zorte on!

### Greba

Irailaren 26rako deitua zen greba oroko-

rean Udalak, eskolak eta hainbat enprek bat egin zuten.

### Garbiketa arduraduna

Udalak berriki esleitu du Herriko Etxea, eskola, medikuaren kontsulta, Aurtitz eta Ituren go plazaren garbiketa egingen duen arduraduna. Udalak lehiaketa bidez esleitu du eta lau herritarren artean Alazne Untxalok aurkeztu zuen proposamen ego-

kiena eta bera izanena da urte batez garbiketa lanak egingen dituen.

### Aurtizko San Martin bestak

Guttiago falta da Aurtizko San Martinak ailegatzeko. Jadanik bileratan dabilta herriko gazteak azaroaren 8tik 11ra ospatuko diren bestak antolatzen. Hurrengo aleetan emanen dugu programaren berri.



GRUPO TANATORIO TALDEA

# IRACHE

MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA

948581959 | 948637404

LEKUNBEHERRI | BERRA (SAN JOSE) | LESAMA | ELIZONDOKO (BAZTAN) | LETTZA | BETELU  
DORNEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDOKO (BASTANDARRA)

- TRASLADOAK IRUNA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -  
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -



# ZUBIETA

**OSPAKIZUNAK** → NAFARROAKO KONKISTAREN BOSGARREN MENDEURRENA IZANEN DA AURTENGO GAI NAGUSIA

## Euskararen Egunean hainbat ekitaldi izanen dira urriaren 12 eta 13an

Makilipurdira mendi irteera antolatu dute ostiral goizean

### Fermin ETXEKOLONEA

Lehenko urteetan bezala, herriko gazteek Euskararen Eguna antolatu dute. Egun handia urriaren 13a izanen da, larunbata, baina bezperan ere zenbait ekitaldi antolatu dituzte, Nafarroako konkistaren bosgarren mendeurrena gai nagusizat hartuta.

Ostiral goizean, Makilipurdi mendira, Ekaitza ingurura mendi ateraldia antolatu dute. Bere garaian, gazteluren bat izan omen zen inguru horretan eta gelditzen diren aztarnak ikustera joanen dira. Arratsaldean, 18:30ean pintxo lehiaketa izanen da Errandonea ostatuan. 20:00etan herriko estalpean *Nafarroako konkista 500 urte* hitzaldia eskainiko dute. 22:00etan mus txapel-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Herriko eskulangleen lanak ikusteko eta erosteko aukeraz gain, taloak dastatzeko modua ere izanen da Euskararen Egunean.

keta jokatu da Errandonea ostatuan eta gaez rock kontzertua eskainiko dute Errandoneako atarian, herriko musikarien eskutik.

### DANTZA LUZEA BERRESKURATZEKO SAIOA LARUNBATEAN

Egun handia larunbata izanen da. Goiz gutzian herriko eskulan-

gileek beraien produktak erakutsiko dituzte eta erosteko ere aterako dituzte plazan. 10:00etan, egunari hasiera emateko kalejira izanen da herriko trikitilari eta panderojoleekin. 11:00etan serigrafia tailerra haur eta helduendako. Kamisetak norberak eramane beharko ditu. 12:00etan dantza era-

kustaldi irekia. Muxikoak, jauziak... Zubietako dantza luzea berreskuratzeko saiakera ere egingen da. Zenbait entsaio egin dituzte herriko dantzariak, baina saio irekia izanen da eta edozeinek parte har dezake. Eguna antolatzeko dirua biltzeko urdaiazpikoa eta gaztaren apustua egingen da.

Pisua asmatu edo gehien hurbiltzen denak etxeratuko ditu urdaiazpikoa eta gazta.

14:30ean bertso bazkaria izanen da, Miren Amuriza eta Aitzol Barandiaran bertsolariekin. Izen emateko epea urriaren 4an akituko da. Txartelak Errandonea ostatuan eta Santxo okindegian daukete salgai.

Bazkalondoan, herriari itzulia egingen dute bertsopotean, trikitilarien laguntzarekin. 17:00etan haurrentako ipuin kontalaria izanen da plazan. 18:00etan berendua ere eskainiko zaie haurrei. 20:00etan dantzaldia izanen da Gabenara taldearekin. 21:30ean urdaiazpiko eta gazta apustuaren irabazlea jakinaraziko da eta bertan emanen zaizkio sariak. Haurrentako karaokea ere izanen da. Gauerditik aurrera, berriz ere Gabenara taldea ariko da, baina aurretik Askatu taldeak ere emanaldia eskainiko du.

**Luz** musika berexia eta giro bestazalea Elizundo. BAZTAN. **diskoteka**

denboraldi hasiera **urriak 6** larunbata **SARRERA 6**

larunbatero, 2 orduetatik aurrera **IREKIA**

**AUTOBUSA ORDUTEGIA**

01:00 ELIZONDO - ARIZNIN	01:45 ELIZONDO-DONKETZEBE
01:05 ARIZNIN	02:00 DONKETZEBE
01:10 ERRAZTU	02:07 LEGASA
01:15 ARAJIZ	02:09 NARBARTZ
01:20 AZYLUKUELA (BIDEGURUTZEA)	02:10 MUGAIZ
	02:15 ARAJIZ
	02:20 URURITA

**ITZULERA**

04:00 ARIZNIN, ERRAZTU, ARAJIZ, AZYLUKUELA (BIDEGURUTZEA)	06:30 TRINTA, ARAJIZ, MUGAIZ, NARBARTZ, LEGASA, DONKETZEBE
---	--

ELIZONDOTIK LURRERA 02:30, 02:45, 03:00, 03:15, 03:30

## BEINTZA-LABAIEN

OSPAKIZUNAK → URRIRUKO BESTA LARUNBATEAN

# Euskal Herriko Harri Ttikien Txapelketa jokatu da Urriko Bestan

Tribal Fusio dantza ikusgai izanen da afaltzen den bitartean

### Amaia MINDEGIA

Azkeneko urtetan bezala, urriko lehendabiziko larunbatean ospatuko da Beintza-Labaienen egiten dugun Urriruko besta.

Urriaren 6an, 17:00etan Euskal Herriko Harri Ttikien Txapelketa ireriko du ekitaldia. Bost harrijasotzaile lehian ariko dira, txapelaren bila. Aimar Irigoien (Errezil, Gipuzkoa), Jesus M<sup>a</sup> Iruretagoiena *Izeta III.a* (Zarautz, Gipuzkoa), Hodei Iruretagoiena *Izeta IV.a* (Zarautz, Gipuzkoa), Josetxo Urrutia (Leitza) eta Xabier Ariztegi *Santxin* (Etxalar). Harrijasotzaile bakoitzak hiru minutuko saioak egin beharko ditu 125 kiloko harri errektangularrarekin, 125 kiloko zilindroarekin, 112,5 kiloko kubiokoarekin eta 100 kiloko



ARTXIBOKO ARGAZKIAK

Afaria ez ezik, dantza bereziak eta beste hainbat ikusgarri izanen dira Urriruko bestan.

bolarekin. Ondotik 19:00 aldera ohi den bezala aizkora apustua izanen da herriko aizkolarien artean. Aurten parte hartuko duten hiru bikoteak hauek dira: Miguel Angel Etxeberria eta Jesus Etxeberria; Jacinto Etxekonanea eta Peio Telletxea; Xabier Mindegia eta Jose Luis Telletxea.

Ondotik, 06:00etan Jaime Mindegia presatzen hasitako afariaren txanda izanen da. Azken urtetan bezala, eguraldiari aurre egiteko karpa barruan izanen da afaria, 20:30ean. Menua ere ohikoa: entsalada, salda, aretzea, gazta, irasagarra eta fruta, kafea eta kopa. Aurten Galiziako bi lagunek

queimada prestatuko dute.

Afaltzeko orduan, Nafarroako produktuekin betetako zare eder baten zozketa egingen da. Herritar gehienak ez ezik, inguruko herrietatik ere jende dezente hurbiltzea espero da.

Lehengo urtean bezala, aurten ere erakustaldi berezia izanen da

jendeak afaltzen duen bitartean: Tribal Fusio Dantza giroan afalduko dugu. Iruñeko Adasha dantza taldekoa den Zenotzeko Rebeka Ericeren eskutik izanen da emanaldia eta aurten ere sorpresaz beteriko ikuskizuna izatea espero da.

Gauean, Aierrik taldeak alaituko du afaloste goizalderarte.

Bai egun horretan eta bai aurretik laguntzen ariko diren elkarteko kide eta herritarrei esker ona azaldu nahi die elkarteko batzordeak.

Afarirako txartelak Itur-Ondo elkartean, herriko ostatueta eta Baleztana dendan izanen dira salgai 28 eurotan. 8 eta 14 urte arteko gaztetxoek 14 euro ordaindu beharko dute eta 8 urtez azpikoek alde izanen dute. Eskertuko da urtero bezala txartelak lehenagotik hartzea, antolatzaileek zenbat jende bilduko den jakin dezaten antolakuntza hobeto joan dadin.





GIZARTEA → LURRAZPIAN BARNA

## Espeleologoak Tantadian

Espeleologo talde bat izandu da Tantadiko zuloan, istorioak dakarrena egia ote den ikusten

### Markel LIZASOAIN

Espeleologo talde bat izandu da Tantadian, jakiteko ea egia dioen lehengo istorio zahar batek: hango zuloan erortzen dena Urrozen agertzen dela. HOLA BA, hartu dituzte hartu beharreko endrezu guziak: sokak, kopetako argiak, esku-argiak, bi sagar... Denak makutoetan sartu, eta han joan dira, autoan, Bizulan barrena. Martisko-neko borda parera ailegatu, eta hantxe utzi dute autoa, bazter batean. Errekara oinez jautsi, eta Autsidetik goiti abiatu dira.

Arratsaldea da, ilunabartzen hasia; ez da argi handirik sartzen hango arbola tantaien artetik. Zuloaren pareira ailegatu, eta pixko bat

ikaratu dira errekaren asotsarekin, baina gogor egin, eta, soka harri kozkor bati lotuta, zulo beltzean sartu dira, baita agudo asko zipa- zipa egin ere, besape batean soka, bestean erreka. Kanpoan haizegoa dabil, baina leizean frexko dago. Sarrera horretan, estutu egiten da leizea, baina estura hori pasatu, eta franko zabaltzen da. Errekak lan handia egin du barren horretan. Halako batean, auri batzuk aditu dituzte; pilek indar gutxi dute; mistoek baino argi gutxiago egiten dutela daude, eta ez da ikusten zer dabilen ilunbetan. Elkarren arri moan jarri dira, katu pelatuak bezala. Eta hor non hasi diren boz batzuk, arroituka: «Ze uste zuten ba! Inkisioak sorgin guziak harrapatu, epaitu... eta...», «... sorgin maltzurak bezala...»; ez zaie dena en-dentitzen, irri eta ajari artean. Alde batera begiratu, bestera begiratu, deus ere ez ikusten. Kakalarria sartu zaie gi-



### UTZITAKO ARGAZKIAK

Goiko argazkian, espeleologoak auriak sumatuta gelditu direnean. Erdiko argazkian, Tantadiko leizea, barrendik eta beheko argazkian, ilunduta, etxera bueltan.

zontxoei, eta nola Urroza urruti samar daukaten oraindik, kanpora atera dira, sartu diren tokitik, ziztu batean. Kanpoan iluna da, eta pilak itzali gabe joan dira autora, ttapa-ttapa.



**udana**  
salazones

LINEA 1500 SERVICIO  
**LAC**  
900-09-0199

**Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua  
Bakailu gezatua eta kongelaturia, erabiltzeko preat**

Kalategia no. - Barata, 8 - 23. poligona - LESAKA - Tfno: 948 631 536 - Fax: 948 631 600

**AYLA**

ttipi txakela

**% 10** eroko  
DESKONTUA  
kartet argazkileren

Nikon

## DONAMARIA

EHIZA → USO POSTUEN ENKANTEA

# 42.600 euro inguru atera ditu Udalak uso postuen enkantetik

Kostata esleitu dira postuak eta oraindik ere batzuk hutsik gelditu dira

### TTIPI-TTAPA

Kostata, baina uso-pos-

tu gehienak adjudikatuak gelditu dira. Zortzi frentetan banatuta, guztira 70 postu atera ditu aurten Udalak enkantera, bi urteko aprobetxamendurako, baina horietako batzuk baino ez dira esleitu. Gainera, lehenbiziko enkanterte deialdian izandako

POSTUAK	HASIERAKO PREZIOA	HARTU DEN PREZIOA
Golbai (11 postu)	27.000 euro	17.500 euro
Uztalakorda (8 postu)	10.500 euro	6.800 euro
Bidakorri (11 postu)	8.250 euro	8.250 euro
Labeaga (9 postu)	4.000 euro	3.500 euro
Bidasosta (10 postu)	4.500 euro	2.181 euro*
Txaruta (7 postu)	5.250 euro	4.000 euro
Ubedo (6 postu)	1.000 euro	Hutsik
Argibel (8 postu)	1.500 euro	400 euro*
<b>GUZTIRA</b>	<b>62.000 euro</b>	<b>42.631 euro</b>

\*Uso postu batzuk esleitu dira, ez denak.

erantzun eskasaren ondotik, bigarren deialdi bat egin zuen Udalak hasierako prezioak %10 jeitsiz. Orduan ere ez ziren denak esleitu eta hortik aitzinera eskaintzak aurkeztuz joan dira ehiztariak, baina ez denak hartzeraino. Ube-

don, adibidez, ez dute postu bakar bat ere hartu eta Bidasosta eta Argibelaren ere ez dira denak esleitu. Golbain, Uztalakorda, Bidakorri, Labeaga eta Txarutan, aldiz, postu guztiak hartu dituzte ehiztariak, baina hasieran finkatutako

prezioen azpitik.

Aurten, guztira 46.631 euro bildu ditu Udalak uso postuen enkantetik, hasierako prezioetan finkatu baino 19.369 euro guttiago. Dena hasierako prezioetan esleitu izatera 62.000 euro bildu izanen lirateke.

## ARKUPEAK

GIZARTEA → EGUTEGI BETA

# 600 lagun bilduko dira urriaren 13an Donezteben eginen den Bazkidearen Egunean

Horrez gain, hainbat ateraldi eginen dituzte hilabeteotan

### TTIPI-TTAPA

Batera eta bertzera segitzen dute Arkupeak Jubilatuen Elkarteko kideek. Irailean, bertzeak bertze, Parisera eta Lezora egin dituzte ateraldiak, eta horiez gain, irailaren 27tik urriaren 9ra Benidormen izanen dira 90 bazkide. Horrez gain,

urriaren 13an Bazkidearen Eguna ospatuko dute Donezteben eta horren barne, 85 urte bete dituztenak eta 50 urte ezkondukin egin dituzten bikoteak omenduko dituzte. Bazkide, omendu eta senitartekoekin, guztira 600 bat lagun elkartuko dira.

Horrez gain, urriaren 25ean Lodosako kontserba lantegia bisitatzera joanen dira eta azaroaren 5etik 14ra Lanza-rote irlara joanen dira 36 bazkide.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

### Parisera ateraldia

Arkupeak-eko 103 lagunek Paris eta inguruko txoko zoragarriez gozatzeko aukera izan zuten irailaren 10etik 16ra egindako ateraldian.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

### Lezora ateraldia

Irailaren 14an Arkupeak-eko 123 lagun Lezon izan ziren. Meza ondotik, herri kirolak ikusi eta Hondarribian bazkaldu zuten. Dantzan aritzeko aukera ere izan zuten.



OSPAKIZUNAK → EUSKAL ARTZAINAK AMERIKETAN

## Boisetik bereziki etorritako Beñardo Igantzi omendu dute amerikanoen bestan

Ameriketan ibili ziren artzainen besta giro ederrean joan da

### TTIPI-TTAPA

Euskal Artzainak Ameriketan elkarrekin irailaren 15ean ospatu zuen artzain amerikanoen urteroko besta Iruñean. Aurtengoa zazpigarren edizioa izan da eta, ohi bezala, hegoaldeko zein iparraldeko artzainak bildu zituzten, giro ederrean.

Eguneko egitaraua, San Nicolas elizan gaur egun Leitzako erretorea den eta bere garaian Baz-

tan eta Lesakan ibili zen Ander Gillegik emandako mezarekin abiatu zen. Ameriketan nahiz Euskal Herrian hildako artzainak gogoratu zituzten eta bereziki elkarteko laguntzaile izan diren Angel Igantzi, Dolores Lazkano, Jesus Goldaraz eta Kepa Mallea. Segidan, Iruñeko Gotorlekuko Arma Aretora bisita egin zuten artzainek eta han Iruñeko udalako eta Nafarroako Parlamentuko zenbait ordezkari artzainei harrera egin zieten.

Laura Igantzi Euskal Artzainak Ameriketan Elkarteko presidentea, bere aldetik, bestan par-



ARGAZKIA: EUSKAL ARTZAINAK AMERIKETAN ELKARTEA

Laura Igantzi Euskal Artzainak Ameriketan elkarteko presidentea eta bere osaba Beñardo, irailaren 15eko harrera ekitaldian.

te hartzera bereziki Boisetik etorritako Beñardo Igantzi osabari omenaldi tiki bat egin zion. Beñardok 87 urte ditu eta Elkoko Euskal Etxearen sortzaileetako bat izan zen, baita dantza taldearena ere. Akordeoi irakaslea ere izan zen eta Laurak azaldu bezala, «artzainen kolektiboak Ameriketan egin zuen kultur ekarpenaren erakusleetako bat». Gaineratu zenez, dagoeneko 170 bazkide baino gehiago ditu elkarrekin eta hauen ekarpenei esker lanean segitzen dute. Olondrizko An-

tonio Camposek egindako diru-ekarpenari esker, berriz, Renoko Unibertsitateak, Nafarroako Unibertsitatearen laguntzarekin, AEBerako Nafarroako emigratioari buruzko tesia ere eginen dela eta, «gure ametsetako bat egi bihurtu» dela aipatu zuen Laurak.

Harrera ofizialaren ondotik, Iturrama eskolako frontoian bazkaldu zuten eta ohiko *highballa* dastatzeko aukera ere izan zuten artzainek, Ameriketako oroigarri. Bazkalondoan, Ameriketatik espreski etorritako

lagun batzuei mikrofonoa hurbiltzeko eskatu zieten eta gainerako bazkaltiarren txalo zaparrada jaso zuten, Bankako Menditarrak taldeak kantua eskaini zien bitartean. Segidan omenaldien txanda etorri zen.

2006an ospatu zen artzain amerikanoen lehenbiziko festa, Lesakan. Hurrengo urtean hitzordu bikoitza egin zen,aldi berean, Gernikan eta Alduden. Bertze edizioak Elizondon, Auritzen, Sunbillan eta Eugi-Zubirin izan dira eta aurtengoa Iruñean.

1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea

**UDAZKEN-NEGUKO KOLEKZIO BERRIA**

edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohé estalkiak · mairidireak · mantelak · kuxinak · toailak

Tafalla, 13 • IRLINEA • 948 230 634



## LANA

ESKUALDEA → IRAILAREN 26KO GREBA

# Grebak segida zabala izan du eskualdean

## TTIPI-TTAPA

Murrizketen kontra irailaren 26rako deitua zen greba orokorrek segida zabala izan zuen eskualdean. LABek mobilizazio jendetsuak azpimarratu zituen eta ELAren erranetan martxoaren 29koan baino eskasagoa izan zen segida.

## INDUSTRIA

Industria arloan grebak lantegi handienak geldiarazi zituen. Lesakan, Arcelor Mittal Procésing lantegian %100-ekoa izan zen grebaren segida eta AM Lesakan %90ekoa. Zalaingo Condesa, Funvera eta Saveria lantegietako produkzioa ere erabat geldirik egon zen. Aldiz, Alco, Hidrorubber edo Conservas Martiko lantegietan langile gutti batzuk bakarrik egin dute greba eta Composites Gurean langileen %20ak baino gehiagok lan egin zuen. Orokorrean, Zalain eta Alkaigako industrialdeetan grebaren segida %70-80koa izan zela aipatu zuten sindikatuek.

Doneztebeko Aparan industrialdean eta Leitzalderako errepideko tailer eta lantegietan aktibitate gabe egon ziren. Baztanen Harrilan eta Marmoles del Baztan enpresek itxi egin zituzten ateak eta Leitzako Sarriopapel lantegian greba egin zuten langile guzietan.

## ADMINISTRAZIOA, IRAKASKUNTZA ETA KOMERTZIOAK

Administrazio arloan,

Herriko Etxe gehienetan guttineneko zerbitzuak bertzerik ez zituzten eskaini. Komertzioetan, ia erabat itxi zituzten komertzioak. Irakaskuntzan ere, ikastetxe gehienek zerbitzu minimoak eskaini zituzten.

## MOBILIZAZIOAK

Herriz herriko kontzentrazioez gain, manifestazioak egin ziren. Beran, konbokatua zegoen manifestazioa bertan behera gelditu zen, Guardia Zibilak ateratzea galerazi baitzuen. Espainiako Gobernuko Delegazioak erran zuen baimenak epez kanpo eskatu zirela eta aitzakia horrekin, manifestazioa ateratzen bazen kargatu egingen zutela adierazi zuten guardia zibilek. Eta horren erakusgarri, Berako kuartelatik sirenak martxan eta antidisturbio materialarekin agertu ziren. Sindikatuetako ordezkariak aipatu zutenenez, baimena hamar egun lehenago eskatu zen lehen aldiz eta hau ukatu ondotik, bertze bitan ere eskatu zen, erantzunik jaso gabe. Halere, Guardia Zibilaren jarrera ikusita, manifestazioan ez ateratzea erabaki zuten. Ordu berean, Elizondoko manifestazio jendetsua egin zen, 350 eta 400 lagun artean bildu baitziren.

Arratsaldean, Baztan-Bidasoaldeko manifestazioa egin zen Donezteben eta *banke-txeentzat dirua, herriarentzat miseria* lelopean jendetza elkartu zen, sin-



Berako manifestazioa ateratzea galerazi egin zuen Guardia Zibilak

ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA



Elizondoko egindako manifestazioa.

ARGAZKIA: ARRANBELA



Leitzan egindako manifestazioa.

ARGAZKIA: ENKO ASTIBIA



Donezteben egindako manifestazioa.

ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

dikatuen arabera, 500 bat lagun. Leitzan ere egin ziren

mobilizazioak: goizez hemezortzi auto ibili ziren herrian barna buel-

taka eta arratsaldeko manifestazioan 500 lagun inguru bildu ziren.



**GIZARTEA** → LARUNBAT ETA IGANDE ARRATSALDEZ

## Gazte Txokoa lanean hasi da berriz ere

12 eta 16 urteko gazteei zuzendutako zerbitzua

### TTIPI-TTAPA

Duela hiru ikasturte hasi zen lehen aldiz Gazte Txokoa eskaintzen, garai bateko eskolatan eta gaur egun festetako ikastolako taberna jartzen den eraikinarren atzeko aldean zegoen frontoi txikia egokituta. Aurten ere atekak zabaldu ditu asteburu honetan eta urritik ekainera bitarte, larunbatean 17:00etatik 20:30era eta igandetan 17:00etatik 20:00etara. Futbolina, mendi ateraldiak eta gazteek proposatzen dituztenak antolatzen la-

guntzeko prest dago gurasoen komisioa.

### Koroko entsaioak

Umore Ona abesbatzak irailaren 21ean hasi zituen ikasturte berriko entsaioak. Geroztik, ostiralero 19:30etik 21:30era biltzen da eskolan entsaioetan.

### Azaro kulturalerako bilerak

Hilabetea besterik ez da falta eta dagoeneko Azaro Kulturalerako lehen bilerak egiten hasiak dira. Beti bezala,azienda feria izanen da ekitaldi nagusia, baina beste kontu ugari ere plantatuko dira, herriarrek urteroko borondatea erakusten badute bederen.



UTZITAKO ARGAZKIAK

### Euskal Jaiarekin maiatza bitarte itxi ditu atekak Ixkibik

Irailaren 23an ospatu zen Iskibi kanpinoko Euskal Jaia. Eguerdiko toka txapelketan parte hartze handia izan zen. Gero talo jatea izan zen eta bertan 100 pertsonatik gora bildu ziren giro ederrean, nahiz eta lehengo urtean baino sagardo gutxiago edan. Arratsaldean berriz, Bonatxok bere soinuarekin ederki berotu zituen bazterrak, hezurak mugiaraziz. Egun horretan itxi zen kanpina hurrengo urteko maiatzera arte. Kanpinetik eskerrak eman nahi dizkiete bertaratu diren guztiei eta bereziki Goizueta-ko jendeari, suhiltzaileei eta Udalari, emandako laguntzagatik.



## ARANO

**KULTURA** → UDALAREN ETA IPARRALDEKO MANKOMUNITATEKO EUSKARA ZERBITZUAREN LAGUNTZAREKIN

## Miaxiria aldizkariaren bigarren alea prestatzen hasiak dira

Kontsejun jarri zen buzoian bilduko dira aldizkarirako kolaborazioak

### Ainhoa ANSA

Miaxiria aldizkariaren 2. zenbakia urtea amaitu aurretik aterako da,

Iparraldeko Mankomunitateko Euskara Zerbitzuaren eta Aranoko Udalaren laguntzarekin. Horretarako dagoeneko martxan da herritar talde bat gauza interesgarriak guztion gozamenetako idazten, biltzen eta sortzen.

Izena bera erabakitzerakoan ere herritar

guztion partehartzea bultzatu zen duela bi urte aldizkaria sortu zenean, eta honekin batera antzeko ariketa proposatu nahi da aldizkaria koordinatzen ari den lantaldeetik.

Bere garaian, Kontsejun jarri zen buzoian, Aranon aspaldian (edo kasu batzuetan gazte-

en artean behin ere) entzun ez genituen hitzak bildu genituen eta horren laguntzaz gure hizkera gehiago aberastu. Burura etortzen zaizkizuen hitz berezi, arraro, ahaztu edo kurioso horiek buzoian sartzera gonbidatzen zaituztegu, Miaxiriako atal bat ea denon artean osa-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Miaxiria aldizkariaren lehen aleko azala. 2. alea prestatzen ari dira orain.

tzen dugun! Buzoia urri-ara arte egongo da jarrita eta [arano.euskara@gmail.com](mailto:arano.euskara@gmail.com) helbidean ere egin daiteke.

# LEITZA

KULTURA → AURRERAKOAK TXEKIAN BARNA

## Herriko dantzariak pozik bueltatu dira Txekiatik

Babi-Leto folklore jaialdian izan dira

JM BARRIOLA

Dantzari eta txistulariak itzuli dira Txekiar Errepublikako Valasske Mezirici herrian ospatutako Babi-Leto folklore jaialditik. Bidaia luzea izan arren, merezi izan duela eta oso balorazio ona egin dute, esperientzia aparta izan baita taldekide guztientzat. Ekitaldiz beteriko egunak izan ziren, euskal folklorea zabaltzeko parada ugariz beteak. Oso harrera ona jaso zuten, bai antola-

tzaileen partetik eta baita gainontzeko talde eta ikusleengatik ere. Jaialdian Polonia, Eslovakia, Eslovenia eta Txekiako taldeek hartu zuten parte.

Dantza saioei dago-kionez, ahalik eta dantza desberdin gehien eskaintzen saiatu ziren. Umeei zuzenduriko dantza saioa ere izan zuten, eta umeei beraiekin batera dantzatzeko aukera izan zuten. Helduei zuzenduriko dantza ikastaroa ere eman zuten.

Normalean, dantzan eta txistua joz ikusten badiugu ere, jaialdi honetan sukaldarako eta kantatzeko abildadea ere badutela erakutsi zuten. Jaialdiko ekitaldien ar-



UTZITAKO ARGAZKIA

Herriko musikari eta dantzariak ederki ibili dira Txekian barrena.

tean talde bakoitzak bereien herrialdeetako jaikiak eskaintzeko aukera izan zuen, eta leitzarrek taloak prestatu zituzten, txakolinarekin batera dastatzeko. Kantuan ere aritu behar izan zuten eta txistulariek ere bereien kontzertua eskaini zuten.

Jaialdiko ekitaldi ofizialez gain, aisialdirako denbora pixka bat ere izan zuten: ingurua eza-gutu, erlaxatu, eta nola ez, txekiar garagardea probatzeko aukera.



ARGAZKIA: BURDINA TALDEA

### Meatzak berreskuratzen

Burdina taldea eta Udalak elkarlanean segitzen dute. Erreka auzoan, karburo fabrika/kantinako atzean dagoen karobia garbitu zuten, gero Urto-txiki eta Juanabordakoak garbitu dituzte udan eta azken aldian, Tolaremina inguruan dagoen meatza zuloa garbitzen ari dira, barrutik ikertzeko asmoarekin.

## Aurrera Eguna larunbatean egingen da

JM BARRIOLA

Urriaren 6an, larunbatean izanen da Aurrera Elkartearen eguna, egitarau zabalarekin. 09:00-etan BTT taldearekin bizikleta irteera Plazaolako geltokitik abiatuta, haur eta helduentzako. Ordu berean txistulariekin di-na. 10:00etatik 13:00etara jokoak: rokodromoa, tirolina eta zaldi ibilaldia, futbito partidak plazan. 11:30ean Aurrera pilota

eskolakoen saioa. 13:00-etan Incansables txaranga-ekin poteoa. 14:30ean bazkideen bazkaria karrapen. Bazkaria 20 euro-tan izanen da aurretik txartela hartuta. Bazkalduta, bazkideen inguru-txo. Ondoren, Incansablesekin herri poteoa buru haundiekin. 21:30ean luntxa Aurreran eta giro-orkesta. Blusa beltza eta Aurrerako ikurrekin azaltzea eskatu dute.



ARGAZKIA: PLAZAOLA PARTZUERGOA

### Plazaolako IX. Mendi Bizikleta Martxa eta VI. Maratoi Erdia

Irailaren 16an ospatu ziren biak Leitziatik igarotzen den Plazaolako natur bide-tik barrena. 6500 bat pertonek hartu zuten parte eta arrakastatsua izan zen. Familien ikuspegitik, azpimarratu beharra dago txikien martxan izandako animazioa. Izan ere, antzinako Plazaola trenaren mende hasierako bidaiari baten papera hartu zuen aktore batek heldu eta txikiak liluratuta utzi zituen.

**photolekun**

Argazki errepertorioak  
argazki-errepertorioak  
argazki-errepertorioak  
argazki-errepertorioak  
argazki-errepertorioak

900 20 43 20  
892 35 77 81





ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

## Usategietako enkanteak

Berri hauek idazterakoan bigarren enkantea burutu gabe zegoen oraindik eta hurrengo alean zehaztasun gehiagorekin idatziko dugu ea nola joan diren aurtengoan usategien enkanteak. Argazkia lehen enkante eguneko da, irailaren 22an.

**KIROLA** → NAZIOARTEKO ARTZAIN TXAKUR TXAPELKETA OÑATIN

# Hirugarren txapela lortu dute Alustiza eta Ttikik

Nafarroako txapelketa 9 aldiz irabaziak dira

**Juana Mari SAIZAR**

Antonio Alustizak eta Ttiki txakurrak bikote paregabea osatzen dute eta horrela erakutsi dute berriz ere, batak aginduak eman eta besteak ederki burutuz. Irailaren 23an Oñatin erakustaldi ederra eman zuten, Nazioarteko txapela hirugarren aldiz lortuz. Ez zuten oso egun ona izan, haizea eta beroa egiten baitzuen, baina hori ez zen aitzakia izan eta elkarlan ederra egin zuten; lehen frogan lehenak suertatu ziren eta bigarrenen ere lan bikaina egin zuten, txapel famatua irabaziz. Badirudi Nafarroako Txapelketan ez dutela areriorik 9 aldiz txapel-dun izan baitira, eta era berean Oñatiko txapelketa handian ere indarra hartzen ari dira.

## Ikasturte berria

Herritarrak gauzak egiteko gogoarekin hasi dute ikasturtea eta hainbat ikastaro antolatu dituzte. Alde batek, eskulanak eta gauzak zaharberritzeko ikastaroa antolatu da. Taldea osatuta dago jada, baina norbaitek oraindik apuntatu nahi balu Oihana Nietorekin jar dadila harremanean. Beste aldetik, antzerki taldea osatu nahi da; ongi pasatzeko eta barre egiteko aukera pa-



UTZITAKO ARGAZKIA

## Tomate uzta ederra aurtengoa

Izugarrizko tomate urtea izan da aurtengoa, gainera tomate mota ezberdin gehiago egiten ari da jendea. Batzuk oso handiak egiten dira eta Areson 1,4 kiloko bat ere hartu dute Bide Ondoko Nieto familian. Argazkian beraien baratzean bildutako beste tomate eder batzuk ageri dira.

regabea, herrian pasatuko gauzak berritu nahi dira eta memorian gorde lehengo bizimodu eta pasarteak gaurkora ekarriz, besteak beste.

Azkenik, helduen dantza ikastaroa antolatzen ari dira, honen helburua herriko festetan aktuazio bat prestatzea izango da eta bi-

tartean euskal dantzak ikasi eta kirol pixka bat egiteko aukera ederra dugu! Lorea Onsalo eta Mirian Lasartek erakutsiko dute eta apuntatzeko orria Sastinean dago. Animatu parte hartzera eta agenda bat ere erosi, hauek denak egiteko agenda betearekin ibili beharrak gara aurtengoan eta!

# LEITZALDEA

**EUSKARA** → DIRULAGUNTZAK

# Euskalduntzen edo alfabetatzen ari direnei dirulaguntza emanen die Mankomunitateak

Eskaerak urriaren 5erako aurkeztu behar dira

**TTIPI-TTAPA**

Euskalduntzen edo alfabetatzen ari diren he-

rritarrei diru laguntzak emanen dizkie Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak. 2011ko irailaren 1etik 2012ko abuztuaren 31ra arte egindako ikastaroen matrikuletarako ematen du laguntza, estentsiboak, trinkoak, barne-

tegiak, informatika bidezkoak izan eta oro har Balorazio Batzordeak onesten dituenak. Laguntzaren zenbatekoa gastuaren %50ekoa izanen da gehienez ere, eta ikasturtean langabezia egondakoentzat %100ekoa izanen da lagun-

tza. Halere, diru laguntzaren onuradunek ezin izanen dute 640 euro baino gehiagoko laguntzarik jaso deialdi bakoitzeko eta kilometrajea ez da diruz lagunduko.

Eskabideak urriaren 5era bitarte aurkeztu ahal dira, Iparraldeko

Mankomunitateko erregistroan edo dagokien herriko udaletxe edo euskara zerbitzuan. Eskaera aurkezteko Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea osatzen duten herrietan erroldatua egotea ezinbestekoa izanen da.

# BAZTAN

HERRIKO BESTAK → LARUNBATETIK ASTELEHENERA

## Larunbat eguerdian botako dute Anizko beste hasiera emanen dien altxaferoa

Larunbatean gantorri autobusa ibiliko da

### TTIPI-TTAPA

Anizko Arrosarioko Amabirjinaren beste ize ailegatu zaie beraien txanda. Asteburu honetan ospatuko dituzte, larunbatean hasi eta astelehenera bitarte. Hiru egunez otordu, musika, dantza, txapelketa eta ginkana artean ongi pasatzeko aukera ederra izanen dute aniztarrek. Aipatu, bertzetik, larunbatean gantorri autobusa ibiliko dela Baztanen herriz herri.

### URRIAK 6, LAUNBETA BEZPERA

- 12:00etan ezkil jotzea, altxaferoak botako dira herriko trikitalariak alaituta.
- 13:00etan haurren dantza bazkaria.
- 15:30ean puzgarriak.
- 18:00etan txokolatetea.
- 20:30ean Mutildantzak.
- 20:45ean Baztan Zopak.
- Ondotik dantzaldia AGERRALDE akordeolariarekin.
- Akitzeko, xingar jatea.

### URRIAK 7, IGENDIA

#### ARROSARIOKO AMABIRJINAREN EGUNA

- 11:30ean Iratxe eta Joñe txistulariekin kalejira.
- 12:00etan Meza Nagusia.
- 13:00etan otordua.
- 18:00etan Iruña dantza taldearen emanaldia.

- Ondotik, Jaione akordeolariarekin dantzaldia.
- Akabailan, afaria.

### URRIAK 8, ASTELEHENA ADISKIDETASUN EGUNA

- 11:00etan mus txapelketa.
- 14:00etan zikiro jatea, JOXEANJELe alaituta.
- 17:00etan ginkana.
- 21:00etan xingar jatea.
- Akitzeko Gizajoa ni.

### Udal langileak euskara ikastaroan

Ikasturte berria hasita, Udaleko hamabi langile joan den urtean hasitako euskara ikastaroarekin segituko dute urritik aitzinera. Ikastaroa NAPIko teknikariak emanen dute eta 30 orduko iraupena izanen du, astean bi orduko saioetan banatuta. Ikastaroaren xede nagusiak naturaltasuna, argitasuna eta irakurgarritasuna helburu duten testuak ekoiztea eta kalitateko testuak sortzeko oinarriko irizpideez jabetzea izanen dira.

### Irurritako ur hornidura sarerako dirulaguntza

Nafarroako Gobernuak zenbait udalerriren tokiko azpiegiturak hobetzeko inbertsioak onartu ditu eta horien artean, Iruritan ur hornidurarako Irurita Soluzioaren bigarren faserako 365.194 euroko inbertsioa egitea onartu du. Horretarako, 278.538 euroko dirulaguntza emanen du Gobernuak.



ARGAZKIAK: MAITANE MARITORENA

Hiru egunez besta giroan murgiltzeko aukera izanen dute aniztarrek asteburuan.

Ur bilketa berria egiten da Iruritari eta egun soluzio horretan dagoen Lekarozki ur-hornidura handitzeko. Aipatzekoa da, uda honetan ur-hornidura arazo larriak izan dituztela bi herrietan, baita mozketak eta murrizketak ere. Gainera, etorkizunean soluzio honetkin bat egiten dute Garzain, Ziga, Zigaurre eta Arraiozek ere.

### Kultur agenda

Hainbat kultur ekitaldi izanen dira hilabete honetan. Ortziralean, urriak 5, Ana Ananda eta Iziar Muñozen margo erakusketa zabalduko dute

Arizkunenean eta urriaren 25era arte ikusgai egonen da.

Urriaren 11n kantaldia izanen da Arizkungo Xubiltz Elkartearen. *Gezitik Gazira* olerki musikala eskainiko dute Xabier Soubelet (ahotsa eta gitarra), Nat Cazarre (gitarra) eta Andreas Eichnerrek (flauta). 19:30ean hasiko da.

Urriaren 13an Baztango artisauen azoka izanen da Elizondon.

Urriaren 21ean *Xentimorik gabe* antzerkia ikusteko aukera izanen da Irurritako Damaso Zabalza Bilgunean, 19:00etan eta hilaren 28an Pottoka & Eskortzek eta Iñigo Belzunegik kantaldia eskainiko dute Arizkunenean, 12:00etan.

**Arizkuneko zapataria**  
 (Jena, Regin, Puzgarriak)  
 944 635 36 52 92 - herrikoak@gmail.com  
 Mousino Berrihotzena Kalea, 12  
 31700 Elizondo - Baztan.






Ordoki industrialdea | ARIZKUN  
Tel. 948 453 259 | Fax. 948 453 423  
betikopvc@betikopvc.com  
www.betikopvc.com

# **%58** ko **aurrezpena**

Gure sistema berriarekin **%58ko AURREZPENA**  
lortuko duzu zure etxean



**ETORRI GURE INSTALAZIOAK ETA GURE SISTEMA BERRIA IKUSTERA!**  
Leihoak | Kontraleihoak | Sarrerako Ateak | Itxidurak | Pertsianak | Moskiterak

# BAZTAN

HERRIKO BESTAK → URRIAREN 11TIK 14RA

## Pilarika bezperako txupinazoarekin hasiko dira lau eguneko bestak Gartzainen

Larunbat eguerdian herri kirol apustua jokatu da

### TTIPI-TTAPA

Asteburu honetan Anizen izanen dituzte bestak, eta hurrengo asteburuan Gartzaingo Pilarika bestek hartuko dute lekukoa. Lau egunez adin guztietako jendearendako bestak prestatu dituzte. Bide batez, aipatu, zopetarako eta zikiro jaterako txartelak Fransene eta Kortarixar ostatueta daudela salgai eta urriaren 5a izanen da erosteko hondarreko eguna.

### URRIAK 11, ORTZEGUNE PILARIKA BEZPERA

- 17:00etan txupinazoa eta ezkil jotzea.
- 17:30ean mus zimizte txapelketa.
- 21:30ean Baztan Zopak trinketea.
- 00:30ean gaupasa KUPELA taldearekin.
- 07:00etan zinger jatea.

### URRIAK 12, ORTZILERIA PILARIKA EGUNE

- 10:00etan dianak eta

argisoinuak.

- 12:00etan Meza Nagusia Aixteiko ermitan.
- Ondotik, luntxa.
- 14:00etan gazte bazkaria.
- 19:30ean triki bertso poteoa herrian barna.
- 22:00etan tortillajatea.
- Ondotik dantzaldia AGERRALDErekin.

### URRIAK 13, LAUNBETA HERRITARREN EGUNE

- 10:00etan dianak eta argisoinuak.
- 11:30ean herri kirol apustua.
- 14:00etan zikiro jatea.
- 18:00etan dantzaldia MIKEL SALABERRIrekin.
- 21:30ean Mutildantzak.
- 22:00etan pintxoak afaltzeko.
- Ondotik dantzaldia.

### URRIAK 14, IGENDIA HAURREN EGUNE

- 10:00etan dianak eta argisoinuak.
- 14:00etan haurren bazkaria.
- 17:00etan haurrendako jokoak eta puzgariak.
- 18:30ean haurrendako txokolatada.
- 20:30ean tortilla jatea eta besten akabera.



ARGAZKIAK: GARAZI ARRETXEA

Kirola eta besta bateratzeko aukera ederra izanen da urriaren 11tik 14ra izanen diren Gartzaingo bestetan.



ARGAZKIA: MAKI URTASUN

### Abesbatza ttikia lanerako prest

Ikasturte berria prestatzeari ekin dio Elizondoko abesbatza ttikiak. Eta izena emateko bi aukera zabaldu dituzte: asteazken honetan, urriak 3, Iruritako eskola zaharrean 18:30ean. Eta bertzela, 620 228455 telefonoan ere apunta daiteke.



**Suteela-Zaldain**  
Instalazioak

**IGOGAILUEN INSTALAZIOA**  
**AROTZEGI METALIKOA**  
**TOLDOAK**

Santiago, 71  
31700 ELIZONDO  
T. 948 580 166  
F. 948 452 557  
M. 619 424 999 - 649 699 820



GIZARTEA → DANTZAK EZTABAIDAN

## Elbeten emakumeak bestatik baztertu dituztela salatu du Bilduko Udal Taldeak

Orain arte irekiak izan diren dantzak pribatizatu dituztela dio

### TTIPI-TTAPA

«Aurtengo Elbeteko bestetako egun nagusi-an Bilduko ordezkariak ez dugu bertan egoterik izan Elbeteko alkateak bere kargodunekin, emakumeak bestatik baztertzeko hartu duen neurri espresagatik». Hala adierazi du Bilduko udal taldeak prentsa-ohar bidez.

Bilduren oharrak dioenez, alkatea udaleko berdintasun teknikariari «modu txarrean eta zakarki mintzatu zitzaion» eta ondotik, Baztango alkateari «emakumeak egun nagusiko mutil-dantzatik baztertzeko, mutil-dantza beraiek antolatutako dantza taldeak soilik dantzatuko zuela» jakinarazi zion. Gisa honetara, Bilduren erra-

netan, «orain artio irekiak izan diren dantzak pribatizatu dira eta, maila bat gorago eramanez, bazterketa bera ofizializatu-zu».

Bilduren udal taldeak uste du ez dela «bazterketa hori babesten duen ekitaldi instituzionalean» egoten ahal eta ez duela «dantzen ikuspegi pribatizatzaile eta patrimonizatzaile horrekin» bat egiten ahal, «are gehiago, kontuan hartuta aitzineko urtean Elbeteko bestetan mutil-dantzetan parte hartu zuten neskek jasan zituzten erasoak eta entzun behar izan zituztenak: *hijas de puta* eta zernahi gauza».

Bilduko udal taldearen irudiko: «ez da inondik ere onartzen ahal berri ere emakumeak zikiro jateetatik, kinto bestetatik, inauterietatik, bestetatik edo dantzetatik baztertuko duten ekitaldirik eta besta programarik».

## Elizondoko inauterietan tortura parodiatzeagatik ortzegun honetan Elizondoko lau gazte epaituko dituzte



UTZITAKO ARGAZKIA

Hainbat lagun joan ziren lehengo astean Iruñera, epaituei elkartzasuna adieraztera.

Hainbat euskal herritarrek polizien aldetik jasan zituzten torturak salatze asmoz, 2010eko inauterietan torturen parodia egin zuten hainbat lagunek. Bada horregatik, Elizondoko lau gazte epaitzekoak zituzten joan den astean Iruñean. Azkenean, ordea, epaiketa bertan behera gelditu zen Fiskalak bukaerako ondorioetan kalifikazioa aldatu zuelako. Hasiera batean, kolumnia delituengatik zortzi hilabeteko espetxe zigorra eskatzen zuen lau gazteentzat, eta joan den astean, berri, irain gisa kalifikatu eta bakoitzarentako 5.400 euroko isuna eskatu zuen. Defentsak indefentsioa eragin zitzaiola argudiatuta, bertan behera uzteko eskatu zuen eta epaileak onartu egin zion. Ortzegun honetan, urriak 4, epaiketa berria egingen da, 13:30ean.



### Xalbadorren bertsoak Amurizaren ahotik

Kultura Batzordeak antolatuta, Xabier Amuriza Arizkunenean izan zen irailaren 23an. 75 lagun inguru hurbildu ziren Xalbadorrek bat-batean bertso saioetan kantatu zituen bertsoak aditzera. Bertze anitzen artean, 1967ko txapelketan txistuak jo aitzinetik eta ondotik kantatutako bertsoak aditzeko aukera izan zen Amurizarekin.

**ANZABAL INMOBILIARIA**

- Zuzen Anzabal Auzo, Erretxita, Iruñe eta Nafarroa eremuetan.
- Lan-eremuetan: Iruñe eta Aragoi eremuetan.
- Alkotatutako etxeak: Erreale, Gaiñza, BEZA...
- Inbentarioa: Baserri, berrak, zino, etab... salmenta eta alkatariak.
- Zuzenak.

Santiago, 15 • ELIZONDO • T.F. 948 580 804  
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

**IPARLA**  
kirolak

tipti barata

**%8ko**  
DESKONTUA  
30€tik gorako gastuan

# BAZTAN

ABELTZAINZA → PIRINIAR ARRAZAKO BEHI-AZIENDAK

## Iruritara joan dira Baztango zezenko eta urruxa onenaren sariak

250 behi  
azienda baino  
gehiago  
aurkeztu dira

### TTIPI-TTAPA

Aurten 25. edizioa bete duen piriniar arrazako behien estatu mailako lehiaketa-entekantea egin zen Elizondon irailaren 21etik 23ra. Nafarroa eta Bizkaiko aziendek lortu zituzten sari gehienak. Tartean, Irurritako Xorneako Teodora Mitxelenak lehenbiziko sari bat eta bi sari berezi eskuratu zituen.

Gehienbat Euskal Herrian hazten diren azienak izan ziren ikusgai Elizondon eta joan den urtean baino guttixeago izan arren, 35 abeltzainek 205 buru lehiaketara aurkeztu zituzten eta bertze 47 salgai paratu zituzten, baina enkan-teak ez zuen arrakasta handirik izan.

Baserritar bakoitzak kategoria bakoitzera bi buru aurkezteko aukera izan zuen eta lehiaketan parte hartzeko azienak hamar kategoriatan sailkatu ziren. Denetara 60 batsari banatu ziren, eta tartean batzuk eskualdean gelditu ziren.

4 urtetik goitiko zezenkoetan, erraterako, Irurritako Teodora Mitxelenak hirugarren postua eskuratu zuen.

8-18 hilabeteko urru-xen artean, berriz, lehen-biziko saria eskuratu zuen Irurritako Teodora

Mitxelenak eta Arizkungo Isabel Agirrek bosgarrena.

18-24 hilabeteko urruxetan, Arraiozko Isabel Laurnaga laugarren gelditu zen. Eta 2-3 urtekoetan, Erratzuko Juan Jose Iñarreak hirugarren postua eskuratu zuen. 3-4 urteko umatuen artean, Teodora Mitxelenak bigarren izan zen.

Sari bereziak ere banatu ziren eta horien artean, Baztango urru-xarik eta zezenkorik onenen sariak Irurritako Teodora Mitxelenak lortu zituen.

### GASTRONOMIA LEHIAKETA

Iaz bezala, gastronomia jardunaldien baitan, lehiaketa izan zen eta Baztango aretxe pintxo, salda eta busti onenak saritu zituzten. Sari nagusi gehienak Oronoz-Mugairiko ostatu-jatetxeek lortu zituzten. Pierresena-jatetxeak busti eta salda onenen sariak lortu zituen. Ongi Etorri ostatuak Nafarroako Aretxea izeneko sari berezia eskuratu zuen, produktu eskaintza orokor onenagatik eta, bigarren urtez segidan, pintxo onenaren saria ere eskuratu zuen. 16 ostatu eta jate-txek parte hartu zuten.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Behien lehiaketako sarituak, sari banaketaren ondotik.



ARGAZKIAK: MAITANE MARITORENA ETA TOTU ITURZAETA

### Euskaraz bizitzeko nahiaren aldarria

Euskal Herriko herri anitzetan bezala, Baztanen ere euskaraz bizitzearen nahia aldarri bihurtu zuten ehunka lagunak Elizondoko karriketan. 206 lagun aritu ziren lasterka, horietarik 129 haurrak, eta 78 gazte eta helduak. Lasterkarietz gain jendetza bildu zen ikustera. Helduetan, emaztekietan, Maria Mendiburuk irabazi zuen, Noemi Martirena bigarren gelditu zen eta hirugarren Patricia Leiza. Gizonkietan, Alberto Barberena nagusitu zen, Iñaki Telletxea bigarren eta Haritz Gaztelu hirugarren. Irabazleek txapela, gasna, ardo botila bat eta diploma eskuratu zituzten, bigarrenek bi ardo botila eta diploma eta hirugarrenek ardo botila bat eta diploma. Sari banaketaren ondotik opari ederrak zozketatu ziren eta kale antzerkia ere izan zen. Honat ere jende anitz hurbildu zen ikustera. Bertzalde, irailaren 20an *Euskaraz bizi nahi dut* solasaldi interesgarria eskaini zuen Iñaki Lasa Kontseiluko kideak. Hizkuntza politika berri bat izan zuen hizpide. Gisa honetara, baztandarrek ere euskaraz bizi nahi dutela argi eta garbi erakutsi dute.



## SOULE

hileta artea

Tfnoa: 948 453 444

Mug.: 629 659 583

ARIZKUN





BESTA ETA KIROLA → LARUNBAT HONETAN

## Arizkungo errebesten barne helduen binakako lasterketa egingen da larunbatean

Eguerdian bazkaria izanen da eta ondotik dantzaldia

### TTIPI-TTAPA

Berrikuntzekin heldu dira larunbat honetan, urriak 6, Arizkunen ospatuko diren errebestak. Nobedade nagusia goizean egingen diren lasterketak izanen dira. 10:00-etan haurren lasterketa egingen da eta ondotik, helduen bikotekako lasterketari emanen zaio hasiera. 12:00etan, berriaz, mus txapelketa jokatu da frontoian eta ondotik, 14:00 aldera, bazkari herrikoia egingen da toki berean. Txartelak 15 eurotan eros daitezke Dolaetxean, eta 12 urtetik behetik ondako 10 eurotan egon dira.

Bazkaldu ondotik, musika izanen da.

### Giltxaurdi lanean

Giltxaurdi kirol instalazioak enpresa pribatu izatetik publiko izatera pasatu dira eta orain arteko kudeaketa Masquatro enpresak egiten bazuen, orain bide publiko egingen dute. Gerente berria hasia da lanean, Luis Alberto Duran arabarra da, eta pozik eta gogotsu hasi du ibilbide berria. Gisa berean, aipatu, irailaren 26an lehenbiziko aldiz bildu zela Giltxaurdi enpresa publikoaren administrazio kontseilua, Garbiñe Elizegi, Mikel Ortega, Iñigo Iturralde, Maite Iturre eta Isabel Olabe udal ordezkariak eta kirol teknikariak eta kudeatzaileak osatua. Orain arte egingakoak azaltzeaz gain, instalazioen egoera izan zuten hizpide. Eta ikasturte berriko ekintzak eta bonoen prezioez ere aritu ziren. Giltxaurdi enpre-



ARGAZKIAK: BAZTAN FILMA ETA ONDIKOL

### Baztan pelikula zinema aretoetan

Irailaren 24an estreinatu zen agoteen inguruan egin den *Baztan* filma Donostiako Zinemaldian. Eta behin agerpen nagusia eginda, ortziral honetatik aitzinera, urriak 5, Euskal Herriko zinemetan ikusteko aukera izanen da.

sa publikoaren kontularitza kanporatzeko proposamena ere mahai gainean paratu zen, baita hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ere. Udalak kiroldegiko materiala erostez ere solastu ziren. Gaur egun, 999 bazkide ditu Giltxaurdik, eta kudeatzailearen helburuetako bat bazkide kopurua haunditzea da.

### Eskolara oinez, doike!

'Kalera oinez, doike!'

kanpainak aitzinera segitzen du. Amaiur eta Oronoz-Mugairiko herrietan paratu nahi dute orain martxan eta eskolarako bideekin hastea erabaki dute, etxetik eskolara eta eskolatik etxerako joateko. Bide horiek segurua goak, osasuntsuagoak, atseginagoak eta erakargarriagoak egin nahi dituzte, umeak oinez edo bizikletaz joateko aukera edukitzeko. Horretarako Udala, eskolako ume eta gurasoak, Osasun

Etxea, eskola, udaltzaingoa eta Nafarroako Ingu-rumen Arloko Baliabide Zentroa elkarlanean ari dira. Dagoeneko bilerak egin dituzte, inkestak bete dituzte eta tailerrak ere egin dituzte, baita bideak aztertu ere. Orain, herri bakoitzean bilerak antolatu dituzte: Amaiur-ron eta Oronoz-Mugairin ortzegunean, hilak 4, bilduko dira. Amaiur-ron 15:30ean Otsondo Elkartean eta Oronoz-Mugairin 17:30ean eskolan.

**ANYXTIONA**  
Inmobiliaria

Arizkuna

Berritu Iturre 16, Elizondo • 948 591 807 • 948 581 853  
berritu@anyxtion.com • www.anyxtion.com

**homeopatía**  
KONTSULTA BERRIA ELIZONDON  
JUAN MARTIN BALLESTERO  
Mediku Homeopata

Tfnoa: 633 767 609 - Santiago: 58 behea - Elizondo

**MENDI**  
ostatua

Santiago 25  
948 500 312  
ELIZONDO

**CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE**  
abokatu

Santiago, 39 20 - ELIZONDO  
T. 948 593 441 M. 630 364 810

**MENDIA**  
ostatua

T. 948 453 050 - AMAIUR  
www.mendiostatua.com

## ZUGARRAMURDI

GIZARTEA → URRIAN EGINEN DIRA GRABAZIOAK

# Alex de la Iglesia zuzendariaren pelikulak zalaparta sortu du herrian

500 extra behar ziren baina casting egunean 912 lagun hurbildu ziren herrira

### Koro eta Margari

Sekulako zalapartean dugu herria udatik hurat. Alex de la Igle-siaren pelikula dela eta, ez dugu aspertzeko astirik.

Zuzendaria bera bes-tetan hemen barna ibi-li zen bazterrak ezagu-tzen, eta horien artean

Barrantxean ere egon zen, aspaldiko Grazia-naren etxea ezagutze-ko ilusionea baitzuen. Kontent atera omen zen Barrantxetik, marmita-ko plater pare bat jan ondotik.

Irailearen erdi aldera *castinga* izan ginuen: 500 extra behar zirela, eta hara sorpresa, 912 lagun etorri baitziren herrira. Hementxe gau-de orain, ea nor hauta-tu ote duten esperoan.

Eszenaren batekoz «gargantua» behar omen zuten, eta hori ere Bilbotik hartu eta hurat ekarri zuten. Plazan zeu-



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Casting-ean parte hartu zuten «aktoreek» errelodo luzean esperatu behar izan zuten.

den kotxe guztiak ken-du behar izan ziren trail-ler animale batean eka-rri baitzuten, eta hantxe Sartzarrean emana du-te.

### GRABAZIO LANAK URRIKO LEHEN HAMABORTZALDIAN

Eta orain, urriaren le-henbiziko hamabortzal-dian grabazioak di-tugu. Lehenbiziko as-tean herriko hainbat txo-kotan egin beharrak di-tuzte, eta bigarren ha-

mabortzaldian, berriz, lezeko eszenak. Leze-ko hauek gauez izanen dira, ilunabarretik goi-zalderat, eta hauetan parte hartuko dute ai-patutako extrek. Hauen-dako autobusak jarri be-har dituzte inguruko he-rrietatik Zugarramurdi-rat ekartzeko.

Hau guztia dela eta, lezea etsita egonen da urriko lehenbiziko bi-as-te horietan. Horren or-dez, eta museoa ireki-ta egonen denez, bisi-

ta gidatu berezi batzuk eskainiko dire. Beraz, zerbait diferenta ikus-teko aukera izanen da.

Bertzalde, eta nahiz eta gure hau sorginaren herria bezala ezaguna den, usaian gauez ez da 'martxa' haundirik izat-en. Jatetxe guti egoten dira irekita, eta osta-tuak goiz esten dituzte, bainan urriko egun hauetan gaueko zerbi-tzua luzatuko dute, jen-de andana etortzea es-pero baita.

## TURISMOA

DIRULAGUNTZAK → NAFARROAKO GOBERNUAREN ESKUTIK

# Turismoko enpresa tiki eta ertainei dirulaguntzak eman dizkie Gobernuak

Berrikuntza lan eta altzariei dagozkien laguntzak dira

### TTIPI-TTAPA

Turismo arloan ari di-ren enpresa tiki eta er-

tainei dirulaguntzak eman dizkie Nafarroa-ko Gobernuak. Nafarroa osoan, guztira 398.744 euro emanen ditu 31 enpresen artean bana-tzeko. Alde batetik, es-tablezimenduetan egin-dako berrikuntza eta mantentze-lanetara bi-

deratutako laguntzak di-ra eta bertzetik, altza-rietan nahiz ekipamen-duetan egindako inber-tzioak laguntzeko.

Dirulaguntza jasoko duten enpresen artean, badira batzuk eskual-dekoak: Lesakako Atxaspi hotela, Urdazu-

biko Irigoiena hostala eta Oronozko Salazar ostatua, Zigako Etxezu-ria landetxea, Azpilkuetako Labakia eta Laba-kizarra landetxeak, Erra-zuko Kastonea I eta II apartamentuak eta Arantzako Aterpe eta Bertizko aterpeak.

2011ko azaroaren 16tik 2012ko azaroaren 15era bitartean eginda-ko obrak subentziona-tuko dira eta deialdia-ren onuradunek azaroa-ren 15era bitarteko epea izanen dute egindako inbertsioa justifika-tzeko.



**Arantxa Arregi**, Cederna Garalur elkarteko Bidasoaldeko garapen agentea

## “Negozioak sortzeko ideiak dituzten ekintzaileak erakarri nahi ditugu Alkaiagako Enpresa Zentrora”

Lesakako Udalak eta Cederna Garalur elkarteak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute, Alkaiagan kokaturik dagoen enpresa-zentroa kudeatzeko aldera. Zentroak bulegoak eta nabeak eskainiko dizkie ekintzaileei eta prestakuntza-programak eta topaketak ere antolatuko ditu. Arantxa Arregi garapen agenteak eman digu honen berri.

### **Enpresa zentroak zer eskainiko die enpresa eta ekintzaileei?**

Negozioak sortzeko ideiak dituzten ekintzaileak erakarri nahi ditugu, hauei laguntzeko enpresa sortzeko prozesuan zerbitzu integrala eskainiz. Bestalde, dagoeneko martxan dauden enpresei bideraturik, merkatuan sartu eta lehiakortasuna hobetzea bultzatzeko aholkularitza lanak eskaintzen ditugu.

Gainera, enpresa-jarduerarekin lotura duten hainbat arlotan espezializatutako zerbitzu teknikoak emateko prestatuak gaude garapen agentziaren barruan.

### **Zer helburu du Cederna Garalurrek eskaintza honekin?**

Cederna Garalurrek lurralde diagnostikoak egin ditu gaur egungo egoera aztertuz eta horrela, argi gelditu da autoenplegua irtenbide bat izan daitekeela. Horregaitik, eskaintza honekin hemen go ekintzaileei bultzada bat eman nahi diegu ehun ekonomiko zein teknologikoaren aitzinean berme handiagoz lehiatu ahal dezaten. Proiektuak sortu, indartsu eta sendo hazi eta sustraitzeko.

### **Bulegoak, nabeak... errentan emanen dituzue prezio onean eta lehenbiziko urteetan, gainera, prezio hori murriztagoa izanen da...**

Ikusita lehendabiziko bizpahiru urteak



Arantxa Arregi garapen agentea, Alkaiagako Enpresa Zentroaren atarian.

inbertsio gogorrak eskatzen dituela edonolako egitasmo enpresarialak, lagungarria iruditzen zaigu gastu fijo hauek murriztea. Horregaitik prezio duinak markatu ditugu eta lehendabiziko urtean, tarifaren %50aren deskontua egingen zaie ekintzaile guztiei. Bigarren urtean berriz, % 25eko izanen da.

### **Prestakuntza programak eta topaketak ere egingen dira...**

Bai, lehiakortasuna gogorra dela eta, elkarlana ezinbestekoa ikusten dugu gaur egungo merkatuan tartea lortzeko. Formazioa, bestalde, printzipio moduan hartu beharreko adarra da. Erabateko hobekuntza profesionala barneraturik eduki behar du gaur egungo ekintzaileak. Horregaitik prestakuntza programa berezia landu dugu autoenpleguaren inguruan, teknologia berriak ematen dituen abantailak argituz, jardunaldi desberdinak antolatuz udazken honetan, etabar...

### **Informatika lantzeko aretoa ere eskainiko duzue... Zein baliabide izanen ditu?**

Aretoan 10 ordenagailu ditugu internetera konektaturik. Areto hau, gure formakuntzak emateko erabiliko dugu eta nahi duenak, alokatu lezake ekintza desberdinetarako.

### **GARAPEN AGENTEAK**

**Arantxa Arregi**,  
606 43 13 57 [bidaso@cederna.es](mailto:bidaso@cederna.es)

**Izaskun Abril**,  
606 40 86 13 [baztan@cederna.es](mailto:baztan@cederna.es)

**Elena Irigoien**,  
617 60 93 28 [lekunberri@cederna.es](mailto:lekunberri@cederna.es)

**Cederna Garalur**  
Alkaiaga Industrialdea, Alasta 2B  
Orduetgia: 09:00 / 16:00  
948 62 51 22  
[bidaso.admon@cederna.es](mailto:bidaso.admon@cederna.es)



# SENPERE

BERTSULARITZA → HIRUGARREN ALDIZ XILABA

## Iparraldeko bertsu xapelketako finala hazilaren 10ean jokatu da Baionan

Lehenbiziko kanporaketa larunbatean jokatu da

**Franck DOLOSOR**

Ipar Euskal Herriko hirugarren bertsu xapelketa urriaren 6tik azaroaren 10erart ospatuko da aurten. Senperen, Larraldeko baserrian, beren egoitzan egin zuten aurkezpenean Bertsularien Lagunak elkarteko ki-deek jakinarazi dute aldi huntan orotaratzat bortsu bertsu saioa egingen direla: bi kanporaketa Altxürükün (urriak 6) eta Kanbon (urriak 13an); bi finalerdi Hendaian (urriak 20) eta Donibane Garazin (urriak 27); eta azkenik, final handia azaroaren 10ean Baionako Luga kirol gelan, eta ez Donibane Lohizunen aitzineko bi edizioetan bezala. Iparraldeko hiriburu euskara hutsezko kultura ekitaldia garrantzitsutzat eta desafiotzat hartzen dute bertszuleak.

Aurten 16 bertsulari lehiatuko dira, erran nahi baita orain arte baino pixka bat gutiago, baina hauen artean bortsu nor baino nor ariko dira lehenaldikoz. Amets Arzallus, Odei Barroso eta Sustrai Colinarekin gain, Azkaineko Murua hiru anaia-arreba agertuko

dira taulen gainean. Bertsulari gehienak bertsu eskoletatik iragan dira, eta preseski irakaskuntzan indar handia ematen du Bertsularien Lagunak elkarteak. 2008an, Iparraldeko bertsu xapelketa jokatu zenetik 23 taldetan banatuak diren ikasleen kopurua bikoiztu da eta aurten 140 bertszule baino gehiago biltzen dira Iparralde osoan barreatuak diren bertsu eskola horietan. Bertsulariez gain, gai emaileak, antolatzaileak edo entzuleak formatzea da elkartearen helburua.

Joana Itzaina Bertsularien lagunak elkarteko buruaren erranetan, «lehen bertszularitza ez zen biziki erakargarria gazteentzat bainan gauzak aldatzen ari dira eta orain harrotasuna agertzen da bertszuen inguruan». Itzainaren ustez, «euskarak irauten badu bertszuari esker da neurri handi batean». Euskararekin gozaten eta jostatzen ahal dela erakutsi nahi dute aurten ere: «helburu nagusia ez da lehiatzea xapelaren itzala haunditzea baizik, etagisa hortan parte hartzen duten guzietan xapela andana banatzea nahiago dugu», dio Itzainak.

Aurten ere, Amets Arzallus ilusioa eta plazerrarekin agertuko da xapelketan. Hendaianrak dio «kolektibo ba-



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Amets Arzallus, Iparraldeko xapelkunak parte hartu zuen Senperen egin zen Xilabaren aurkezpenean. Ondoan ziren Maurice Agerretxe eta Joana Itzaina Bertsularien Lagunak elkarteko kideak eta Maite Tolosa Kutxako ordezkaria, hunek diruz sustengatzen baitu xapelketa.

ten partaide» sentitzen dela eta hortik «elikatzen duela ilusio pertsonala». Aski ongi oroitzen da irabazi dituen aitzineko bi edizioez eta orduko grianaz. Bere idurikoz, «errezagoaz behar bada xapelketa sortzea eta hasatea orain irautea baino». Xapelketa bi urtero ospatzea ongi iduritzen zaio Euskal Herriko xapelkunordeari «euskara kinkalarran baita, hil ala biziko egoeran». Lehiakideen kopuruaren apaltzeak ez du batere kezkatzen, kopurua baino kalitatea nahiago baitu begiratu. Egia erran 2008an Iparraldeko bertsu xapelketa sortu zenetik bertszularitzak eta bertszuen mailak urrats handia egin dute aitzinera eta bide hortan segitzea espero dute orain Euskal Herriko bertszuleek.

### BERTSULARIAK ETA SAIOAK

Larunbatean, urriak 6, Altxürükün jokatu da lehenbiziko kanporaketa, herriko gelan, 17:00etan. Sei bertsulari ariko dira: Ortzi Murua (Azkaine), Ortzi Idoate (Baiona), Maindi Murua (Azkaine), Maddi Ane Txopereña (Hendaia), Xan Alkhat (Armendaritze) eta

Egoitz Zelaia (Hendaia).

Urriaren 13an bigarren kanporaketa jokatu da Kanboko Aiec gelan, 17:00etan. Xumai Murua (Azkaine), Maddi Sarasua (Itsasu), Ramun Saro Christy (Aiherra), Battit Crouspeyre (Baigorri), Bixente Hirigarai (Baigorri) eta Gillen Hiribarren (Itsasu) ariko dira.

Lehen finalaurrekoa Hendaiaiko Varieties zinemari jokatu da hilaren 20an, 17:00etan. Amets Arzallus (Hendaia) eta Eneitz Zabaletarekin (Baiona), kanporaketatik sailkatutakoek parte hartuko dute.

Bigarren finalaurrekoa urriaren 27an egingen da Donibane Garaziko Vautban zinemari, 17:00etan. Odei Barroso (Urruña) eta Sustrai Colinarekin (Urruña) batera, kanporaketatik sailkatutakoak ariko dira.

Xehetasun gehiagorentzat: [www.xilaba.net](http://www.xilaba.net).

### Argazki lehiaketa

Argazki lehiaketa abian da aurten ere eta aldi huntan bada 500 euro irabazteko parada. Arranoa elkarteak eta Herriko Etxeak apailatu dute zoi gehiagokaren gaia bidaia da. Urriaren 31 aintzin aurkeztu be-

har dira argazkiak eta gero erakusketa batean agertuko dira otsailaren 15era arte Herriko Etxeko sartzean.

### Urrezko Ezteiak

Urrezko Ezteiak ospatu dituzte berriki Danielle eta Grégoire Urrutia herriarrek. 50 urte elgarrekin bizi direla ongi markatu dute meza batekin Oletan eta bazkari batekin gure herriko ostatu batean.

Bertzalde, 1952an sortu diren herriarrek klaseko biltzarra izan dute berriki Ttotta ostatuan Ibarren eta 35 urte betetzen dituzten senper-tarak elgarretaratuko dira beren aldetik ondoko egunetan. Xehetasunak ondoko TTIPI TTAPAN.





ABELTZAINZA → ANIMALIEZ GOZATZEKO AUKERA

# Gisa aunitzetako animaliak ikusteko aukera larunbateko Animalien Bestan

10:00etan kiroldegiko atek irekiko dituzte

### Joana GUERENDIAIN

Larunbat honetan, urriak 6, animalien besta iraganen da. Horretarako, goizean, 10:00etatik landa atek irekiko dituzten kiroldegian. Besta hori animaliak deskubritzeko aukera da, etxeko eta baserriko animaliak, baita salbaiak ere: erleak, harriariak, sagu zaharrak eta bertze ainitz. Horrez gain, txakur bat adoptatzeko aukera ere proposatua izanen da, erakusketak eta demostrazioak ere eginen dira, haurrentzako jokoa izanen dira eta tokiko produktuak deskubritzeko parada ere bai.

TTIPI-TTAPAren lehenagoko zenbaki batean aipatu bezala, baratzezainek landareak trukatzeko aukera ere izanen dute.

### Pilotarien biltzarra

Izarra Pilota elkartearen biltzarra igande honetan, urriak 7, eginen da. Horren kariatara, eguna honela antolatua izanen da: 10:30ean meza, 11:30ean biltzar nagusia Lur Berri gelan. 12:15ean errebota partida jokatu du Doni-

bane Lohizunek Baigorriren kontra.

Ondotik, Herriko Etxeak eskainitako zintzur bustitzea izanen da. 14:00 aldean bazkari bat izanen da pleka trinketean 30 eurotan, eta pagatzea egunean berean eginen da jatetxeko sartzean eta elkartea-

ren karta erostea proposatua izanen da, 15 eurotan.

### Urtxintxak

Eskubaloi elkarteak bere sasoina hasi du. Hortaz, zuen haurrak nahi badu kirol hau deskubritu, entrenamenduetara joaten ahal da.

Asteazkenetan 11 urte azpikoak biltzen dira 17:30etik 19:00etara, 13 urte azpikoak 18:30etik 20:00etara, 15 urte azpikoak 18:30etik 20:00etara, seniorrak 20:00etatik 22:00 arte. Ortziarletan, eskubaloi eskola 17:00etatik 18:15era izanen da, 18 urte azpikoak 18:30etik 20:00etara bilduko dira eta seniorrak 20:00etatik 22:00 arte. Entrenamenduen ondotik, haurrak segitzea hautatzen badu, lizentzia bat hartzen ahalgo du.



ARGAZKIA: MARTIN GOIKOETXEA

### Besta ederrak

Aurtengo bestak politik izan dira eta horretarako herriko komitea, ostatuak eta gaztetxea eskertzekoak dira, denek parte hartu baitute besta hauek biziarazteko. Zahar eta gazteek, denek atzeman dute beren plazerra: ahate jokoa, pilota partida, karro desfilea, dantzak, bertsuak, dantzaldiak, behien primak... Azpimarratzekoa da asteazkeneko su artifizialak ederrak izan zirela, Gernikako bonbardaketaren oroitzapenez egin zen!

### Kantu afaria

Sarako kantariak elkarteak, urtero bezala, kantu afaria antolatua du, eta aurten larunbatean, urriak 6, iraganen da. Hitzordua 19:30etik goiti emana da Lur Berri gelan eta afariarentzat 130 toki badira. Afaria animatzeko Primaderan Urruñako taldea etorriko da. Erran, arrats hori laguntzaileei esker antolatzen duela. 20 eurotan zintzur bustitzea eta afaria ere izanen dira.


**CARRA**  
 CAFE DE LA MAIRIE  
 BARRIO DE LA MAIRIE  
 01001 VITORIA-GASTEIZ


**saroha**  
 gaitzeskeren elkartea  
 01001 VITORIA-GASTEIZ  
 948 63 54 58  
 www.saroha.net


**MONTXO OSTATUA**  
 ТАВЛІКО-БЕНДІ  
 100m² erabilgarria | Gaitzeskerak | 170000€ | Murrak erabiltzen  
 Egunez jekin 09:00etatik 02:30era - Duzenarenetik 2 km barru  
 ANJAN-BITRIA - URTAZULI | 948 599 037


**ARMUA JAITEKIA**  
 01001 VITORIA-GASTEIZ  
 948 63 54 58


**ttipi-ttapa**  
 otxera bidiltzen nahi baduzu,  
 deitu telefono honetara:  
**(0034) 948 63 54 58**  
 www.ttipi.net

## EZKONTZAK

**Iban Fernandez Arroabarren eta Oihana Telletxea Garmendia**, Alman-  
dozkoa eta Donamariakoa, abuztua-  
ren 25ean Almandozen.

**Patxi Sarratea Garaikoetxea eta Ana Arretxea Lasaga**, Legasakoa eta Sun-  
billakoa, irailaren 15ean Sunbillan.

**Ana Arrizurieta Eskudero eta Martin Azpiroz Astiz**, Leitzakoa eta Arrui-  
tzekoa, uztailaren 28an Aralarren.

**Alfredo Zozaia Mendiberri eta Sara Aietxu Idoate**, Lesakakoa eta Iruñe-  
koa, irailaren 15ean Lesakan.

**Ibon Ripalda Garbayo eta Itziar Fernandez Ibarburu**, Donostiakoa eta Oiar-  
tzungoa, irailaren 15ean Lesakan.

**Joseba Almandoz Telletxea eta Ja-  
sone Susperregi Arbelaitz**, Lesaka-  
koa, irailaren 15ean Lesakan.

**Iñigo Fernandez Herrero eta Letizia Calleja Segura**, Irungoa eta Donos-  
tiakoa, irailaren 21ean Lesakan.

**Mohamed Dadou eta Beatriz Serrat Collar**, Aljeria eta Kantabriakoa, irai-  
laren 22an, Lesakan.

**Iker Ayuso Alonso-Leciñana eta Ra-  
quel Madejon Canosa**, Etxalarkoak,  
irailaren 14an Etxalarren.

**Nicolas Caprara eta Charlotte Daux**,  
abuztuaren 25ean Saran.

**Julien Vallee eta Marine Chevalier**,  
irailaren 1ean Saran.

**Sebastien Berasategi eta Maritxu Ameztoui**, irailaren 1ean Saran.

**Yannick Bauer eta Nadine Sistiage**,  
irailaren 22an Saran.



## SORTZEAK

**Harriet Ruiz de Larrinaga Maritorea**,  
Anizkoa, irailaren 13an.

**Malen Iriarte Plaza**, Berakoa, irailaren  
15ean.

**Ninbe Goikoetxea Sagastibeltza**, Be-  
rakoa, irailaren 10ean.

**Maialen Goizueta Baleztena**, Aurtizkoa,  
irailaren 18an.

**Adur Mazzucco Maia**, Iruñekoa, abuz-  
tuaren 26an.

**Oskar Zubitur Arrizurieta**, Leitzakoa,  
irailaren 9an.

**Onintza Kamino Subizar**, Zugarramur-  
dikoa, irailaren 2an.

**Joana Iratzoki Arbués**, Igantzikoa, irai-  
laren 11n.

**Aratz Laka Mitxelena**, Igantzikoa, irai-  
laren 14ean.

**Eila Oskoz Anzizar**, Arantzakoa, iraila-  
ren 9an.

**Irati Berget Txoperena**, Lesakakoa, irai-  
laren 14ean.

**Intza Sagardia Oiarzabal**, Lesakakoa,  
irailaren 18an.

**Alexandre Antoine Marsant**, Sarakoa,  
uztailaren 12an.

**Mikel Olagarai**, Sarakoa, abuztuaren  
10ean.

**Jon Sanjurjo Behotegi**, Sarakoa, abuz-  
tuaren 14an.

**Enol Gabriel Montosa Léglise**, Sarakoa.



## HERIOTZAK

**Ricardo Fagoaga Azkona**, Berakoa,  
irailaren 12an, 88 urte.

**Juan Tomas Gogorza Saralegi**, Leit-  
zakoa, irailaren 14an, 79 urte.

**Jesusa Olaetxea Odriozola**, Lesaka-  
koa, irailaren 15ean, 93 urte.

**Jose Maria Del Rio Etxeberria**, Bera-  
koa, irailaren 17an, 59 urte.

**Jose Maria Onsaldo Arraiago**, Areso-  
koa, irailaren 16an, 86 urte.

**Tomasa Otxoteko Lasaga**, Lesakakoa,  
irailaren 18an, 88 urte.

**Jose Maria Santesteban Eskudero**,  
Zubietakoa, irailaren 17an, 55 urte.

**Esteban Andiarena Etxekolonea**, Do-  
namariakoa, irailaren 18an, 79 urte.

**Soledad Huizi Madariaga**, Igantzikoa,  
irailaren 19an, 95 urte.

**Juan Jose Ziganda Ariztegi**, Oizkoa,  
irailaren 21ean, 98 urte.

**Francisca Etxeberria Zozaia**, Lesaka-  
koa, irailaren 23an, 84 urte.

**Juan Etxebeste Zozaia**, Igantzikoa, irai-  
laren 24an, 83 urte.

**Ana Olagarai**, Sarakoa, irailaren 19an,  
80 urte.



### Jose Mari DEL RIO ETXEBERRIA

Lanean nola kanpoan  
beti alai,  
hainbat borroka  
hainbat marmari,  
gure bidean betiko  
Jose Mari.

LAB SINDIKATUA



### Jose Mari DEL RIO ETXEBERRIA

Beran, 2012ko irailaren 17an

Elgorriagan jai,  
gure artean hazi,  
Berara ezkondu,  
baina gure lagun beti.  
Bere irrifarrea eta alaitasuna  
gurekin geldituko dira beti.  
Agur 'Gaztehu'.

ELGORRIAGAKO LAGUNAK

Bere oroimenez meza, Elgorriagako elizan  
eginen da urriaren 14an, 10:00etan.



### Beñat ETCHART VERDU

Urdazubin, 2011ko urriaren 6an  
I. URTEURRENA

Oroitzapenak eta sentimenduak  
ez dira atzenduko,  
nahiz eta urteak pastu.  
Betiko gure bihotzetan,

AITA, AMA, JOKIN ETA FAMILIA GUZTIA

Milaka muxu.



ATLETISMOA → TTIKIAK ETA GAZTEAK

# Atletismo eskolaren denboraldi berria aste honetan abiatu du Manttale taldeak

Ttikienak larunbatean eta gazteak asteazkenean hastekoak dira

## TTIPI-TTAPA

Atletismo eskolaren denboraldi berria abiatzeko prest dago Manttale taldea. Duela bi aste bilerak deitu zituen gurasoekin solasteko, eta aste honetan, atletismo eskola hasi du. Alde batetik, Manttale Ttiki taldean, 2001 eta 2006 urteen artean jaiotakoak sartuko dira eta bertetik, gazteen taldean, 1997 eta 2000 urteen artean jaiotakoak.



ARGAZKIA: MANTTALE TTIKI

Manttale Ttikiko neska-mutikoak eta monitorea, joan den urtean mendira egindako ateraldi batean.

Aitzineko urteetan bezala, Manttale Ttiki nahiz gazteen taldean hainbat jarduera eta entrenamendu egin nahi ditu

Manttalet, lau monitoren gidatuta. Larunbat honetatik aitzinera, urriak 6, larunbatero-larunbatero bilduko dira

ttikienak entrenatzera Berako kiroldegian, 10:00etatik 12:00etara. Gazteen taldearen kasuan, asteazkenean has-

tekoak ziren, urriaren 3an, hauek ere kiroldegian eta asteazkenean bilduko dira 17:30etik 19:00etara.

Azken urteetan, 60 neska-mutikok baino gehiagok parte hartu dute Manttale Ttikiko eskolan, atletismoaren oinarriak ikasiz eta joko didaktikoak eginez. Lau monitoren klase teorikoak eta praktikoak txandakatzen dituzte eta haurrek estiramentuak egiten, beroketak edo karrerako estilo eta teknikak ikasten dituzte. Asteroko entrenamenduekin batera, tardeka lasterketetan parte hartzen dute, baita mendira egiten diren txangoetan ere, oinez nahiz bizikletaz.

AIZKORA → LEHEN MAILAKO TXAPELKETA

## Donato Larretxea, Rekondo eta Erasun Nafarroako Txapelketako finalean ariko dira

Finala igandean jokatuko da Etxarri Aranatzan

## TTIPI-TTAPA

Maila Nagusiko Nafarroako Aizkora Txapelketako finala igandean honetan, urriak 7, jokatuko da Etxarri Arana-

tzen, eta kanporaketan denborarik onena egin zuten borts aizkolarari ariko dira lehian, Nafarroako txapelaren bila: Floren Nazabal (Etxarri Aranatz, 43 urte), **Donato Larretxea** (Arantza, 52 urte), **Jon Rekondo** (Leitza, 27 urte), Antonio Senosiain (Olague, 46 urte) eta **Ander Erasun** (Aurtitz, 22 urte).



ARGAZKIA: KOLDO ALDUNTZIN

Donato Larretxea, Ander Erasun eta Jon Rekondo finalean izanen dira igandean.

Kanporaketa irailaren 23an jokatu zen Uhartan eta bederatzia aizkolarari aritu ziren lanean. Finalera sailkatu diren borts horiek batera, Juan Jose Lopez (Lezaun), Aitor Senosiain (Olague), **Oihan**

**Larretxea** (Bera, 22 urte) eta Julen Kañamares (Berriozar, 22 urte). Nazabalek egin zituen denborarik onenak egur guztietan (12:25.16), baina kanporaketako marka Donato Larretxeak dauka (11:09).

Maila Nagusia galduko dutenak, berriz, Julen Kañamares eta Juanjo Erdozia dira, lehena kanporaketan azkena sailkatu zelako eta Erdozia kanporaketan parte ez hartzea erabaki zuelako.

25 urterekin, azken lau urteotan Espainiako Emakumezkoen Eskubaloi Liga irabazi duen Lizarrako Itxako taldeak Elisa Arretxea (Elizondo, 1987) fitxatu du, Ohorezko

Mailarako urratsa eginez. Goizez lana eta arratsaldean entrenamenduak egiten ditu eta eta biak bateratzea ez omen zaio gogorra egiten: «gustuko ditudan bi gauzak egiten ari

naiz», dio. Hasieran, «zaila eta gogorra» izan zela onartu du, baina «ongi jan, zaindu eta igandetan amatxik egindakoa janez, indarrak har daitezke eta aitzinerat segi daitezke».

Elisa ARRETXEIA | Itxako eskubaloi taldeko jokalaria elizondarra

# «Ohorezko Mailan aritzea ametsa izan da beti eta orain egi bihurtu da»

G. PIKABEA | ELIZONDO

«Nire lagunek batzuetan ez naute ulertzen eta nire aitak eskubaloiarekin gaixotasun bat daukadala erraten dit». Halaxe aitortu digu Elisa Arretxeak. 11 urte zituenetik dabil eskubaloiaren, eta orain, hainbertze maite duen kirolean «amets bat egi bihurtu zaio», azken lau urteotan Espainiako Emakumezkoen Eskubaloi Liga irabazi duen Itxakok fitxatu baitu.

BKTn egin zituen lehen urratsak: «Lekarozko institutuan hasi ginenean, Joxe Iturzaeta, Gorputz Heziketako irakaslea, BKTko entrenatzailea zen, eta eskubaloiaren aritzea proposatu zigun». Horrela hasi zen, nahiz eta lehendik eskubaloi ez zuen arrotza: «nire izeba Belen BKTn aritzen zenean behin baino gehiagotan joaten nintzen partidak ikustera».

Eskubaloiaren oraindik hobetzeko «aunitz» due la uste du: «beti bada zer bait. Bertzenaz, hoberenak izanen ginatex, eta ez genuke esfortzurik eginen. Eta hori ezin da, egunerolanda behar da, norbere buruari gauzak ongi egin eta hobetzeko exijitu behar zaio». Baina nabarmentzeko ezaugarriak ere baditu bere joakoak: «indarra eta baloia hartzeko abilitadea».

11 urterekin BKTn hasi, eta 17 urterekin oraindik jubena zela, lehen



UTZITAKO ARGAZKIA

Elisa Arretxea eskuinean, Itxakoren partidaren.

mailan aritzeko aukera izan zuen. Baina lotailugurutzatua eta barneko meniskoa hautsi zituen eta itzuli orduko urtea pasatu zitzaiola kontatu digu. Gero Torrelavegara joan zen fisioterapia ikastera eta han bigarren mailako talde batean ibili zen. «Ikasketak akituta, Elizondora itzuli eta BKTn zilarrezko mailan hiru urtez aritu nintzen». Iaz, berriz, Logroñoeko talde batean ibili zen. Eta aurten Itxakora egin du salto, Ohorezko Mailara: «ttikitatik Ohorezko mailan aritzea ametsa izan da, eta orain, ametsa egi bihurtu da».

Itxakon «arras ongi» dagoela aipatu digu, «aunitz» ikasten ari dela. Baina aitortu digunez, hasie-

**BKT GOGOAN**  
«BKT nire betiko taldea izan da eta izanen da. Haiei esker nago Itxakon. Aunitz ikasi dut eta aunitz erakutsi didate BKTtik pasatu diren jokalariek guztiek, etxe-koek zein kanpokoek.

**BKT-REN IZPIRITUA**  
«BKTrekin Ohorezko Mailan aritzea gustatuko litzaidake. Bartzelonako La Masia Baztanen ere badago eta BKTko La Masian eskubaloiak gustuko izanik sosik gabe jokatzeko izpirituak itzali gabe segitzen du».

ra «zaila» izan da, arazo ekonomikoak tarteko, aurreneboraldirik egin gabe hasi baitira eta bi entrenamendu egin eta Espainiako Superkopako finala jokatu behar izan baitute: «aise galdu genduen, baina ligan aunitz eta fite hobetu dugula erakusten ari gara». Liga hasiera ere ez dute xamurra izan: «aurkari zailenekin aritu gara eta alde handia nabaritu dut fisikoki hobeki daudelakoz». Halere, itxaropentsu dago: «teknikoki, erabiltzen dugun sistema desberdina da, eta bigarren itzulian emaitzak aldatuko dira».

Itxakon egotea «ardura handia» omen da: «orain arte dena irabazi du, jokalaria hoberenak he-

men izan dira, eta emakumezkoen eskubaloiaren ezagutzera eman dute. Orain gaudenak ez gara Barbosa, Macarena edo Andrea Barno; Vera, Selene eta Elisa gara. Ez dugu jaiotzez horiek izan duten kalitaterik, baina lanarekin gauza aunitz lor ditzakegu». Horretarako «arras entrenamendu gogorak» egiten dituztela azaldu du. Iruñeko kirol mediku zentru batean fisioterapeuta gisa ari da, eta goizez lanera eta arratsaldean entrenatzera joaten da. Hortaz aparte, partidak ditu eta zaindu ere egiten da nutrizionista eta dietista batekin. Gainera, ikasteko eta masterreko lanak egiteko tartea hartzen ere saiatzen omen da.

Ahal duen guztia «gogoz eta aprobetxatu» nahi du. Eskubaloiak ezin dela bizi uste du, baina berak eskubaloi *hobbie* bezala du, «dirua irabazteko bertze lana daukat». Talde aunitzetan ibili bada ere, BKT du bereziki gogoan: «nire betiko taldea izan da eta izanen da. Haiei esker nago Itxakon». BKTrekin Ohorezko Mailan aritzea gustatuko litzaiokela ere aitortu du. Are gehiago, Bartzelonako La Masia Baztanen ere badela dio, eta gaineratu digunez, «BKTko La Masian eskubaloiak gustuko izanik sosik gabe jokatzeko izpirituak itzali gabe segitzen du».



PILOTA → LAXOA TXAPELKETA

# Doneztebeko taldeak irabazi du infantil mailako laxoa txapelketa

9-7ko emaitzarekin Arraiozi nagusitu zaio

## TTIPI-TTAPA

Partida eder baten ondotik, Doneztebe B taldea izan da infantilen laxoa txapelketan nagusi. Irailaren 15ean jokatu zen finala Arraiozko plazan, eta Doneztebe B taldeak etxeko taldea izan zuen aurkari. Partida polita eskaini zuten bi taldeek, markagailuan emozioa sortuz, eta lehia parekatua izan zen seinale, 8-7koa egiteko



ARGAZKIA: TIBURTZIO ARRAZTOA

Finala nahiko berdindua izan bazen ere, Doneztebe B nagusitu zitzaion Arraiozko taldeari.

20 minutu pasatu zituzten jokoan. Guztira, berri, ordu bat eta 45 mi-

nutu iraun zuen lehiak. Azkenean, 9-7ko markagailuarekin, Do-

neztebe Bk irabazi zuen. Gorka Iribarren (sakatzailea), Iñaki May-

lin (numeroa), Julen Larretxea (laurdena) eta Aitor Arotzena (laurdena) aritu ziren Doneztebe Bn eta Eki Etxandi (sakatzailea), Josu Etxandi (numeroa), Urki Etxandi (laurdena) eta Mikel Organbide (laurdena) Arraiozko taldean.

Sariak Xotero Etxandi eta Mariano Maritorenak banatu zituzten eta sari banaketaren ondotik, Laxoa Elkartek pilotari eta afizionatu guztiei luntxa eskaini zien. Aipatzekoa da, gisa berean, jende aunitz hurbildu zela finala ikustera eta giro ederra sortu zela Arraiozko plazan.

TXIRRINDULARITZA → BETERANOAK

# Euskal Herriko txapelketatik bi txapel ekarri ditu Transportes Bidasoa-Inurrieta taldeak

Luziano Mitxelena eta Ion Zeberio txapelak izan dira eta AEL taldeko Patxi Meoki ere bai

## TTIPI-TTAPA

Transportes Bidasoa-Inurrieta master mailako taldeko txirrindulariek bi txapel eta brontzezko do-

mina bat lortu dituzte Euskal Herriko Txapelketan; Luziano Mitxelena lesakarra txapeldun izan da master 60 mailan, Ion Zeberio elizondarra senior mailan eta Iñaki Villoria Iruritarra 3. master 40 mailan. Aipagarria da AEL taldeko Patxi Meoki elizondarrak master 50 mailan lortutako txapela.

Transportes Bidasoa-Inurrieta taldea sei txirrindulariarekin aurkeztu zen txapelketara. 91 kilome-



UTZITAKO ARGAZKIA

Transportes Bidasoa-Inurrietako taldekideek gustura ospatu zituzten txapelak eta domina.

tro zituen frogak, baina lasterketa erdian zegoen master 60 mailako helmuga. Maila horretako garaipenaren lehian, Mikel Arburua igantziarra, Ibon Urriaga betelutarra, Joxe Angel Mitxelena lesakarra eta Iñaki Villoria iruritarra Luziano Mitxelenaren mesedetan aritu ziren; Luzianok aisa irabazi zuen. Bigarren erdian bi igoe-

ra zeuden eta taldeak Iñaki Villoria eta Ion Zeberioaren aukerak jokatu nahi izan zituen. Baina ihesaldian ibili arren, Zeberio eta Meoki taldetxo batean helmugaratu ziren. Zeberio lasterketan hirugarren izan zen, senior mailan txapela lortuz, Meoki 6. helmugaratu zen master 50 mailan irabaziz. Hurrengo tropelean ailegatu zen

Villoria, master 40 mailan 3. postua lortuz. Gertu helmugaratu zen Joxe Mari Goia igantziarra, berriki Euskal Herriko BTT maratonia irabazi duena eta Elgorriagako Manolo Ganboa aurtengo La Indurain probako garailea; Ibon Urriaga atzerago helmugaratu zen, eta Joxe Angel Mitxelena eta Mikel Arburuak ez zuten proba bukatu.

## urriak 4 - urriak 18

Informazioa bidaltzeko: [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net) edo 948 63 54 58

## Ospakizunak



ELGORRIAGA | 2012.10.06/07

**Onddo eta Zizen Kofradiaren besta egun handia**

Igandean kofrade berriak izendatuko dituzte eta onddo eta zizekin prestatutako kaxulen lehiaketa egingen da. Onddo beltz handienak ere sarituko dituzte.

## Ospakizunak




DONEZTEBE | 2012.10.13

**Arkupeak elkartearen Bazkidearen Eguna**

Urtero bezala, erretiratuen elkar-  
teak omenaldia eskainiko die aur-  
ten 85 urte bete dituzten bazki-  
deei eta 50 urte ezkondurik egin  
dituzten senar-emazteei.

## Ospakizunak



LEITZA | 2012.10.06

**Aurrera Elkartearen Eguna, ekitaldiz bete aurten ere**

Goizean BTT ateraldia, txistu-  
lariak, jokoak, pilotariak, Incan-  
sables txaranga eta bazkideen  
bazkariaren ondotik, ingurutxo  
eta herri poteoa izanen dira.

## ZUBIETA

**Euskararen Eguna**

**Urriaren 12 eta 13an**  
Euskararen Eguna an-  
tolatu dute gazteek Xe-  
hetasunak 31. orrian.

## BERA

**1972ko kintoen besta**

**Urriaren 6an** ospatuko  
dute. Interesatuak urri-  
aren 2a baino lehen  
eman beharko dute  
izena Zalain jatetxean,  
10 euro utziz.

## DONEZTEBE

**Arkupeak elkartearen Bazkidearen Eguna**

**Urriaren 13an** ospatu-  
ko dute. 85 urte bete  
eta Urrezko Ezteiak os-  
patzen dituztenak  
omenduko dituzte.

## SARA

**Animalien besta**

**Urriaren 6an** ospatuko  
da. Xehetasunak 49.  
orrian.

## SARA

**Izarra Pilota Elkartearen Biltzarra**

**Urriaren 7an** antolatu  
da eta horren kariatara  
egun osoko besta iza-  
nen da. Xehetasunak  
49. orrian.

## DONAPALEU

**Deskonkista Kolektiboaren besta**

**Urriaren 14an** antolatu  
da. Karrika kurri, des-  
konkista ekitaldia, ape-  
ritifa, herri bazkaria,  
musika, dantza, be-  
rtoak, Iñaki Perurena-  
ren erakustaldia, Buu-  
bu kontzertuan, hau-  
ren xokoa eta Hurmu-  
rao Gaztetxean.

**Bestak**

## ANIZ

**Arrosarioko Amabirjinaren bestak**

**Urriaren 6tik 8ra** Arro-  
sarioko Amabirjinaren

**Erakusketak**

## URDAZUBI

**Monasterioko kalostrepean**

**Abenduaren 31 arte**  
ikusgai izanen da mo-  
nasterioko kalostrepe-  
an *Euskal Herriko mar-  
gogintzaren 50 urteak*  
erakusketa.

## OIEREGI

**Diana Iniestaren lanak Bertzen ikusgai**

**Urriaren 31 arte** Diana  
Iniestaren margo eta  
marrazki erakusketa  
Bertziko Parkean, *Prin-  
cipios* izenburupean.  
10:30-13:30 eta  
16:00-17:00.

## ELIZONDO

**Ana Ananda eta Itziar Muñozen margolanak**

**Urriaren 5etik 25era**  
Ana Ananda eta Itziar  
Muñozen margolanak  
ikusgai izanen dira  
Arizkunenean astegu-  
nez 18.00etatik  
21:00etara eta jaiegu-  
netan 12:00etatik  
14:00etara.

**Kontzertuak**

## SARA

**Kantu afaria**

**Urriaren 11n** kantu

afaria antolatu du Sa-  
rako Kantariak elkar-  
teak Lur Berri gelan,  
19:30etik goiti. Xeheta-  
sunak 49. orrian.

## ARIZKUN

**Olerki musikalak Sasternean**

**Urriaren 11n** *Gezitik  
Gazira* olerki musikalak  
eskainiko dituzte Xa-  
bier Soubelet (ahots  
eta gitarra), Nat Cazar-  
ré (gitarra) eta Andres  
Eichner (flauta) musika-  
riek, Sasterneko Xu-  
biltz Elkartean. Xubiltz  
Elkartek antolatua.

**Azokak**

## ELIZONDO

**Artisauen azoka**

**Urriaren 13an**  
Baztango eskulangile-  
en azoka izanen da  
plazan.

**Ospakizunak**

## BEINTZA-LABAIEN

**Urriruko besta**

**Urriaren 6an** hainbat  
ekitaldi antolatu ditu  
Itur-Ondo elkartek eta  
Euskal Herriko Harri  
Ttikien txapelketa ere

jokatuko da. Xehetasu-  
nak 32. orrian.

## ELGORRIAGA

**Onddo eta Zizen Kofradiaren Eguna**

**Urriaren 6an eta 7an**  
ospatuko dute kofra-  
diaren besta handia eta  
kofrade berriak izenda-  
tuko dituzte. Xehetasu-  
nak 28. orrian.

## LEITZA

**Aurrera Eguna**

**Urriaren 6an** Aurrera  
Elkartearen Eguna. Xe-  
hetasunak 38. orrian.

## PROPOSAMENA

## ZUBIETA

**Euskararen Eguna antolatu dute gazteek**

Aurtengoan Nafarroa-  
ren konkistaren bos-  
garren mendeurrena  
hartu dute gai nagusi-  
tzat eta urriaren 12an  
Makilipurdia mendi  
ateraldia egingen dute,  
bertze zenbait ekitaldi-  
rekin batera. Egun  
handia, halere, urriaren  
13a izanen da. Egita-  
rau zabalaren barnean,  
eguerdian dantza era-  
kustaldi rekoa egingen  
da, Zubietako dantza  
luzea berreskuratuz.





bestak. Xehetasunak 40. orrian.

**GARTZAIN**

**Pilarika bestak**

**Urriaren 11tik 14ra** Pilarika bestak. Xehetasunak 42. orrian.

**ARIZKUN**

**Errebestak**

**Urriaren 6an** errebestak ospatuko dituzte Arizkun. Xehetasunak 45. orrian.

**Antzerkiak**

**ETXALAR**

**«Ispilua» antzeslana Kultur Etxean**

**Urriaren 6an** Ion Martinez eta Saioa Royo aktoreen *Ispilua* antzezlanaren izanena da 19:00etan Kultur Etxean.

**Lehiaketak**

**LESAKA**

**Beti Gazte elkartearen argazki lehiaketa**

**Urriaren 31n** bukatuko da Beti Gazte elkartearen argazki lehiaketara lanak aurkezteko epea.

**SENPERE**

**Arranoa elkartearen argazki lehiaketa**

**Urriaren 31n** bukatuko da Arranoa elkateak eta Herriko Etxeak apailatu argazki zoi-gehiagoka. Gaia: Bidaia. Lehenbiziko saria 500 eurokoa da.

**Mendi ateraldiak**

**SUNBILLA**


**Ulibeltzak mendi taldea**

**Urriaren 12an** Etxalar-Sunbilla ateraldia egingen du Ulibeltzak mendi taldeak.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

**ENTRETENIMENDURAKO GAIAK**

**Liburua**



Piztiaren begiak

**ALBERTO LADRON ARANA**

Elkar, 2012

**K**artzelan urteak pasatu eta gero, iraganeko zorrak garbitu nahi dituen gizasemea, batetik; negozio ilunak tarteko postutik baztertu zuten eta bere bizkarra zaindu behar polizia, bestetik. Ehiztari-sena dute biek, eta bata bestea harrapatu nahian dihardute, eginahal guztian. Erdian, berriz, nora ezean dabilen koitadu bat, duela urte batzuk bere familia ezbehar batean galdu zuena, eta orain familia berri bat osatu nahi lukeena. Alberto Ladrón Aranak ohiturik gauzkan maisutasunez josi ditu eleberri bizi-bizi honen hariak, misterioa eta suspentsa erabiliz irakurlearen arreta bereganatzeko.

**Musika**




Glaukoma vol. 1

**GLAUKOMA**

Promomusika, 2012

**G**ipuzkoako herri ezberdinetako bost gazteren proiektuaren izena da Glaukoma. Tolosa, Irun eta Donostiako gazteek osatutako boskotea. Rap-reggae taldea da. Roots reggae ukitu xamurretatik hasi eta danxehall bortitz eta gogorrenera arte, rap gordin eta raggamuffin melodikoagoetatik igarota. Tolosako Bonberena gaztetxearen eskutik iritsi zitzaizen 2012ko neguan euren lehen diskoa grabatzeko aukera. Martxoan ekin zitoten estudio lanari eta maiatzaren 18an aurkeztu zuten Bonberenean zazpi abestiz osatutako *Glaukoma vol. 1*, CD/LP formatuan. Euskal Herriko hainbat txokotara eramateko aukera izan dute, tartean Lesakako Gazte Egunera. Espainiara ere lehen jauzia egin dute, Keingo El Bierzon ospatzen den *ReggaeBoa* jaialdian aritu baitziren. Diskoaren reedizioa egin berri dute, CD formatuan. Ordu erdi luzez, rap, reggae eta hauen bizilagunekin batera egoteko aukera.

**Internet**



Euskal literaturzaleen txokoa sarean

**WWW.111AKADEMIA.COM**

**1**11 Akademiaren garbi dute irakurleari ahalik eta protagonismorik handiena eman behar zaiola euskal literaturgintzan, eragile handia baita, baina eragiletza hori kontsumotik areago eraman nahi dute, ahalik eta gehien hizpidea eman eta harreman bidea zabaldu egileekiko. Horretarako, orain arte Beterriko Liburuko ohorezko aipamenaz arduratu den Epaimahai Orokorra 111 epaimahaikideraino zabalduko dute, eta akademia izaera ematen ahalginduko dira; 111 deituko da, hots, 100 + 11. Akademia horren helburua piskanaka euskal literaturzaleen arteko lan eta harreman egitura bat sortzen joatea izango litzateke, literaturaren baitan irakurlearen presentzia eta partehartzea indartuz. 111 Akademiaren zeregin nagusietako bat urtero Beterriko Liburua ohorezko literatur saria ematea izanen da, baina bertze hainbat ekintza eta lan ere burutuko dituzte akademikideek.

**Nire aukera**



**Maite JAIMERENA**  
Elizondoko ileapaintzailea

**«Monako eta Ibiza artean kruzeroa egingen dut Loreal etxearen bitartez»**

**I**leapaindegiko lanak luzten dion denbora libre pixarra familiarekin, «semea eta alabarekin» ematea gustatzen zaio elizondarrari. Mendira eta hondartzara gan eta asteburuetan, «tartekalagunekin juntatzea» ere gustatzen zaio. Oporrak hartzen ditueanean, berriz, «kanpora gatego» ohitura izaten du. «Haurrekin gatego moduko tokiak aukeratu behar izaten dugu, toki lasaiak, bertze plan batean mugitzen gara», aipatu digu Maitek. Lana dela medio, bertze bidai batzuk ere egingen ditu eta alde horretatik, beti ezagutu nahi izan duen Ibiza ezagutzeko aukera izanen du abudo. «Loreal etxearen bitartez, kruzero bat egingen dugu Monako eta Ibiza artean. Denak pelukeroak gara eta joerak ikusi bidenabarkoan turismo pittat egingen dugu». Libururik irakurtzeko ohiturarik ez du, baina Vogue aldizkaria, gustoko du, «nere lanean egunean egoteko». Zinean, berriz, «azken aldian umeendako pelikulak bakarrik ikusten ditut», erran digu.

**ETXEBIZITZAK**

salgai

**ERATSUN.** 3 borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

**ORONAZ-MUGAIRI.** 2 bizitza salgai, mobleztaua. Berogailua, igogailua, trastelekua eta bajerarekin. Prezio onean. ☎948 585036.

**ANZABAL**  
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdian**

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

**ZUGARRAMURDI**

- Baserria salgai 80.000 metro<sup>2</sup>ko lur eremuarekin.  
- Etxe adosatua bere lurra-  
rekin salgai.

Tel. 948 580 804  
Faxa. 948 581459  
anzabal@anzabal.com

**LEITZA.** Duplexa salgai Kale Nagusian, Etxe txurizenerako eraikinean. Prezioa adosteke. ☎676 954464.

**ELIZONDO.** Exebizitza salgai, 330m<sup>2</sup>, 4.000m<sup>2</sup>ko partzela. Paregabeko tokian kokaturik. Argiak izan du lehenasuna etxearen diseinuan, material modernoak. Beraz sentitze-ko eta bizitzeko etxea. ☎610 508206.



**SUNBILLA.** Pisu atikoa salgai. 2 logela, egongela tximinia itxiarekin, sukaldia hornitua, balkoia eta terraza. Trastelekua goiko solairuan, marra

**MERKATU TTIKIA**

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net


SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA  
**ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**  
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta  
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutzako 3008 0080 53 0703304626 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz  
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

garajea, berogailu zentrala eta igogailua. Kalitateko eraikin berria eta inguru lasaian. Prezio onean. Errentan hartze-ko aukera ere bai. ☎628 473539.

**ETXEBIZITZAK**  
errentan emateko

**ELIZONDO.** Akullegi karrikan 2 logelako pisua errentan emateko. ☎646 774117.

**BERA.** Agerra auzoan, pisua errentan emateko; 3 logela, igogailua eta kalefakzioa. ☎659 963960.

**LEGASA.** Pisua errentan emateko edo salgai,

berritua eta mobleztaua. ☎677 089046.

**IRUÑEA.** Donibane auzoan pisua errentan emateko. 3 logea, 2 koma, egongela, sukaldia, trasteleku ttikia, igogailua eta berogailu zentrala. Mobleztaua. 600 eurotan. ☎667 208082.

**IRUÑEA.** Taxoare kallean, unibertsitatekin arras hurbil, 5 minutura, bi logela errentan emateko. ☎658 998340.

**UITZI.** Pisua berria errentan emateko, lur eremu ttiki batekin. ☎696 269511/ 677 026614.

**LESAKA.** Herri erdian eta kondizio zoragarrietan pisua errentan emateko. 3 egongela, trastelekua, despentsa, climalit lehiak, kalefakzioa gasarekin, argitsua eta lasai. ☎670 754034.

**LESAKA.** Guztiz mobleztaua eta ekipatua dagoen duplexa errentan emateko, 1 edo 2 lagunentzako aproposa. Zonalde polita eta lasaia. ☎658 943702.

**ELIZONDO.** Pisua errentan emateko, berritua (estrenatzekoa), bizitzera sartzeko prest. 3 logela, egongela, sukaldia, koma eta bi balkoi (bisita politak eta arras eguzkitsua). ☎649 213382.

**ETXEBIZITZAK**  
errentan hartzeko

**BERA.** Bikote batek Beran etxea edo pisua errentan hartuko luke. ☎687 609684.

**BERA, LESAKA eta INGURUAN.** 2 neska arduratsuk eta garbik pisua errentan hartu nahi dute, hilabetean 400 euroko errenta ordaintzeko prest. ☎663 420685.

**ZERBITZUAK**

denetarik

Afrikako mutil batek, Lesakan bizi denak, **dantza klase desberdinak** eman nahi ditu: afrikar dantza, hip-hop, saltsa... ☎620 575749/ 660 219447.

**LANA**

eskariak

**Zonaldeko mutila** pintatze lanetan, baserriko lanetan, mantenimendu lanetan (lore zaintza, erai-kuntza...), egurra egiten... ariko litzateke. Lanean berehala hasteko prest. ☎636 599336.

**Gizonezkoa** prest dago lorezaintzarako: belarra moztu, desbrozatu, mendia garbitu... Pertsona helduen zainketa: erosketak egin, konpainia eskaini... Abeltzaintza: ardiak, behiak... Garbiketa lanak: ostatuak, portalak, negoziok... ☎699 121936.

**Berako mutil bat** edozein lanetan aritzeko prest dago. ☎657 409499.

**Emakumezko bat** Elizondo edo zonaldean garbiketarako egiten, plan-txalanan, fregatzen, fregaderan egon edo pertsonak zaintzen ariko litzateke. ☎603 640776.

Zonaldean bizi den **emakumea** interna moduan lan egiteko prest dago. Elizondon externa edo interna moduan ere lan egiteko prest dago. ☎673 533472.

**BASERRIA**

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**  
(irailaren 14tik 21era bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 39,00 € (+4,00)

**Zerri gizena**  
1,490 € kiloa. (=)

**Zerramak:**  
0,910€ Kg/bizirik. (=)

**BEHIKIA**

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal

**Extra** 4,31 (=)

**1.koa** 4,22 (=)

**2.koa** 3,96 (=)

**Urruxak:** €/kg. Kanal

**Extra** 4,39 (=)

**1.koa** 4,00 (=)

**2.koa** 3,86 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze ttikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**  
urruxak 130,00 (=)

idixkoak 210,00 (=)

**Aretze nabarrak:**  
urruxak 120,00 (=)  
idixkoak 140,00 (=)

**Zaldikoak:** €/k

Sortuberriak: 2,97/3,07

Zaldi-behorrak: 1,81/2,01

**Bildotsak:** €/k

6-8 kilokoak: 8,60/8,70

8-10 kilokoak: 6,60/7,00



**Emakume euskalduna** etxeko lanak egiten edo haurrak zaintzen ariko litzateke. ☎948 630914/678 903294.

**Neska gazte euskalduna** lanean ariko litzateke. ☎637 715383.

**Emakumezkoa**, kotxearekin, etxeko lanak egiten eta pertsonak zaintzen ariko litzateke. Disponibilitatea goizeko 10etatik aurrera. ☎699 651477.

**Neska gazte euskalduna** haurrak zainduko litzazke Lesakan. ☎620 421380.

**LANA**  
**eskaintzak**

**NAFARROAN**, ordezkarri independenteak behar dira: zure nagusia izan, etxetik lan egiteko, enpresa independente bat ezarri etxean. Aurreko esperientzia ez da beharrezkoa. ☎626 981768.

**BERA**. Asteburuetan lan egiteko kamarera bat behar da jatetxean. ☎607 827309.

**ARIZKUN**. Pertsona bat behar da bulego batean lan egiteko. Derrigorrezkoa frantsesez jakitea. Bidali curriculuma [info@elbetepvcalumino.com](mailto:info@elbetepvcalumino.com)-era.

**ANSOAIN**. Ile-apaintzailea behar da, estetikako ezagutza duena. Lanaldi osoan aritzeko. ☎649 457183.

**SARA-ZUGARRAMURDI**. Urtxola jatetxean sukaldari laguntzaile bat behar da. Hobe esperientziarekin. ☎(0033) 559 542131.

**IBARDIN**. Beola Bentan egun erdiz lan egiteko zerbitzaria eta dendan lan egiteko bertze pertsona bat behar dira. Frantseza dakitenak. ☎948 630709.

**ANIMALIAK**  
**salerosketak**

6 txerrikume salgai, 3

eme eta 3 aketzetarako. Txerrikumeak uztailearen 9an jaiotakoak dira. Nahi izanez gero, goizez deitu. ☎695 716894.




Ehizerako *grifon azul de gascuna* arrazako **zakurkumeak** salgai. ☎639 518780.

**Hiru asto eta bi astokume** salgai. ☎680 201222/669 670130.

**ANIMALIAK**  
**oparitzeko**

**2 zakurkume eme** oparitzeko. ☎690 388263.



**MOTORRAK**  
**salgai**

**Gas gas 250 cc motorra** salgai, 2006koa. 300era altxatua eta extrekin. Hagitz egoera onean eta konfidantzakoa. 2.400 euro. Deitu ilunabarretan. ☎655 710948.



**Fiat Bravo** multijet 120 zaldi, 2007 urtekoa, 72.000 km, extra guztiekin, hagitz egoera onean. ☎607 890923.



**Nissan Almera Tino 1.8** monobolumena salgai. 5 atekoa. Gasolina. 2005ekoa. 65.000 km. Ongi zaindua. ☎628 572273.

**Toyota Runner 3.0** salgai, oso egoera onean. 175.000 km. Altueran altxatua, leiho tintatuak, kubiarta berriekin dena homologatua eta ITV eguneratua. ☎653 709496.



**Fiat Punto Sporting 1.2** 16v 82cv horia salgai, 2003koa. Oso egoera onean, gasolina bada ere oso gutxi kontsumitzen du (7 martxa). 130.000 km. Beti garajejan edukia. ☎626 079259.



**Golf VR6** salgai. Extra guztiekin. 1994koa. 2.000 eurotan. ☎679 982109.

**DENETARIK**  
**salerosketak**

**SUNBILLA**. Su egurra salgai, lotean edo xehe-tua. ☎659 867287 / 699 461394.

**ORONOZ**. Egurra xehe-tua salgai. Pagoa eta harritza. Etxera eramaten da. ☎676 242520.



**AVIA GASOLINDEGIA**

DESKONTUAK

**CLUB AVIA**

**%2 gasolio eta gasolinan**  
**%5 dendako produktuetan**

**SEKULAKO OPARIA**

**50 TELEBISTA**  
(Panasonic marka)  
**ZOZKETATZEN DITUGU**

**ARIZKUN**. Egurrezko armairua salgai, egoera arras onean. Neurriak: 3,80 x 2,20. ☎699 375558.



Eusebio Arizaga markako **eskopeta** paralela raiatua eta motza salgai. Kanoiak 60 zentimetroko luzera, kanoi bat raiatua eta bertzea zilindrikoa. Kulata pistol-erdia eta bi gatilo. Oilagorretarako aproposa, baita basurdean resakatzen ibiltzeko, raiatua ongi doa breneke balekin. ☎686 730516.



**UDALBATZARRAREN AKORDIOA**

Udalbatzarrak, 2012ko abuztuaren 23an egindako bilkuran, Udal Plan Orokorraren SNS1 Sektorea eta CI3 Unitatea aldatzeko ikerketa egiteko sektore eta unitate horietako eremuan lizentziak ematearen etendura agintzea erabaki du.

Bera, 2012.09.20  
Behin-behineko alkatea,  
Jon Abril Olaetxea

Bigarren eskuko **pianoa** salgai, egoera eta prezio onean. ☎618 962561.

**BERA**. Arraindegia traspasatzen da Eztegarra pasealekuan (20). Bertako altzariak erosteko aukera ere bada. ☎649 110229.

**Trikitixa bat** errentan hartuko nuke ikasturte osorako. ☎666 663642/ 948 453460.

**Enpakadorea** salgai, New Holland markakoa. ☎660 251884.

homen agertu nahi duzu?

egin zure erosketa

[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net) on

**IRAGARKIA**

2 aldizkaritan eta internetan

**8**





# Birziklatu

Ontziek bizitza luzea dute



Kortatzko ontziak, papera,  
egunkariak, aldizkariak.



Plastikozko ontziak,  
latzak, brikak.



Beirazko botilak,  
flaskoak, poteak.

## Birziklatu

Uste ez baduzu ere, birziklatzeari esker ontziek bizitza luzea dute. Balfeko zure seme-alabean bizikletan eraldatuta aurkitzea, zure jantzi polar kuttunean, irakurriko duzun hurrengo liburuan edota urezantzi batean... Zeren, manera batera edo bertara, birziklatzeak bizitza dakar. Eta zure laguntzarekin, denok zainduko dugu gure ingurumena.





# TEILA FRANTZESA

eta teilatuentzako sistemak



Etxeleku Baserria

GALIBANE 12 Rojo Occitan

les tuiles  
SOLUTIONS

948 123 713

info@lestuiles.es

www.lestuiles.es

BERMEAK



Teilatua berria edo teilatua aldatzeko beharrean zaude?